# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA SAILA

## 115

*253/2021 DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez ezartzen baita Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma.*

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikuluak ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalarekin lotutako Lanbide Heziketako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, Konstituzioaren 149.1.30. eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6 artikuluak xedatzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarrizko alderdiak ere.

Ekonomia Jasangarriaren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia Jasangarriaren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –zeinaren bidez aldatzen baitira Lanbide Heziketaren eta kualifikazioen 5/2002 Lege Organikoa, Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa eta uztailaren 1eko 6/1985 Legea, Botere Judizialarena– ekonomia lehiakorrago eta berritzaileago bat, produkzio-sektore tradizionalak berrituko dituena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarako bidea zabalduko duena, sustatzeko eta bizkortzeko behar ziren hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte.

Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da Lanbide Heziketako tituluen egitura. Horretarako, kontuan hartu dira Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk.

Titulu horien lanbide-profila errege-dekretu horren 7. artikuluan zehazten da, barnean sartzen direla konpetentzia orokorrak, konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-unitateak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat hartuko du barnean, gutxienez, helburutzat hartuta Lanbide Heziketako tituluek eraginkortasunez erantzutea produkzio-sistemaren beharrei eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei.

Otsailaren 25eko 402/2020 Errege Dekretuak Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren titulua ezartzen du, eta haren curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen ditu. Dekretu horrek ordezkatu egin du abenduaren 22ko 2049/1995 Errege Dekretuak ezartzen zuen Natura Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzeko teknikariaren tituluaren erregulazioa.

Bestalde, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluaren 2. apartatuan xedatzen da hezkuntza-administrazioek ezarriko dituztela Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak, errege-dekretu horretan bertan eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatzen direnak errespetatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan,

Euskal Autonomia Erkidegoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari eta hura garatzen duten Lege Organikoei, eta 149.1.30 artikuluak Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi-inspekzioari kalterik egin gabe».

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen xedea Lanbide Heziketako Euskal Sistema antolatzea eta arautzea da, eta haren helburua da Euskadik egungo eta etorkizuneko erronkei modu egokian erantzungo dien lanbide-heziketako sistema bat izatea.

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluari Lanbide Heziketako irakaskuntzan dagokion curriculuma ezartzea Euskal Autonomia Erkidegorako, betiere otsailaren 25eko 402/2020 Errege Dekretuaren babesean, hark ezartzen baititu Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren titulua eta haren curriculumaren oinarrizko alderdiak.

Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluaren curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: alde batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila, hura osatzen duten kualifikazioak eta konpetentzia-unitateak, konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak; eta, bestetik, titulu horren helburu orokorrak eta lanbide-moduluak ezartzen dituzten ikasgaiak, bai eta haietako bakoitzari dagozkion ikaskuntza-emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak ere, barnean direla horiek guztiak antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak.

Helburu orokorrak profilean deskribatzen diren konpetentzia profesional, pertsonal eta sozialetatik atera dira. Helburu horietan adierazita daude zer gaitasun eta lorpen eskuratu behar dituzten ikasleek heziketa-zikloaren amaieran; hortaz, helburu horiek lehenengo iturria dira jakiteko zein diren heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta ikasleek lortu beharreko ikaskuntza-emaitzak.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak dira irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren euskarria, eta horien bidez eskuratuko ditu ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-identitate koherentea islatuko duten portaerak.

Dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazitakoa aintzat hartuta, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 21ean egindako bilkuran proposamena eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honek Lanbide Heziketako irakaskuntzako Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegorako.

2.– Ikastetxeari dagokio, autonomia pedagogikoa eta antolamendukoa baliatuz, bere curriculum-proiektua ezartzea, eta proiektu horretan zehaztuko ditu bere irakaskuntza-lanaren ezaugarriak eta identitatea zehazteko behar diren erabakiak, bai eta lanbide-moduluen programazioak prestatzeko irizpideak finkatzeko behar diren erabakiak ere.

3.– Ikastetxearen curriculum-proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren ardura duen irakasle-taldeari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezartzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean jasotzen diren ikaskuntza-emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu eta irakaskuntzen erreferentziazko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

## II. KAPITULUA

## TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE-PROFILA

2. artikulua.– Tituluaren identifikazioa.

Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

– Izena: Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritza.
– Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
– Iraupena: 2.000 ordu.
– Lanbide-arloa: Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak.
– Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: P-3.5.4.

3. artikulua.– Lanbide-profila.

1.– Titulu honen konpetentzia orokorra da ibilbideak antolatzea eta taldeak gidatzea zenbait natura-ingurunetan (behe- eta erdi-mailako mendiak, nordiko erako eremu elurtuak, zailtasun txikiko barrunbeak, arrisku txikiko arroilak, ur-ingurunea eta aisia- eta abentura-instalazioak), oinez, sokaz, bizikletaz, ontziz eta zaldiz, bai eta astialdiko jarduerak dinamizatzea ere, betiere jarduera horiek parte-hartzaileei egokituz, ingurumena errespetatuz eta kalitatea eta segurtasuna bermatuz.

2.– Konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Hauek dira titulu honen konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

a) Natura-inguruneetan taldeekin egiteko kirol-jarduera fisiko gidatuak diseinatzea, eta parte-hartzaileen ezaugarriak, egindako aurrerapena eta jarduera egingo den ingurunea balioestea.

b) Natura-inguruneetan taldeekin egiteko kirol-jarduera fisiko gidatuak antolatzea, eta jarduerak egiteko beharrezkoak diren izapideak egitea eta baliabideak ziurtatzea.

c) Jarduera egiteko beharrezkoak diren materialen eta ekipamenduen mantentze-lanak egitea, teknika egokienak erabilita eta ezarrita dauden protokoloei jarraituta.

d) Kultura- eta astialdiko jarduerak dinamizatzea eta partaideak parte hartzera animatzea, eta horretarako, parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzea eta segurtasuneko eta arriskuak prebenitzeko oinarrizko neurriak betetzea.

e) Jardueretan parte hartzen dutenak sentsibilizatzea naturaguneen kontserbazioari buruz, eta ingurumen-inpaktua eragiten duten alderdiak baloratzea.

f) Taldeak behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideetan barrena gidatzea, jardueraren dinamikara eta partaide-taldearen dinamikara egokituta.

g) Taldeak zailtasun txikiko haitzulo eta arroiletan barrena gidatzea, beharrezkoak diren aurreratze- eta segurtasun-teknikak erabilita.

h) Taldeak bizikleta-ibilbideetan barrena gidatzea, jardueraren eta partaide-taldearen dinamikara egokituta.

i) Taldeak zaldi-ibilbideetan barrena gidatzea, jardueraren eta partaide-taldearen dinamikara egokituta.

j) Zaldiz ibiltzea, eta zaldiketaren oinarrizko teknikak menderatzea.

k) Uretan lekualdatzeak egitea, eta igeriketa-estiloak menderatzea.

l) Egiaztagiria izatetik salbuetsita dauden aisiako ontzietan, taldeak ur-ingurune naturaletan barrena gidatzea, jardueraren eta partaide-taldearen dinamikara egokituta.

m) Erabiltzaileak aisia- eta abentura-instalazioetan barrena gidatzea, eta segurtasun-baldintzen berri ematea, jarduerak nola egiten dituzten kontrolatzea eta izan daitezkeen gertakizunak konpontzea.

n) Taldeen ostatu-gaua eta natura-inguruneko jarraipena antolatzea, partaideen eta jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta, eta segurtasuna bermatuta.

o) Inguruneak edo pertsonek eragin ditzakeen arrisku-egoerei aurre egiteko behar diren segurtasun-neurriak zehaztea eta hartzea, jarduera egin dadin.

p) Jarduera egiten ari ziren bitartean istripuren bat izan duten partaideei oinarrizko arreta eskaintzea.

q) Larrialdi-egoeretan taldea zuzentzea, segurtasun-neurriak koordinatuz edo lurreko edo uretako salbamendu-lanak eginez, eta, horretarako, erreskate- eta ebakuazio-teknikak aplikatzea eta egoera jakin horretarako egokienak diren baliabideak eta metodoak erabiltzea.

r) Produkzio-prozesuetako teknologia- eta antolamendu-aldaketen ondorioz sortzen diren lan-egoera berrietara egokitzea, bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilita, jakintzak eguneratzeko.

s) Bere eskumenaren esparruan erantzukizunez eta autonomiaz jardutea, eta esleitutako lana antolatzea eta egitea, lan-ingurunean beste profesional batzuekin talde-lanean edo lankidetzan arituz.

t) Bere jarduerari dagozkion gorabeherak arduraz konpontzea, horien sorburuak identifikatuz, bere eskumenaren eta autonomiaren esparruan.

u) Efikaziaz komunikatzea, bere lanaren esparruan esku hartzen duten pertsonen autonomia eta eskumena errespetatuz.

v) Produkzio-prozesuan laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko neurriak eta protokoloak aplikatzea, pertsonei, lan-inguruneari eta ingurumenari kalterik ez egiteko.

w) Kalitate-prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinuak» aplikatzea, ekoizteko edo zerbitzuak emateko prozesuen barruko jarduera profesionaletan.

x) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko gestioak egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea.

y) Dagokion jarduera profesionalaren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta parte-hartze aktiboa izatea bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean.

z) Gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasun eraginkorra sustatzea lanbidearen eta lanaren esparruan, eta genero-baldintzatzaileak saihestea, ikasketa- eta lanbide-ibilbidean.

3.– Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-unitateen zerrenda:

– Lanbide-kualifikazio osoak:

a) Behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideetan zeharreko gidaritza AFD159_2 (1087/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa, Lanbide-kualifikazio berriak ezartzen dituena, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean sartzen direnak; haiei dagozkien prestakuntza-moduluak Lanbide Heziketako Moduluen Katalogoan sartzen dira, eta, orobat, otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretuak ezarritakoen arteko lanbide-kualifikazio jakin batzuk eguneratzen dira). Konpetentzia-unitate hauek biltzen ditu:

UC0505_2: Behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideak zehaztu eta antolatzea.

UC0506_2: Eraginkortasunez eta segurtasunez aurrera egitea behe- eta erdi-mailako mendiko lurretan eta nordiko erako lur elurtuetan.

UC0507_2: Pertsonak gidatu eta dinamizatzea behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideetan eta nordiko erako lur elurtuetan.

UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa jardutea.

b) Bizikleta-ibilbideetan zeharreko gidaritza AFD160_2 (1087/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa, Lanbide-kualifikazio berriak ezartzen dituena, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean sartzen direnak; haiei dagozkien prestakuntza-moduluak Lanbide Heziketako Moduluen Katalogoan sartzen dira, eta, orobat, otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretuak ezarritakoen arteko lanbide-kualifikazio jakin batzuk eguneratzen dira). Konpetentzia-unitate hauek biltzen ditu:

UC0353_2: Bizikleta-ibilbideak zehaztu eta antolatzea askotariko lurretan (gehienez erdi-mailako mendietan).

UC0508_2: Bizikletak eraginkortasunez eta segurtasunez gidatzea askotariko lurretan (gehienez erdi-mailako mendietan) eta bizikleten mantentze-lan operatiboak egitea.

UC0509_2: Pertsonak bizikleta-ibilbideetan gidatu eta dinamizatzea (gehienez erdi-mailako mendietan).

UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa jardutea.

c) Ur-eremu naturaletako sorospena AFD340_2 (1521/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Jarduera Fisikoak eta Kirol Jarduerak lanbide-arloko lau lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-unitate hauek biltzen ditu:

UC0269_2: Igeriketa-teknika espezifikoak eraginkortasunez eta segurtasunez gauzatzea. UC1082_2: Ur-ingurune naturaletako istripuak edo larrialdi-egoerak prebenitzea.

UC1083_2: Ur-ingurune naturaletako istripuetan edo larrialdi-egoeretan pertsonak erreskatatzea.

UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa jardutea.

d) Haurren eta gazteen hezkuntza-astialdiko jarduerak dinamizatzea SSC564_2 (567/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak lanbide-arloko lau lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-unitate hauek biltzen ditu:

UC1866_2: Haurren eta gazteen hezkuntzarako astialdi-jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.

UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.

UC1868_2: Astialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.

– Osatu gabeko lanbide-kualifikazioa:

Natura-inguruneko zaldi-ibilbideetako gidaritza AFD339_2 (1521/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Jarduera Fisikoak eta Kirol Jarduerak lanbide-arloko lau lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez):

UC1079_2: Zaldi-ibilbideak zehaztu eta antolatzea askotariko lurretan.

UC1080_2: Zaldiz ibiltzeko oinarrizko teknikak menderatzea.

UC1081_2: Pertsonak zaldi-ibilbideetan gidatu eta dinamizatzea.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Titulua eskuratuko duten pertsonek eremu hauetan egingo dute lan: naturan egiten diren kirol- eta jolas-jardueretan, eta turismo aktiboaren, kirol- edo abentura-turismoaren alorretan, aisia- eta abentura-instalazioetan, bai eta astialdiko gizarte- eta hezkuntza-jardueretan ere, jarduera horiek antolatzen, garatzen, dinamizatzen eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiten, eta ur-ingurune naturaletan prebentzio-, zaintza- eta erreskate-lanak egiten. Alor hauetan ere egin dezakete lan: uretan esku hartzeko unitateetan eta erreskate- eta sorospen-taldeetan.

Autonomo edo kontratatu gisa egin daiteke lanbide-jarduera, eremu publikoan –administrazio orokorrean, autonomikoan edo tokikoan– edo eremu pribatuan, zerbitzu-enpresa handi, ertain eta txikietan, produkzio-sektore hauetakoetan: kirola; turismoa eta aisia, eta haurren eta gazteen hezkuntza-astialdia.

2.– Hauek dira zeregin eta lanpostu aipagarrienak:

– Gehienez erdi-mailako mendiko lurreko ibilbideen diseinatzailea.

– Gehienez erdi-mailako mendian zaldiz egiteko ibilbideen diseinatzailea.

– Gehienez erdi-mailako mendiko lurretako bizikleta-ibilbideen diseinatzailea.

– Egiaztagiria izatetik salbuetsita dauden aisiako ontzietan uretan barrena egiteko ibilbideen diseinatzailea.

– Natura-inguruneko kirol-jarduera fisiko eta jolas-jarduera gidatuen diseinatzailea eta antolatzailea.

– Bizikletaz egiteko ibilbide eta ekitaldietan prebentzioko eta segurtasuneko arduraduna.

– Zaldiz egiteko ibilbide eta ekitaldietan prebentzioko eta segurtasuneko arduraduna.

– Jarduera hauetako gidaria: mendi-ibilia, behe- eta erdi-mendiko mendizaletasuna, behe- eta erdi-mendiko zeharkaldietan eta elur-erraketekin egiten diren nordiko erako ibilbide elurtuetan.

– Zailtasun gutxiko arroiletako gidaria.

– Zailtasun gutxiko espeleologiako gidaria.

– Mendiko bizikletaz egiteko ibilbideetan zeharreko gidaria.

– Zikloturismoko ibilbideetan zeharreko gidaria.

– Zaldiz egiteko ibilbideetako gidaria.

– Egiaztagiria izatetik salbuetsita dauden aisiako ontzietan uretan barrena egiteko ibilbideen gidaria.

– Haurren eta gazteen hezkuntza-astialdiko begiralea.

– Kanpamentuetako, gazte-aterpeetako, udalekuetako, baserri-eskoletako eta natura-gela eta -eskoletako begiralea.

– Jardueren begiralea eskola-eremuan.

– Aisia- eta abentura-instalazioetako begiralea.

– Itsas hondartzetako soroslea.

– Aintzira eta urtegietako soroslea.

– Uretako Esku hartzeko Unitateetan laguntzeko soroslea.

– Natura-inguruneko ur-jardueretako soroslea.

– Uretako eta kirol-arloko jardueretako soroslea.

– Ibai-hondartzetako soroslea.

## III. KAPITULUA

## HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIAK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.– Heziketa-zikloaren irakasgaiak.

1.– Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Natura-ingurunean ibilaldiak egiteko ibilbideak prestatzea, lurraren ezaugarriei, kirol-jarduera fisiko motari eta erabiltzaileen profilei buruz behar den informazioa bilduz, taldeekin natura-ingurunean egiteko kirol-jarduera fisiko gidatuak diseinatzeko.

b) Izaera ludikoko jarduera osagarriak programatzea, erabiltzaile motaren ezaugarri eta interesak eta ingurunea aintzat hartuta, natura-ingurunean taldeekin egiteko kirol-jarduera fisiko gidatuak diseinatzeko.

c) Jarduerak egin aurreko jarduketak zehaztea, eta natura-ingurunean taldeekin egiteko kirol-jarduera fisiko gidatuak antolatzeko beharrezkoak diren izapide, baliabide eta zerbitzu osagarriak aletzea.

d) Jardueren ekipamendu eta materialak berrikusi eta konpontzea, eta protokoloak ezartzea eta teknika egokiak erabiltzea, beharrezko materialen eta ekipamenduen mantentze-lanak egiteko.

e) Animazio-teknikak aplikatzea, baliabideen, taldearen eta jolas-estrategien antolamendua egokitzea eta ingurunearen baldintzak ziurtatzea, kultura- eta astialdi-jarduerak dinamizatzeko.

f) Taldeekin egiten diren jarduerek ingurumenaren gainean duten inpaktua aztertzea, eta ingurumenean nolako eragina duten identifikatzea, naturaguneen kontserbazioaren inguruan sentsibilizatzeko.

g) Natura-ingurunean taldeak aurrera eramateko eta gidatzeko teknikak menderatzea, eta baliabideen eta taldearen antolamendua eta kanalak eta informazio mota egokitzea, taldeak behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideetan gidatzeko.

h) Soka bidez segurtatzeko maniobrak eta aurreratze bertikalekoak menderatzea, taldeak gidatzeko zailtasun txikiko harpeetan eta arrisku txikiko arroiletan.

i) Natura-ingurunean taldeak bizikletaz aurrera eramateko eta gidatzeko teknikak menderatzea, eta baliabideen eta taldearen antolamendua eta kanalak eta informazio mota egokitzea, taldeak bizikleta-ibilbideetan gidatzeko.

j) Natura-ingurunean zaldizkoen taldeak gidatzeko teknikak menderatzea, eta baliabideen eta taldearen antolamendua eta kanalak eta informazio mota egokitzea, zaldiketa-jarduera gidatuak zuzentzeko.

k) Oinarrizko zaldiketa-teknikak menderatzea, eta zaldiz ibiltzeko aplikatzea.

l) Igeriketa-estiloen teknika menderatzea, eta uretan ibiltzeko aplikatzea.

m) Uretan taldeak aurrera eramateko eta gidatzeko teknikak menderatzea, baliabideen eta taldearen antolamendua eta kanalak eta informazio mota egokituz, egiaztagiria izatetik salbuetsita dauden aisiako ontzietan taldeak gidatzeko ur-ingurune naturalean.

n) Jardueretan kontrol-, segurtasun- eta dinamizazio-teknikak aplikatzea, jardueren eta ekipamenduen berezko arriskuak aztertuz, erabiltzaileak aisia- eta abentura-instalazioetan gidatzeko.

o) Kanpatze-teknikak aplikatzea, eta eremuen kokalekua eta baldintzak zedarritzea, taldeek natura-ingurunean gaua nola igaro antolatzeko.

p) Jardun-protokoloak prestatzea, izan daitezkeen kontingentziak eta arrisku-egoerak aurreikusiz, segurtasun-neurriak zehaztu eta hartzeko.

q) Istripurik izanez gero, esku hartzeko oinarrizko prozedurak aplikatzea, eta jarduerak egiten ari diren bitartean istripuren bat izan duten parte-hartzaileei oinarrizko arreta emateko ezarritako protokoloak baliatzea.

r) Lehorrean eta uretan larrialdi-egoerei egokitutako erreskate-prozedurak aplikatzea, segurtasun-neurriak koordinatuz eta larrialdi-egoeretan taldea zuzentzeko ezarritako protokoloak erabiliz.

s) Bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak, eta komunikazio- eta informazio-teknologiak aztertu eta erabiltzea; ikasteko eta ezagupenak eguneratzeko, hobekuntza profesional

eta pertsonalerako aukerak antzemanda, eta hainbat egoera profesionaletara eta lanekoetara egokitzeko.

t) Talde-lanak garatzea eta haien antolamendua baloratzea, tolerantziaz eta errespetuz parte hartuz, eta erabaki kolektiboak edo bakarkakoak hartzea, erantzukizunez eta autonomiaz jarduteko.

u) Sormenezko irtenbideak hartu eta balioestea lan-prozesuak garatzean sortzen diren arazo eta gorabeheren aurrean, dagokion jardueran izaten diren gertakariak erantzukizunez ebazteko.

v) Komunikazio-teknikak aplikatzea, zabaldu beharreko edukietara, horien helburura eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

w) Lanbide-jarduerarekin lotutako ingurumen- eta lan-arriskuak aztertzea, eta horien sorburuekin lotzea, hartu beharreko prebentzio-neurriak oinarritzeko eta dagozkion protokoloak aplikatzeko, nork bere buruari, inguruneari eta ingurumenari kalterik ez egitearren.

x) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren teknikak aztertzea eta aplikatzea, baita desgaitasuna duten pertsonei tratu egokia emateko teknikak ere.

y) Ikasteko prozesuan lanaren kalitate-prozedurak eta erreferentziako produkzio-sektorearenak hobetzeko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.

z) Ekintzailetzako, enpresako eta ekimen profesionaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

aa) Gizarte-eragile aktibo den heinean zer eskubide eta betebehar dituen jakitea, aintzat harturik baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

ab) Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza-eskubideak babesten dituen legeria eta euskararen ezarpena eta garapena bideratzen duen araudia ezagutzea.

2.– Honako hau da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

– Zaldiketa-teknikak.

– Zaldi-gidaritza.

– Taldeentzako arreta.

– Ibilbideak antolatzea.

– Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza.

– Bizikleta-gidaritza.

– Astialdiko teknikak.

– Igeriketa-teknikak.

– Natura-inguruneko sorospena.

– Ur-ingurune naturaleko gidaritza.

– Maniobrak sokekin.

– Ingeles teknikoa.

– Laneko prestakuntza eta orientabidea.

– Enpresa eta ekimen sortzailea.

– Lantokiko prestakuntza.

I. eranskinean zehazten da lanbide-moduluen ordu-esleipena, bai eta lanbide-moduluak zer kurtsotan eman behar diren ere.

Hezkuntzaren alorrean eskumena duen sailak araututako heziketa-eskaintzaren arabera egokitu daiteke moduluen ordu-esleipena eta horren arabera zehaztu daiteke moduluak zer kurtsotan emango diren, dekretu honen 10. artikuluak arautzen duenarekin bat.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak ezartzen dira, prestakuntza-aldia amaitzean ikasleek jakin, ulertu eta egin dezan espero dena azaltzen dutenak, eta, halaber, ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. Hori guztia II. eranskinean ezartzen da.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtsoko azken 12 asteetan gauzatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztietan aldeko ebaluazioa lortu ondoren egin ahal izango da.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 28. artikuluan arautzen da nola txertatu atzerriko hizkuntzak, batez ere ingelesa, Euskal Autonomia Erkidegoko prestakuntza-prozesuetan.

Europar Batasuneko Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an etengabeko prestakuntzarako funtsezko konpetentziei buruz emandako gomendioari jarraituz, eta Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, heziketa-ziklo honetan atzerriko hizkuntza lantzeko, Ingeles Teknikoko modulu bat erantsiko da haren curriculumean.

6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko eta ezarritako emaitzak eta konpetentziak lortzeko gutxieneko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehazten dira.

7. artikulua.– Irakasleak.

1.– Heziketa-ziklo hau osatzen duten lanbide-moduluak honako irakaskuntza-kidego hauetako irakasleek emango dituzte: Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegoko irakasleek, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko irakasleek eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko irakasleek –betiere, dekretu honen IV. eranskineko 1. apartatuan ezarritako espezialitateen arabera–, bai eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legearen 95. artikuluari jarraituz sartzen diren irakasle espezialistek ere.

2.– Irakaskuntza-kidego horietan sartzeko eskatzen diren titulazioak, oro har, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen irakasleen kidegoetan espezialitate berrietan sartzeko eta haiek eskuratzeko Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoak dira, eta 276/2007 Errege Dekretuak onartutako lege horren zazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sartzeko araubide iragankorra arautzen da. Ondorio horietarako, aipatu titulazioen baliokideak –irakaskuntza-espezialitateen arabera– dekretu honen IV. eranskineko 2. apartatuan jasotakoak dira.

3.– Irakasle espezialistek eskumena izango dute, salbuespenez eta aldi baterako, dekretu honen IV. eranskineko 1. apartatuan zehaztutako lanbide-moduluak irakasteko.

4.– Irakasle espezialistek irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren baldintza orokorrak bete beharko dituzte, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen irakasleen kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoak, eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak onartutako lege horren zazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sartzeko araubide iragankorra arautzen da.

5.– Gainera, lanbide-moduluan biltzen diren prozesuen beharrei erantzuten zaiela bermatzeko, irakasle espezialistek, izendapen bakoitzaren hasieran, egiaztatu beharko dute dagokien lan-esparruan lanbide-esperientzia aitortua dutela, behar bezala eguneratua: zehazki, gutxienez bi urtez lanbidean jardun izana, izendapenaren aurreko lau urtean.

6.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioen titulartasun pribatuko eta publikoko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko behar diren titulazioak eta eskakizunak dekretu honen IV. eranskinaren 3. apartatuan ematen dira aditzera. Betiere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide-moduluen helburuak barnean hartu beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, gutxienez hiru urteko lan-esperientzia frogatu beharko da, ziurtagiri baten bidez, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean, –ikaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

Lan-esperientziaren bidez hartutako lanbide-konpetentziak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatuko da lan-esperientzia.

Ondorio horietarako, eta apirilaren 12ko, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena, 4/2007 Lege Organikoaren hamabosgarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz, dekretu honen IV. eranskineko 4. apartatuan jasotako titulazioak gaituko dira lanbide-moduluetarako.

7.– Sailaren ardura izango da lanbide-moduluak ematen dituzten irakasleek zehaztu diren eskakizunak bete ditzaten, eta horrela bermatuko da irakaskuntza horien kalitatea.

## IV. KAPITULUA

## BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA. BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA KORRESPONDENTZIAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKO ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta lotura.

1.– Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluak aukera ematen du erdi-mailako edozein heziketa-ziklotara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzak betetzen baldin badira.

2.– Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluak aukera emango du hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko, sarbide-prozedura bat gainditu ondoren, hala xedatuta baitago Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 44.2 artikuluan.

3.– Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluak aukera ematen du batxilergoko edozein modalitatetan sartzeko, indarreko araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

9. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta korrespondentziak.

1.– Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako tituluen eta Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren titulurako dekretu honetan ezartzen diren lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak V. eranskinean adierazten dira.

2.– VI. eranskinean jasotzen da Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren irakaskuntzako lanbide-moduluen eta konpetentzia-unitateen arteko korrespondentzia –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta, orobat, titulu honetako lanbide-moduluen eta konpetentzia-unitateen arteko korrespondentzia, horiek egiaztatzeko.

3.– Heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetarako baliozkotzeak, salbuespenak eta korrespondentziak 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan biltzen dira (32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena) eta, halaber, esparru horretan betetzekoa den gainerako araudian.

4.– Titulu honetan barnean hartutako konpetentzia-unitate guztiak Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak aintzat hartzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez egiaztatu dituztenek aukera izango dute Laneko Prestakuntza eta Orientabidea lanbide-modulua baliozkotzea eskatzeko, baldin eta:

– Urtebeteko lan-esperientzia, gutxienez, egiaztatzen badute.

– Prebentzio-jardueraren oinarrizko eginkizunak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztagiria badute –Prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztagiria–.

10. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Hezkuntzaren alorrean eskumena duen sailak arautuko ditu ziklo honetako irakaskuntzak araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarrizko alderdiak (hala nola moduluen iraupena eta sekuentziazioa).

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotura.

1.– Abenduaren 22ko 2049/1995 Errege Dekretuak ezarritako Natura Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzeko teknikariaren tituluak eta dekretu honetan ezarritako Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluak ondorio profesional eta akademiko berberak izango dituzte.

2.– Laneko Prestakuntza eta Orientabidea lanbide-modulurako dekretu honetan xedatutako prestakuntzak gaitasuna ematen du laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailako jardueren pareko lanbide-ardurak betetzeko, baldin eta gutxienez 45 eskola-ordu eman badira –jarduerok Prebentzio-zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan arautzen dira–.

3.– Dekretu honen lanbide-moduluetan ezarritako prestakuntzak barnean hartzen ditu ur-eremu naturaletako sorosle izateko prestakuntza-programen edukiak, Euskal Autonomia Erkidegoan naturguneetan sorosle gisa jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen duena.

Halaber, dekretu honen lanbide-moduluetan ezarritako prestakuntzak bermatu egiten du haurren eta gazteen hezkuntza-astialdiko jardueren begiralearen diplometan eskatutako jakintza-maila,

Euskal Autonomia Erkidegoak astialdiko jarduerak egiteko eskatzen diren titulazio-betekizunak betetzearren.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Metodologia berriz egindako proiektuak baimentzea.

Ikastetxeek aukera izango dute, beren autonomia pedagogikoaz baliatuta, eta ikasketa-proiektuko xedapenen arabera, dekretu honen eranskinetan lanbide-moduluek duten iraupena zertxobait aldatzea proposatzen duten proiektuak prestatzeko, heziketa-zikloak emateari buruzko estrategietan eta metodologietan oinarrituta. Hori egin ahal izango da, baldin eta ez bada aldatzen kurtsokako banaketa, eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzerako ezarri diren gutxieneko ordutegiak errespetatzen badira. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren baimena beharko dute proiektuek.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

## 253/2021 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

## LANBIDE-MODULUEN ZERRENDA, ORDU-ESLEIPENA ETA KURTSOA

| Kodea | Lanbide-Modulua | Ordu-esleipena | Kurtsoa |
|---|---|---|---|
| 1325 | Zaldiketa-teknikak. | 99 | 1 |
| 1327 | Zaldi-gidaritza. | 66 | 1 |
| 1328 | Taldeentzako arreta. | 66 | 1 |
| 1329 | Ibilbideak antolatzea. | 99 | 1 |
| 1333 | Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza. | 231 | 1 |
| 1334 | Bizikleta-gidaritza. | 165 | 1 |
| 1335 | Astialdiko teknikak. | 132 | 1 |
| 1336 | Igeriketa-teknikak. | 99 | 1 |
| 1337 | Sorospena natura-ingurunean. | 168 | 2 |
| 1338 | Ur-ingurune naturaleko gidaritza. | 147 | 2 |
| 1339 | Maniobrak sokekin. | 147 | 2 |
| E-100 | Ingeles teknikoa. | 33 | 1 |
| 1340 | Laneko prestakuntza eta orientabidea. | 105 | 2 |
| 1341 | Enpresa eta ekimen sortzailea. | 63 | 2 |
| 1342 | Lantokiko prestakuntza | 380 | 2 |
| GUZTIRA | | 2.000 | |

253/2021 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

1. APARTATUA. LANBIDE-MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Zaldiketa-teknikak.

Kodea: 1325.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 99 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Zaldi gainean ibiltzeko ekipamendua hautatu, ezarri eta kentzen du, horren erabilera interpretatuta eta funtzionalitatea aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lekuaren, zaldiaren eta ekipamenduaren ezaugarriak aztertu ditu.
b) Zaldi gainean ibiltzeko ekipamenduaren elementuak eta horien funtzioak definitu ditu.
c) Zaldi gainean ibiltzeko ekipamenduaren elementuak zuzen jarri eta kendu ditu.
d) Zaldia behar bezala gobernatu du ekipamendua jarri eta egokitu bitartean.
e) Ekipamendua egoki jarrita dagoela egiaztatu du, baita animaliaren morfologiara ondo egokitzen dela ere.
f) Ekipamenduarekin urradurak saihesteko neurriak hartu ditu.
g) Ekipamendua eta zingilak estutu ditu hasieran.
h) Abereen ongizateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak aplikatu ditu egindako lanetan..

Eduki-multzoa: Zaldi gainean ibiltzeko ekipamenduak hautatzea, ezartzea eta kentzea.

– Zaldi gainean ibiltzeko ekipamenduaren elementuak hautatzea, ezartzea eta kentzea.
– Zaldia behar bezala gobernatzea, ekipamendua jarri eta egokitu bitartean.
– Ekipamendua egoki jarrita dagoela eta animaliaren morfologiara ondo egokitzen dela egiaztatzea.
– Ekipamenduarekin urradurak saihesteko neurriak hartzea.
– Hasieran zaldiaren ekipamendua eta zingilak estutzea.
– Animaliaren ongizateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzea egindako lanetan.
– Zaldiketarako eremuen ezaugarriak. – Zaldi-heztegi estalia, pistak, instalazioen kanpoaldea, bestelakoak.
– Zela-zaldiaren ezaugarriak.
– Zaldizkoaren ekipamenduaren funtzionalitatea. Zaldizkoaren ekipamendua: oinarrizkoa eta bigarren mailakoa (prakak, kaskoa, botak, eskularruak, babes-jaka, usta, ezproiak, polainak eta beste). Neurriak eta doitzea. Ezaugarriak, motak eta funtzioak (segurtasuna, erosotasuna, babesa, laguntzen transmisioa).
– Zaldiaren ekipamenduaren funtzionalitatea. Zaldiaren ekipamendua: oinarrizkoa eta osagarria. Beste zenbait elementu ezarri eta kentzea (zela, buru-uhala, ahokoa, zamuka, soingurutze-babesak, petrala, buztanpekoa, babeskiak, bendak, martingalak eta bestelakoak). Ezaugarriak, motak eta funtzioak (segurtasuna, kontrola, erosotasuna eta laguntzen pertzepzioa). Exekuzio teknikoa.
– Ekipamenduarekin urradurak saihesteko neurriak. Kontuan hartu beharreko anatomia-atalak. Babeskiak. Ekipamenduko elementuen neurriak.
– Aulkia eta bridak jartzeko prozesuaren ezaugarriak.
– Zaldiaren kontrola eta segurtasuna bermatzeko jarraibideak.
– Hasieran zingilak estutzea. Muntagak, itxiera eta sudurreko uhala. Sudurreko uhal motak.

– Abereen ongizateari buruzko araudia eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Ekipamendua jarri eta kentzeko lanetan zaldia errespetatzea.
– Protokoloak zorroztasunez aplikatzea.

IE: 2. Zaldi gainean ibiltzen hasi aurretik, animaliak izan ditzakeen erreakzioak aurreikusten ditu, haren egoera fisikoa, izaera eta gaitasunak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zaldiaren jarrera aztertu du hurbiltzean, buru-uhala jartzean eta kabestrutik gidatzean.
b) Zaldiaren erreakzioak aztertu ditu haren gainean ibiltzeko prestaketa-lanetan.
c) Zaldiaren erantzunak aztertu ditu lantokira kabestrutik gidatu bitartean eta sokaren bitartez mugitzean.
d) Mugimenduan dagoela, zaldiak ekipamendua onartu duela eta hartara egokitzen dela egiaztatu du.
e) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu egindako lanetan.

Eduki-multzoa: Zaldiak izan ditzakeen erreakzioak aurreikustea.

– Zaldiaren jokabidea, erreakzioak eta erantzunak aztertzea bere gainean ibiltzeko prestaketa-lanetan.
– Zaldiaren jokabidea, erreakzioak eta erantzunak aztertzea gidatu bitartean eta sokaren bitartez mugitzean.
– Mugimenduan dagoela, zaldiak ekipamendua onartu duela eta hartara egokitzen dela egiaztatzea.
– Zaldiaren egoera fisikoa baloratzea.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa betetzea egindako lanetan.
– Zaldiaren jokabidearen ezaugarriak aztertzea haren gainean ibili aurretiko prestaketa-lanetan, mugitu bitartean eta zingilak doitzean.
– Zaldiaren jokabidearen ezaugarriak aztertzea hurbiltzean, buru-uhala jartzean eta kabestrutik gidatzean.
– Zaldiak izan ditzakeen erreakzio eta erantzunak teknika, estimulu (pistan edo lantokian sartzean, sokaren bitartez mugitzean, etab.), zaldiketa-fase (prestatzea, gidatzea, ibiltzea eta jaistea) eta exijentzia maila ezberdinen aurrean.
– Zaldiak nola erantzuten duen ekipamenduaren elementuen aurrean. Amaieran zingilak estutzea.
– Abereen ongizateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia.
– Zaldiaren erreakzioetara etengabe adi egotea.
– Protokoloak zorroztasunez aplikatzea.

IE: 3. Seguru eta orekaz ibiltzen da zaldi gainean, zaldiaren hiru aireak menderatuz eta teknikak animalia, lurrazal eta egoeraren arabera hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zaldiaren mugimendu-sekuentziak hiru aire naturaletan bereizi ditu.
b) Zaldira igotzean animalia kontrolatzeko teknikak deskribatu eta aplikatu ditu.
c) Zaldi gainean gorputzak hartzen duen jarrera definitu du eta gorputz-jarrera egokia hartu du zaldia geldirik zein mugimenduan egon bitartean.
d) Zaldiketarako laguntzak deskribatu eta aplikatu ditu.
e) Aireen arteko trantsizioak egin ditu, baita norabide eta martxa-erritmo aldaketak eta geldialdiak ere.
f) Zaldi gainean ibili bitartean animaliaren desobedientziak zuzendu ditu.

g) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Segurtasuna eta oreka zaldiaren hiru aireetan:

– Zaldi gainera igotzeko teknikak aplikatzea.
– Gorputz-jarrera egokia hartzea zaldia geldirik zein mugimenduan dagoenean.
– Zaldiketarako laguntzak aplikatzea.
– Aireen arteko trantsizioak egitea, baita norabide eta martxa-erritmo aldaketak eta geldialdiak ere.
– Zaldi gainean ibili bitartean animaliaren desobedientziak zuzentzea.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatzea.
– Zaldiketaren oinarrizko kontzeptuak.
– Zaldiaren aireak: Definizioa eta sekuentziak. Oinez, trostan eta lauoinka ibiltzeko modua aztertzea. Oinez, trostan eta lauoinka ibiltzeko moduak. Ointokiez egiteko ekintzak, ointokiak eta zingilak.
– Zaldi gainera igotzeko teknikak. Zaldi gainean ibiltzean egiten diren akatsak. Aho-uhalei eusteko teknikak. Ointokiak erabiltzea. Ointokiak jartzea.
– Gorputz-jarrera. Zaldizkoaren gorputz-segmentuen posizioa.
– Martxa-erritmoak: oinez, trostan eta lauoinka. Trosta zutik eta eserita. Zaldi gainean ointokiekin eta ointokirik gabe ibiltzea.
– Zaldiketarako laguntzak: naturalak eta artifizialak. Oinarrizko funtzioak. Konbinatzeko moduak. Laguntzak erabiltzeko arauak. Laguntzak erabakitzea eta aplikatzea. Laguntzak aplikatzean egin ohi diren akatsak.
– Trantsizioak, norabide eta martxa-erritmo aldaketak, eta geldialdiak egiteko teknika.
– Zaldiaren desobedientziak. Desobedientzien aurrean zaldia kontrolatzeko metodoak. Zuzenketa teknikoak.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Konfiantza eta segurtasuna izatea zaldi gainean.
– Zaldiarekin errespetuz jokatzea haren gainean ibiltzeko zereginetan.

IE: 4. Segurtasun eta orekaz ibiltzen da zaldi gainean nolabaiteko zailtasuna duten pausoetan, egoera bakoitzean aplikatu beharreko teknika eta prozedurak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laguntzen eta haien funtzio aurreratuen konbinazioak definitu eta aplikatu ditu.
b) Oztopoak eta jauzi txikiak gainditzeko teknikak aplikatu ditu.
c) Zaldiaren lan fisikoaren intentsitatea doitu du.
d) Oina lurrean bermatzea egokia ote den aintzatetsi du.
e) Oina lurrean bermatzeko teknikak aplikatu ditu.
f) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Segurtasunez eta orekaz ibiltzen da zaldi gainean, nolabaiteko zailtasuna duten pausoetan.

– Laguntzen eta haien funtzio aurreratuen konbinazioak aplikatzea.
– Oztopoak eta jauzi txikiak gainditzeko teknikak aplikatzea.
– Zaldiaren lan fisikoaren intentsitatea doitzea.
– Oina lurrean bermatzea egokia den aintzatestea.
– Zalditik jaisteko teknikak aplikatzea.
– Zalditik jaistean egin ohi diren akatsak zuzentzea.

– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatzea.

– Laguntza-konbinazioak: aplikazio teknikoa eta funtzio aurreratuak. Hankaz egiteko ekintzak, eserlekua eta aho-uhalak.

– Oztopoak eta jauzi txikiak gainditzeko teknikak.

– Lanaren intentsitatea doitzeko teknikak.

– Saio baten faseak. Animaliaren egoera fisikora egokitzeko moduak.

– Zalditik jaisteko teknikak: oina lurrean bermatzea. Ointokiak askatzea. Zalditik jaistean egin ohi diren akatsak.

– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.

– Konfiantza eta segurtasuna izatea zaldi gainean.

– Zaldiarekin errespetuz jokatzea haren gainean ibiltzeko zereginetan.

IE: 5. Zaldi gainean ibili bitartean animalia aintzat hartzen du, haren erreakzioak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zaldi gainean ibiltzeko erabilitako ekipamenduen eta materialen egoera eta egokitasuna kontuan izan ditu.

b) Zaldiaren higienea eta bizi-baldintzak aintzat hartu ditu haren gainean ibili ondoren.

c) Zaldiaren erreakzioak erregistratu ditu, baita erreakzioen garapena ere.

d) Zaldi gainean ibiltzeko laguntzei emandako erantzunak kontuan hartu ditu, baita zaldiaren desobedientziak ere.

e) Zaldiaren balorazioa egiteko kontrol-fitxa bete du.

f) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Zaldi gainean ibili bitartean animalia aintzat hartzea.

– Zaldi gainean ibiltzeko ekipamendua egiaztatzea eta egoera aztertzea.

– Zaldi gainean ibiltzeko ekipamendua gordetzea eta babestea.

– Zaldiaren higienea eta bizi-baldintzak egiaztatzea haren gainean ibili ondoren.

– Zaldiaren erreakzioak erregistratzea, baita erreakzioen garapena ere.

– Zaldi gainean ibiltzeko laguntzei emandako erantzunak erregistratzea, baita zaldiaren desobedientziak ere.

– Zaldiaren balorazioa egiteko kontrol-fitxa betetzea.

– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatzea.

– Zaldi gainean ibiltzeko ekipamendua garbitzea eta zaintzea. Gordetzeko eta babesteko moduak.

– Zaldiaren egoera aztertzeko jarraibideak.

– Zaldi gainean ibili ondoren haren higiene-egoera aztertzeko jarraibideak. Zaldia ukuiluratzea edo askatzea.

– Zaldiaren erreakzioak jasotzeko erregistroak. Animaliaren bilakaeraren jarraipena egiteko erregistroak.

– Kontrol-fitxak: Laguntzei emandako erantzunen eta desobedientzien erregistroak. Zaldiaren egoera fisikoari buruzko erregistroak. Jokabideei buruzko erregistroak (ezohikoak eta bizioak). Erreakzioak erregistratzea. Aurreikuspenak egiteko behaketak.

– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.

– Ebaluazioa eta autoebaluazioa balioestea, hobekuntza- eta garapen-estrategia gisa.

– Ebaluazio-teknikenganako interesa izatea.

2. lanbide-modulua: Zaldi-gidaritza.

Kodea: 1327.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 66 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Ibilbiderako materialak, zaldiak eta baliabideak berrikusi, prestatu eta biltzen ditu, eta haien erabilera eta ezarritako prozedura interpretatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilbidea egiteko behar diren baliabide eta materialak eskuragarri eta erabilgarri daudela egiaztatu du.
b) Ibilbiderako zaldien egoera eta gaitasuna egiaztatu du, eta oinarrizko zaintza eman zaie, etapa egin aurretik, bitartean eta ondoren.
c) Ibilbideetan, zaldiak egoki gobernatu ditu ibilgailuetara igotzeko, haietatik ateratzeko eta garraiatzeko operazioetan.
d) Ibilbiderako ekipamenduaren elementuak, materialak eta haien funtzioak zehaztu ditu.
e) Zaldiak prestatu ditu, eta etaparako ekipamenduak ibilbideko parte-hartzaileen ezaugarriei egokituta jarri ditu.
f) Materialak eta ekipamenduak mantentzeko eta gordetzeko prozedura bete du, ibilbidea egin aurretik, bitartean eta ondoren.
g) Taldearen materiala eta parte-hartzaile bakoitzaren ekipamendua aztertu du, eta egiaztatu du parte-hartzaile eta zaldiek hornidura nahikoa izango dutela ibilbidean.
h) Abereen ongizateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak aplikatu ditu egindako berrikuspen- eta zaintza-lanetan.

Eduki-multzoa: Ibilbiderako material, zaldi eta baliabideak berrikustea, prestatzea eta biltzea.

– Ibilbidea egiteko behar diren baliabide eta materialak eskuragarri eta erabilgarri daudela egiaztatzea.
– Ibilbiderako zaldien egoera eta gaitasuna egiaztatzea.
– Oinarrizko zaintzak ematea, etapa egin aurretik, bitartean eta ondoren.
– Ibilbideetan zehar, zaldiak egoki gobernatzea ibilgailuetara igotzeko, haietatik ateratzeko eta garraiatzeko operazioetan.
– Zaldiak etaparako eta ibilbiderako prestatzea.
– Mantentze-lanak erregistratzea.
– Taldearen materiala eta parte-hartzaile bakoitzaren ekipamendua berrikustea.
– Parte-hartzaileen eta zaldien hornidura egiaztatzea.
– Animaliaren ongizateari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzea.
– Zaldi-ibilbideetarako ekipamenduak eta materialak. Zaldi-ekipamenduko elementuen eginkizunak:

• Zaldien ibilbideetarako ekipamendua eta materiala.
• Zaldizkoaren edo amazonaren ibilbideetarako ekipamendua edo materiala.
• Taldearen ibilbideetarako ekipamendua, hornidura eta materiala.
• Desgaitasuna edo premia bereziren bat duten pertsonentzako ekipamendu edo material espezifikoak.

– Materialak eta ekipamenduak mantentzeko, garraiatzeko eta gordetzeko prozedurak:

• Ekipamendu eta material indibidual nahiz kolektiboak berrikusteko prozedura.
• Mantentze-lan operatiboa eta oinarrizkoa. Mantentze-lanak erregistratzea.
• Ibilbideetarako ekipamendua garbitzea, zaintzea, gordetzea eta babestea. Inbentarioak.

• Zaldiei ekipamendua eta materiala kentzea.
• Materialak eta ekipamenduak garraiatzea. Garraiobideak, eta babesa emateko materialak eta bitartekoak. Elikagaiak garraiatzea.

– Ibilbiderako zaldiak. Ibilbiderako zaldien egoera fisikoa, aldartea eta gaitasuna:

• Zaldien egoera aztertzeko prozedurak. Osasun-arazoak. Neke-zantzuak eta zauriak, besteak beste.
• Zaldia ibilbiderako prestatzeko jarraibideak. Ekipamendua eta materiala zaldiei eta parte-hartzaileei egokitzea. Segurtasun-irizpideak.
• Zaldiaren jokabidea ibilbidean.

– Zaldiak zaindu eta garraiatzea, ibilbidea egin aurretik, bitartean eta ondoren:

• Zaldien higienea eta lehen laguntzak aplikatzea.
• Ferren oinarrizko konponketak.
• Zaldiak ibilgailuetara igo eta haietatik jaisteko teknikak; langileak eta bitartekoak. Animaliak ibilgailuetan egoki kokatzea eta han aldi baterako geratzea. Zaldiek bidaietan dituzten oinarrizko beharrak. Ibilbideetan zauritutako edo gaixotutako animaliak garraiatzea. Araudia, betekizunak eta dokumentazioa.
• Zaldia ukuiluratzea edo askatzea.

– Zaldi-ibilbideetan pertsonak eta zaldiak elikatu eta hidratatzeko prozedurak:

• Ibilbiderako hornidura.
• Ibilbidean zaldiek zenbat elikagai solido eta likido beharko duten kalkulatzeko metodoak.
• Ibilbidean parte-hartzaileek zenbat elikagai solido eta likido beharko duten kalkulatzeko metodoak.
• Ibilbidean elikatzeko eta hidratatzeko jarraibideak.

– Zaldi-ibilbideak egiteko langileak, dokumentazioa eta baimenak.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Materiala zorroztasunez aztertu eta prestatzea.
– Natura-ingurunea babesteko interesa izatea.

IE: 2. Zaldi-ibilbideak egiaztatu eta egokitzen ditu, parte-hartzaileen ezaugarriak eta jarduera egiteko baldintzak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irizpideak zehaztu ditu, taldearen maila indibidualari eta kolektiboari buruzko informazioa biltzeko, eta neke-zantzuak edo arrisku-jokabide posibleak identifikatzeko.
b) Tokian bertan aztertu ditu zein diren zailtasun-puntuak eta nola neurtu indarra eta atseden hartu beharra, aintzat hartuta zaldi-ibilbidearen distantzia eta desnibelak.
c) Bide alternatiboak prestatu ditu, zaldi-ibilbidean zailak izan daitezkeen tarteetarako.
d) Orientatzeko erreferente izan daitezkeen natura-zantzuak ezagutu ditu, bai eta zaldi-ibilbidean intereseko diren elementu geologikoak eta ekosistemak ere.
e) Tresnak eta mapak erabili ditu era guztietako ingurumen-baldintzetan orientatzeko.
f) Gaua igarotzeko eta ebakuaziorako tokiak zehaztu ditu.
g) Arrisku-egoeretarako segurtasun-protokoloa egiaztatu du.

Eduki-multzoa: Zaldi-ibilbideak egiaztatzea eta egokitzea.

– Jarduera hasi aurreko informazioa biltzea.
– Tokian bertan aztertzea zaldi-ibilbideko zailtasun-puntuak, atseden-guneak eta etapak.

– Tokian bertan egiaztatzea kartografian ageri diren ezaugarriak.
– Bide alternatiboak prestatzea zaldi-ibilbidean zailak izan daitezkeen tarteetarako.
– Zaldi-ibilbideko elementu geologikoak eta ekosistemak aztertzea.
– Natura-zantzuak, tresnak eta mapak erabiltzea era guztietako ingurumen-baldintzetan orientatzeko.
– Jarduera ludikoak eta ingurumenari buruzko sentsibilizatze-jarduerak egiteko espazioen kokapena zehaztea.
– Gaua igarotzeko eta ebakuaziorako tokiak zehaztea.
– Arrisku-egoeretarako segurtasun-protokoloa egiaztatzea.
– Lurrari, ibilbideari eta parte-hartzaileei buruzko informazioa biltzeko irizpideak.
– Kartografiaren arabera, nolako ezaugarriak dituen ibilbideak.
– Paisaia motak eta lan-karga. Nolako baldintzak dituzten espazioek jarduera ludikoak egiteko eta inguruaren natura- eta kultura-balioei buruz eta baliabideei buruz sentsibilizatzeko.
– Lurrazal motak eta zailtasun-puntuak. Landa-oharrak:

• Bide-zoruaren egoera, zaldiaren ibilaldian eragina duena.
• Ibilbideko tarte zailetarako alternatibak: zuhaiztiak, aldapa pikoak, ur-azalerak eta lurrazal labainkor edo malkartsuak, besteak beste.

– Ibilbidearen ezaugarriak:

• Iraupena. Indarra eta hornidura-premiak neurtzeko jarraibideak.
• Tokiak eta espazioak. Ibilbideko bilguneak eta atseden-guneak. Taldea zaldiz ebakuatzeko tokiak.

– Programatutako jarduera parte-hartzaile motari egokitzeko jarraibideak:

• Jarduera egin aurreko proba teknikoak.
• Zaldia funtsean gobernatzeko probak.
• Taldeko kideen itxaropenak eta premiak.
• Parte-hartzaileen gaitasun, premia eta motibazioen araberako barianteak.
• Jarduerak desgaitasuna duten parte-hartzaileei egokitzeko jarraibideak.

– Neke-zantzuak eta arrisku-jokabideak.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Pertsona guztientzat egokia izango den ibilbidea prestatzen zehaztasunez aritzea.
– Natura-ingurunea babesteko interesa izatea.

IE: 3. Zaldi-ibilbideetan taldeak gidatzen ditu, aurreratze-teknikak ezarritako programarekin eta ingurunearen ezaugarriekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Parte-hartzaileei informazioa eman die ibilbideari, zaldien ezaugarriei eta segurtasuna bermatzeko ekipamenduaren eta materialaren erabilerari buruz.
b) Zaldi-ibilbide bat egiteko zaldiketa-teknikak deskribatu eta erakutsi ditu, eta teknika horiek gauzatzean zuzenketak egin dizkie parte-hartzaileei.
c) Taldea eta parte-hartzaileen zailtasunak kontrolatzeko moduko antolamendua eta taldearen barruko tokia hartu du, jarduera egin aurretik eta bitartean.
d) Seinale-kodeak eta komunikazio-aparatuak erabili ditu, ibilbidean informazioa emateko taldeari eta, hala behar denean, kanpoko eragileei.
e) Ibilbidean aurrera egiteko zailtasunak dituzten parte-hartzaileei laguntzeko maniobrak egin ditu.
f) Jardun-protokoloak aplikatu ditu izandako gertakarietan.

g) Zaldientzako espazioa prestatu du, bai eta geldialdiak egiteko eta gauak igarotzeko baldintzak ere.
h) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu egindako lanetan.

Eduki-multzoa: Taldea zaldi-ibilbideetan gidatzea.

– Jarduera egiteko behar duten informazioa ematea parte-hartzaileei.
– Zaldi-ibilbidean erabiliko diren zaldiketa-teknikak erakustea.
– Zaldiketa-teknikei buruzko zuzenketak egitea parte-hartzaileei.
– Taldea eta haren zailtasunak kontrolatzeko moduko antolamendua eta taldearen barruko tokia hartzea.
– Seinale-kodeak eta komunikazio-aparatuak erabiltzea ibilbidean.
– Zailtasunak dituzten parte-hartzaileei laguntzeko maniobrak egitea.
– Jardun-protokoloak aplikatzea izandako gertakarietan.
– Zaldientzako espazioa prestatzea, bai eta geldialdiak egiteko eta gauak igarotzeko baldintzak ere.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa betetzea egindako lanetan.
– Indarreko legeria. Espazio babestuak.
– Parte-hartzaileei informazioa ematea. Formulak eta ohiko egoerak. Hizkera mota:

• Zaldi-ibilbideari buruzko informazioa.
• Martxa-zaldiari buruzko informazioa. Erabiltzen diren zaldien ezaugarriak eta ohiturak.
• Jarduerari eta segurtasunari buruzko arauak: zaldi-ibilbiderako ekipamendua eta materiala, hornidura, eta ingurumena errespetatzeko jokabideak.
• Zaldiketa-teknika gauzatzean egin ohi diren akatsak.

– Zaldi-ibilbideetarako zaldiketa-teknikei eta zaldiak gobernatzeko teknikei buruzko informazioa:

• Buru-uhala jartzea, kabestrua gidatzea eta zaldia ibilbidean lotzea.
• Ibilbidean, zaldira igotzea eta oina lurrean jartzea.
• Ibilbidean, zaldian ibiltzeko jarrera. Ibilbidean, zaldiketan laguntzea.
• Ibilbidean parte-hartzaileei laguntzeko maniobrak. Nolabaiteko zailtasuna duten tarteetan jarduteko protokoloak. Tarte zailetan banaka laguntzeko protokoloak.

– Taldea eta segurtasuna antolatzeko erak:

• Egoera larriak eta halakoetan jarduteko erak: zaldia deskontrolatzea, zalditik erortzea eta beste.
• Zaldi-ibilbidean taldeek eta taldekideek izan ohi dituzten erreakzioak.
• Taldean toki egokia hartzea eta taldea kontrolatzea. Taldearen materiala eta parte-hartzaile bakoitzaren ekipamendua berrikusteko protokoloak.
• Ibilbidean zailtasunak konpontzeko protokoloa. Larrialdi-egoerarako eta lehen laguntzak emateko protokoloa.

– Talde bat zaldiz gidatzeko seinale-kodeak. Ibilbidean informazioa emateko teknikak. Barne- eta kanpo-komunikazioko aparatuak.
– Geldialdietan, zaldientzako espazioak:

• Gaua igarotzeko baldintzak.
• Etapen artean zaldia toki seguruan uzteko teknikak: ukuiluratzea, itxitura elektrikoa eta lotzea.

– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Taldearen itxaropenak betetzeko konpromisoa izatea.

– Natura-ingurunea babesteko interesa izatea.
– Erabakiak arduraz hartzea.

IE: 4. Zaldiketako jolas-jarduerak antolatzen laguntzen du, ezarritako prozedura interpretatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren jolas-jarduera moten ezaugarriak zehaztu ditu.
b) Zaldiketako jolas-jarduerak egiteko espazio, instalazio eta ekipamenduak hautatu ditu.
c) Animaliak parte-hartzaileen profilen arabera esleitzeko irizpideak ezarri ditu.
d) Aldez aurretik, animalien portaera, ekipamenduak, materialak, instalazioak eta espazioak egiaztatu ditu.
e) Jardueretan erabiliko diren zaldiketa-teknikak deskribatu eta erakutsi ditu.
f) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Zaldiketako jolas-jarduerak antolatzen laguntzea.

– Zaldiketako jolas-jarduerak egiteko espazio, instalazio eta ekipamenduak hautatzea.
– Animaliak parte-hartzaileen profilen arabera esleitzea.
– Aldez aurretik, animalien portaera, ekipamenduak, materialak, instalazioak eta espazioak egiaztatzea.
– Jarduerak gauzatzea parte-hartzaileekin benetako jarduerak gauzatu aurretik.
– Aldez aurreko jardueran hautemandako arazoak konpontzea.
– Jardueretan erabiliko diren zaldiketa-teknikak deskribatu eta erakustea.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatzea.
– Zaldiketa-jarduerak. Motak. Ezaugarriak.
– Zaldiketako jolas-jarduerak. Motak eta ezaugarriak. Enpresaren aukerak eta merkatu-eskaintzak aztertzea.
– Zaldiketako jolas-jardueretarako espazio eta instalazioak. Zaldiketako jolas-jardueretarako ekipamenduak.
– Animaliak esleitzeko irizpideak:

• Zaldiketako jolas-jardueretarako zaldien ezaugarriak.
• Hipoterapia-jardueretarako zaldien ezaugarriak.
• Zaldizko-zaldia bikote konpentsatua.

– Zaldiketa-teknika espezifikoak:

• Parte-hartzaileekin lan teknikoa egitea.
• Zaldiketa-teknikak transmititzea.
• Teknikak parte-hartzaileen mailara egokitzea.
• Teknikak egokitzea desgaitasuna edo premia bereziak dituzten pertsonei.

– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Lanarekin lotutako betebeharrekiko konpromisoa izatea.
– Konfidentzialtasunez jardutea datuen tratamenduan.

IE: 5. Zaldiketako jolas-jarduerak egitea, ezarritako protokoloari jarraituz, eta parte-hartzaileen ezaugarriak jardun-protokoloekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zaldiketako jolas-jarduerak egiteko espazio, animalia eta materialak prestatu ditu.

b) Parte-hartzaileei jakinarazi die zein diren zaldiketako jolas-jarduereetan bete beharreko arauak.
c) Jolas-zaldiketan parte hartze dutenak trebatu ditu.
d) Zaldiz egindako jolas eta ginkanetan lagundu du, ezarritako protokoloari jarraituz.
e) Haurrentzako zaldi-ibilaldietan, poniak kabestrutik helduta eta oinez gidatu ditu.
f) Ibilaldietan zaldiak gidatu ditu, eta zalgurdietan ibiltzen direnei lagundu die zaldiak lotzen eta ibilaldiak egiten.
g) Desgaitasuna duten pertsonentzako zaldiketako aisia-jarduereetan lagundu du, ezarritako protokoloari jarraituz.
h) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Zaldiketako jolas-jarduerak egitea.

– Zaldiketako jolas-jarduerak egiteko espazioak, animaliak eta materialak prestatzea.
– Parte-hartzaileei jakinaraztea zein diren zaldiketako jolas-jarduereetan bete beharreko arauak.
– Zaldiz egindako jolas eta ginkanetan laguntzea.
– Poniei laguntzea, haurrentzako zaldi-ibilaldietan.
– Zalgurdietan zaldiak lotzen eta ibilaldiak egiten laguntzea.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatzea.
– Zaldiketako jolas-jarduerek zer baliabide hartzen dituzten barnean:

• Espazioak prestatzea.
• Animaliak hautatu eta prestatzeko irizpideak, kontuan izanda jarduera eta parte-hartzaileak.
• Jarduueretarako materialak berrikusteko protokoloak.
• Ekipamendua eta materiala ezartzeko jarraibideak.

– Parte-hartzaileei informazioa ematea. Edukiak eta hizkera mota:

• Enpresari eta jarduerei buruzko araudia. Segurtasun-arauak.
• Aisia-zaldiketaren erabiltzaileentzako jarraibideak. Teknika barneratzeko ariketak. Banakako eta taldekako lana.
• Desgaitasuna duten pertsonei prozesua errazteko egokitzapenak.
• Jakingarriak (kultura- eta natura-ondarea).

– Jardueretan esku hartzeko protokoloak:

• Zaldiketa-jarduerak egokitzeko irizpideak. Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduera motak: zirkuitu psikopedagogikoak, zaldiketa-jolas egokituak eta beste.
• Zaldiz egindako jolasak eta ginkanak. Jardueraren protokoloa. Jardueren egitura. Banaka edo taldeka. Materialaren erabilera. Zaldiz egindako jolas herrikoiak. Oina lurrean jarrita edo zaldi gainean egindako probak. Batera egindako jarduerak, zirkuitukoak, taldekakoak eta beste. Abiadura- eta zehaztasun-jolasak.
• Jarduera osagarriak (arku-tiroa, etab.), ibilbideko atsedenaldietan eta ostatu-gauetan egitekoak.
• Poni-paseoak. Kabestrutik edo eskutik helduta gidatzea. Alboko segurtasun-laguntzailea. Taldekako paseoa. Haurrentzako animazioa. Haurrentzako estimulazioa. Abestiak, keinuak, ariketak eta beste. Zaldi gainean egindako paseoaren eta ibilbidearen arteko aldeak.
• Zaldiz egindako paseoa. Gidari pertsonalizatua edo taldekoa. Taldearen mailara egokitzeko irizpideak. Taldea banatzeko eta antolatzeko moduak. Taldea kontrolatzea.
• Zalgurdian egindako paseoa. Lotzeko eta kokatzeko ekipamenduak. Lotura motak. Errepidean eta natura-ingurunean gidatzeko teknikak.

– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Jardueretan ordena eta metodoa zaintzea.
– Une bakoitzerako jarrera egokia izatearen garrantzia baloratzea.
– Zereginak zorroztasunez egitea.

IE: 6. Zaldiketako jolas-jarduerak eta zaldizkoen taldeak gidatzeko jarduerak balioesten ditu, bildutako datuak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bere jardunari eta jardueran taldeak dituen erreakzioei buruzko datuak bildu ditu.
b) Jarduera aurreikusitako denborara egokitzeko gorabeherak erregistratu ditu.
c) Animaliek inplikatuta dauden zaldiketa-jardueran dituzten jokabide desegokiak erregistratu ditu.
d) Jardueren garapenaren segurtasunari eragiten dioten gertakariak bildu ditu.
e) Zaldiketa-jardueran erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren baloratu du.
f) Jardueraren balorazio-fitxa bete du, programaren arabera.
g) Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatu ditu, eta egindako zaldiketa-jarduerari buruzko txostena egin du.
h) Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Zaldiketako jolas-jarduerak eta zaldizkoen taldeak gidatzeko jarduerak baloratzen ditu.

– Jarduerari buruzko datuak eta gertakariak erregistratzea.
– Animaliek inplikatuta dauden zaldiketa-jardueran dituzten jokabide desegokiak erregistratzea.
– Jardueren garapenaren segurtasunari eragiten dioten gertakariak biltzea.
– Erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren baloratzea.
– Jardueraren balorazio-fitxa betetzea, programaren arabera.
– Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatzea.
– Egindako zaldiketa-jarduerari buruzko txostena egitea.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa aplikatzea.
– Jardueraren balorazioa kontrolatzeko fitxak. Motak. Jarduera garatzean datuak biltzeko prozedurak. Informazioa biltzeko teknikak. Besteak beste, jarduera, taldea eta teknikaria aztertzea. Programa baloratzeko fitxak. Ebaluazio- eta balorazio-dokumentuak:

• Taldearen portaerei buruzko erregistroak.
• Teknikarien edo gidarien jardunari buruzko erregistroak.
• Gorabeherak erregistratzea eta aurreikusitako denborara egokitzea. Jardueren garapenaren segurtasunari eragiten dioten gertakariak. Jardueraren segurtasun-maila kalkulatzea.
• Zaldiari buruzko datuak erregistratzea. Animaliek jardueran izandako portaera desegokiak. Zaldiaren abiadura oinez, trostan eta lauoinka. Animalien eta parte-hartzaileen arteko egokitasuna.
• Zaldiketa-jardueran erabilitako ekipamendu eta materialak egokitzeko erregistroak.
• Animalien eta parte-hartzaileen arteko egokitasuna baloratzeko erregistroak.

– Jarduerari buruzko txostenak. Proposatutako neurri zuzentzaileak.
– Ingurumen-araudia, abereen ongizateari buruzkoa eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
– Ebaluazioa eta autoebaluazioa balioestea, hobekuntza- eta garapen-estrategia gisa.
– Ebaluazio-teknikenganako interesa izatea.

3. lanbide-modulua: Taldeentzako arreta.

Kodea: 1328.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 66 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Talde-dinamikaren ezaugarriak zehazten ditu, haren oinarri diren alderdi psikologiko eta soziologikoekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Pertsonen garapen ebolutiboaren oinarrizko prozesuak azaldu ditu.
b) Jokabidearen eta jarreren eratze sozialean eragiten duten prozesuen ezaugarriak zehaztu ditu.
c) Deskribatu du zer ezaugarri dituzten desgaitasunek eta zer ondorio dituzten taldekako jolas-jardueren garapenean.
d) Kultura-aniztasuna eta haren eragina jolas-testuinguruetan baloratu du.
e) Ezaugarri bereizgarri nagusiak generoaren ikuspegitik deskribatu ditu, bai eta zer eragin duten jolas-testuinguruetan ere.

Eduki-multzoa: Talde-dinamikaren ezaugarriak.

– Pertsonen garapen ebolutiboaren oinarrizko prozesuak aztertzea.
– Jokabidearen eta jarreren eratze sozialean eragiten duten prozesuak aztertzea.
– Desgaitasunek zer ondorio dituzten taldekako jolas-jardueren garapenean aztertzea.
– Taldearen ezaugarri bereizgarriak generoaren ikuspegitik aztertzea, bai eta zer eragin duten jolas-testuinguruetan ere.
– Psikologia ebolutiboaren oinarrizko ezaugarriak.
– Pertsonen garapen ebolutiboaren oinarrizko prozesuak.
– Garapen pertsonala: oinarrizko alderdiak. Nortasuna, motibazioa, jarrerak, emozioa eta sentsazioa. Autokontzeptua eta autoestimua.
– Jokabidearen eta jarreren eratze sozialean eragiten duten prozesuak.
– Desgaitasuna. Etiologia, sintomatologia, sailkapena, indikazioak, prekauzioak eta kontraindikazioak. Pertsonen ezaugarri psikologikoak, afektiboak eta sozialak, desgaitasun motaren arabera.
– Desgaitasunen ezaugarriak eta zer ondorio dituzten taldekako jolas-jardueren garapenean.
– Adineko pertsonak. Ezaugarriak.
– Kultura eta sozializazioa. Kulturarteko hezkuntza. Kultura-aniztasuna eta haren ondorioak hezkuntza-testuinguruetan.
– Askatasuna, berdintasuna, bakea, herritartasuna eta lankidetza oinarri dituen hezkuntza. Hezkidetza. Garapen jasangarriko helburuak. Jasangarritasuna.
– Genero-ikuspegia eta haren eragina jolas-testuinguruetan.
– Kultura-aniztasuna eta haren eragina jolas-testuinguruetan baloratzea.
– Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea.
– Garapen jasangarriko helburuen eragina baloratzea.

IE: 2. Talde-dinamizazioko estrategiak eta teknikak garatzen ditu esku-hartze testuinguruaren arabera, errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta, eta tekniken erabilera taldearen faseetara egokituz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Taldearen egitura osatzen duten elementuak eta haien arteko erlazioak sailkatu ditu.
b) Talde baten faseak ikertu ditu.
c) Taldekideek izan ditzaketen rol moten ezaugarriak zehaztu ditu.
d) Zenbait talde-teknika zehaztu ditu, taldea dagoen faseetako bakoitzerako.
e) Taldeko kide guztiekin elkarreraginean jarduteko, talde-dinamikak erabiltzeak duen garrantzia baloratu du.
f) Talde-dinamikako teknikak garatu ditu, kontuan izanda zer espazio eta baliabide behar diren horretarako.
g) Kolektibo espezifikoentzako talde-dinamikako teknikak garatu ditu, horretarako behar diren egokitzapen eta laguntza teknikoak baliatuz.
h) Teknikariaren zeregina justifikatu du, hura baita talde-prozesuak hasi eta dinamizatzen dituena.

Eduki-multzoa: Talde-dinamizazioko teknikak eta estrategiak garatzea.

– Taldearen egitura osatzen duten elementuak eta haien arteko erlazioak sailkatzea.
– Talde-teknikak zehaztea, kontuan izanda talde baten garapen-faseak.
– Talde-teknikak aplikatzea, taldea dagoen faseetako bakoitzerako.
Euskararen normalizazioa aplikatzea.
– Talde-dinamikak erabiltzea, taldekideekin elkarreraginean jarduteko.
– Taldea. Talde-psikologia. Banakoa eta taldea. Kidego-taldea eta erreferentzia-taldea.
– Talde-prozesuak eta -egitura. Taldearen egitura osatzen duten elementuak eta haien arteko erlazioak. Taldearen elementu estatikoak eta dinamikoak.
– Taldeari eragiten dioten fenomenoak. Gizarte-kohesioa. Talde-kohesioari laguntzen dioten faktoreak.
– Talde baten garapen-faseak.
– Lidergoa. Motak. Taldekideen rol motak.
– Talde-dinamikako teknikak, esku hartzeko metodologia gisa. Beharrezko espazioak eta baliabideak.
– Kolektibo espezifikoentzako talde-dinamikako teknikak (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak). Beharrezko egokitzapen eta laguntza teknikoak. Egokitzapenak. Pertsonen arteko harremanak hobetzeko jarraibideak. Laguntza teknikoak.
– Profesionalen zeregina, talde-prozesuen abiarazle eta dinamizatzaile gisa.
– Taldeko kide guztiekin elkarreraginean jarduteko orduan talde-dinamikak erabiltzearen garrantzia baloratzea.
– Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea.
– Taldearen une bakoitzerako jarrera egokia izatea zer garrantzitsua den balioestea.

IE: 3. Komunikazio-teknikak identifikatzen ditu, prozesuan inplikatuta dauden pertsonen eta taldeen ezaugarriak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Talde-komunikazioko prozesuaren elementuak aztertu ditu.
b) Testuinguruaren arabera komunikazio-prozesua eraginkorrago egiten duten komunikazio-estiloak definitu ditu.
c) Talde-komunikazioko oztopoak gainditzeko estrategiak hautatu ditu.
d) Komunikazio-teknikak testuinguruetara eta taldeetara egokitu ditu.
e) Aniztasun kulturalari eta funtzionalari erreparatuta, egoera jakin bakoitzerako –batez ere

desgaitasun-egoeretarako– egokiak diren komunikazio-teknikak zehaztu ditu.

f) Komunikazio-prozesua errazteko beharrezko diren komunikazio-trebetasunak deskribatu ditu.

g) Gizarte-trebetasunek komunikazio-prozesuan duten garrantzia balioetsi du.

Eduki-multzoa: Komunikazio-teknikak identifikatzea.

– Talde-komunikazioko prozesuaren elementuak aztertzea.
– Komunikazio-estilo eraginkorrak erabiltzea.
– Talde-komunikazioko oztopoak gainditzeko estrategiak hautatzea.
– Komunikazio-teknika egokiak erabiltzea.
– Komunikazio-teknikak egokitzea.
– Komunikazio-prozesua. Komunikazio-prozesuko elementuak. Komunikazio motak.
– Desgaitasuna duten pertsonekin edo adinekoekin komunikatzea errazten duten kontsigna eta azalpen motak.
– Komunikazio-prozesua eraginkorrago egiten duten komunikazio-estiloak. Testuinguruak. Asertibitatea.
– Komunikazio-prozesua errazteko behar diren komunikazio-trebetasunak.
– Komunikazioko oinarrizko gizarte-trebetasunak: Justifikazioa.
– Komunikazio-zailtasunak eta -oztopoak.
– Komunikazio-teknikak. Talde-komunikazioaren oztopoak gainditzeko estrategiak. Aniztasun kulturalari eta funtzionalari egokitutako estrategiak, batez ere desgaitasun-egoeretan.
– Komunikazio-teknikak egokitzea, desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoen parte-hartzea errazteko. Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea mezuak transmititzean. Lengoaia ikonikoa eta ikus-entzunezko lengoaia erabiltzea mezuak transmititzean.
– Hainbat testuingurutarako komunikazioa eta komunikazio-elkarreragina.
– Mezuak transmititzeko teknikak.
– Komunikazioa erraztu edo oztopatzen duten jarrera pertsonalak.
– Hizkuntza-normalizazioa.
– Entzute aktiboa. Entzutean egindako akatsak. Enpatia. Pentsatzen laguntzea.
– Komunikazioa solaskideari, testuinguru linguistikoari eta desgaitasun posible bati egokitzearen garrantzia baloratzea.
– Hainbat testuingurutan komunikazioak eta komunikazio-elkarreraginak zer-nolako garrantzia duten balioztatzea.
– Taldekideen artean errespetuz jokatzea, talde eta jarduera kolektibo batean elkarreraginean aritzeko printzipiotzat.

IE: 4. Talde-gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko estrategiak ezartzen ditu, esku-hartzearen testuinguruaren araberako teknikak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Taldeen funtzionamenduan, arazo- eta gatazka-sorburu nagusiak identifikatu ditu.

b) Taldearen barruan arazoak konpontzeko gizarte-trebetasunak garatu ditu.

c) Taldearen barruan talde-gatazkak kudeatzeko teknikak garatu ditu.

d) Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak deskribatu ditu.

e) Gatazken kudeaketan eta arazoen konponbidean errespetuak eta tolerantziak zer-nolako garrantzia duten baloratu du.

Eduki-multzoa: Gatazkak kudeatzea eta arazoak konpontzea.

– Taldeen funtzionamenduko arazo- eta gatazka-sorburuak aztertzea.
– Taldearen barruan arazoak konpontzeko gizarte-trebetasunak garatzea.
– Taldearen barruan gatazkak kudeatzeko teknikak garatzea.
– Gatazka pertsonen arteko harremanetan. Jokabide eta harreman motak. Lehia. Kohesioa.
– Taldeen funtzionamenduko arazoen eta gatazken sorburua.

– Taldeen jarrera gatazken aurrean.
– Gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko teknikak:
– Erabakiak hartzeko prozesua. Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak. Erabakiak taldeka hartzeko metodorik ohikoenak.
– Gatazken kudeaketan eta arazoen konponbidean errespetuak eta tolerantziak zer-nolako garrantzia duten baloratzea.
– Taldekideen lana baloratzea.

IE: 5. Taldearen prozesuak ebaluatzen ditu, eta hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizarte-ikerketako teknikak aplikatu ditu.
b) Taldeak aztertzeko estrategiak eta tresnak zehaztu ditu.
c) Talde-prozesuen ebaluazioa definitu du.
d) Ebaluazio-adierazleak deskribatu ditu.
e) Erregistroak ezarritako euskarrietan bete ditu.
f) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.
g) Teknikariaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin du.

Eduki-multzoa: Talde-prozesuak ebaluatzea.

– Taldeekiko lanean gizarte-ikerketako teknikak aplikatzea.
– Taldeak aztertzeko estrategiak eta tresnak analizatzea.
– Talde-prozesuen ebaluazioa.
– Ebaluazio-adierazleak hautatzea.
– Erregistroak ezarritako euskarrietan betetzea.
– Hobetu beharra duten egoerak zehaztea.
– Datuak interpretatzea.
– Prozesuaren autoebaluazioa egitea, hasieran, eta egoera pertsonal eta sozialaren autoebaluazioa egitea, amaieran.
– Taldeekiko lanean gizarte-ikerketako teknikak aplikatzea.
– Taldeak aztertzeko estrategiak eta tresnak.
– Taldearen egitura eta talde-prozesuak.
– Ebaluazio-adierazleak.
– Datuak biltzeko teknikak.
– Erregistroak prestatu eta betetzeko teknikak.
– Datuak interpretatzea. Hobekuntzak.
– Autoebaluazioa, konpetentzia soziala hobetzeko estrategia gisa.
– Autoebaluazioa baloratzea, konpetentzia soziala hobetzeko estrategia gisa.
– Konfidentzialtasunez jardutea datuen tratamenduan.

4. lanbide-modulua: Ibilbideak antolatzea.

Kodea: 1329.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 99 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Natura-ingurunean gidatutako jardueren esku-hartze testuingurua balioztatzen du, ibilbideak diseinatzeko adierazgarria den informazioa aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilbidea prestatzeko informazioa bilatu, prozesatu, antolatu eta artxibatzeko prozedurak ezarri ditu.
b) Ibilbidea diseinatu behar den ingurunearen ezaugarri geografiko, geologiko, sozioekonomiko eta biologikoak aztertu ditu.
c) Natura-ingurunean ibilbideak planifikatzeko aplikatu beharreko ingurumen-araudia aztertu du.
d) Ibilbideen zailtasuna eta arriskugarritasuna baldintzatzen duten faktoreak aztertu ditu.
e) Ingurunearen kultura- eta paisaia-balioak aintzat hartu ditu, jardueran interesa duten elementuak diren aldetik.
f) Natura-inguruneko jolas-jardueretan parte hartzen duten taldeen profilak deskribatu ditu.

Eduki-multzoa: Natura-ingurunean gidatutako jardueren esku-hartze testuingurua baloratzea.

– Ibilbidea prestatzeko informazioa bilatu, prozesatu, antolatu eta artxibatzeko prozedurak ezartzea.
– Ibilbidea diseinatu behar den ingurunearen ezaugarri geografiko, geologiko, sozioekonomiko eta biologikoak aztertzea.
– Ibilbideen zailtasuna eta arriskugarritasuna baldintzatzen duten faktoreak aztertzea.
– Natura-ingurunean ibilbideak planifikatzeko aplikatu beharreko ingurumen-araudia aztertzea.
– Natura-inguruneko jolas-jardueretan parte hartzen duten taldeen profilak identifikatzea.
– Ingurunearen kultura- eta paisaia-balioak aintzat hartzea, jardueran interesa duten elementuak diren aldetik.
– Natura-inguruneko ibilbideetan jarduerak egitea. Motak eta ezaugarriak.
– Informazio-iturriak. Datu kartografikoak, lege-arlokoak eta ingurumenekoak eskuratzeko iturri ofizialak.
– Informazioa aztertu, tratatu, prozesatu eta artxibatzeko prozedurak eta teknikak.
– Natura-inguruneko ibilbideetan interesguneak hautatzeko irizpideak.
– Arriskutsuak izan daitezkeen eremuen kokalekua zehazteko irizpideak. Besteak beste, luiziak, elur-jausiak eta ur-goraldiak gerta daitezkeela dioten adierazleak.
– Natura-ingurunean gidatutako jardueretako parte-hartzaileak. Ezaugarriak. Profilen interesak eta itxaropenak. Desgaitasuna edo premia bereziak dituzten pertsonen kasuan aintzat hartu beharreko alderdiak.
– Informazioa biltzeko eta haren fidagarritasuna aztertzeko zorroztasuna.
– Natura-ingurunea babesteko interesa izatea.
– Ingurunearen kultura- eta paisaia-balioak aintzat hartzea, jardueran interesa duten elementuak diren aldetik.

IE: 2. Ibilbideak diseinatzeko elementu esanguratsuak hautatzen ditu, errepresentazio kartografikoak interpretatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mapa kartografiko bateko elementuak eta sinboloak interpretatu ditu.
b) Ibilbideen ezaugarriak azaldu ditu, errepresentazio kartografikotik abiatuta.
c) Desnibelak eta luzera-distantziak kalkulatu ditu, eskala desberdinetako mapak abiapuntu hartuta.
d) Ibilbidean zailtasun eta arrisku handiena duten puntuak edo tarteak adierazten dituzten kode grafikoak zehaztu ditu.
e) Norabideak eta azimuta kalkulatu ditu.
f) Ebakuazio-eremuak aurkitu ditu, inguruneko talde-ibilbideetan izan daitezkeen gorabeheren aurrean.

Eduki-multzoa: Ibilbideak diseinatzeko elementu esanguratsuak hautatzea.

– Mapa kartografiko bateko elementuak eta sinboloak interpretatzea.
– Ibilbidean zailtasun eta arrisku handiena duten puntuak edo tarteak adierazten dituzten kode grafikoak erabiltzea.
– Ibilbideen ezaugarriak azaltzea, errepresentazio kartografikotik abiatuta.
– Desnibelak eta luzera-distantziak kalkulatzea, eskala desberdinetako mapak abiapuntu hartuta.
– Norabideak eta azimuta kalkulatzea.
– Komunikabide nagusiekin konektatzeko aukerak aztertzea.
– Ebakuazio-eremuak aurkitzea, inguruneko talde-ibilbideetan izan daitezkeen gorabeheren aurrean.
– Natura-inguruneko ibilbideak baldintzatzen dituzten faktoreak.
– Mapa topografikoak.
– Eremuen ezaugarriak, errepresentazio topografikoa aintzat hartuta.
– Mapa eta orientazioa:

• Orientaziorako oinarrizko tresnak.
• Bidezidorrak eta ibilbideak arautzea eta seinaleztatzea.

– Profil topografikoak. Interpretazioa eta diseinua:

• Distantziak kalkulatzea.
• Aldapak kalkulatzea.

– Mapak zehaztasunez irakurtzea.
– Kalkuluak zorroztasunez egitea eta horretarako metodoa.

IE: 3. Natura-inguruneko ibilbideak diseinatzen ditu, eremua, eskuragarri dauden baliabideak eta taldearen profila eskatutako zerbitzuarekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilbidea hasi eta amaitzeko puntuak zehaztu ditu.
b) Ibilbideko distantzia, desnibelak eta zailtasunak ezarri ditu parte-hartzaileen profilei egokituta.
c) Ibilaldiko, atsedenaldietako eta jarduera osagarrietako denbora finkatu du.
d) Aurreikusitako ibilbideko puntu korapilatsuetarako bide alternatiboak planteatu ditu.
e) Jolas-jarduerak aurreikusi ditu, ibilbidearen intentsitatearen eta parte-hartzaileen profilaren arabera.
f) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, ibilbideak diseinatzean.

Eduki-multzoa: Natura-inguruneko ibilbideak diseinatzea.

– Ibilbidea hasi eta amaitzeko puntuak zehaztea.
– Ibilbideko distantzia, desnibelak eta zailtasunak ezartzea.
– Ibilaldiko, atsedenaldietako eta jarduera osagarrietako denbora planifikatzea.
– Aurreikusitako ibilbideko puntu korapilatsuetarako bide alternatiboak bilatzea.
– Jarduerak iraun bitartean jolas-jarduerak aurreikustea.
– Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, ibilbideak diseinatzean.
– Ibilbideko elementuak:

• Ibilbidearen hasiera eta amaiera. Komunikabideekiko loturak.
• Ibilbidearen nondik norakoa.
• Distantziak, denborak eta desnibelak.
• Zailtasun-puntuak.
• Ebakuazio-puntuak.
• Paisaia- eta ingurumen-aldetik interesa duten puntuak.
• Berriz elkartzeko, atseden hartzeko eta jarduera osagarriak egiteko puntuak.

– Taldearen profilaren arabera denborak kalkulatzeko jarraibideak.
– Parte-hartzaileen ezaugarriak eta ibilbidearen garapena:

• Tarte zailak. Bide alternatiboak.
• Hornidura-premiak.
• Desgaitasun motei lotutako zailtasunak.

– Ibilbideetako jarduera osagarriak:

• Jarduera ludikoak eta sentsibilizatzekoak, eremuko natura- eta kultura-balioei eta baliabideei buruzkoak.

– Kanpoko eragileek laguntza eta sostengua emateko ekintzak eta baliabideak.
– Ibilbideak diseinatzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologia motak.

IE: 4. Ibilbidea egiteko behar diren baliabideak zehazten ditu, jarduera mota eta parte-hartzaileen interesak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jardueraren eremura sartzeko eta han zirkulatzeko eta gaua igarotzeko baimenak eskuratzeko prozedurak ezarri ditu.
b) Jardueraren logistika zehaztu du, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea kontuan izanda.
c) Ibilbidea eta jolas-jarduerak egiteko behar diren espazio eta baliabideak aurreikusi ditu.
d) Ibilbide-liburu bat prestatu du, barnean hartuta jardueraren programa, profil topografikoa, orientaziorako erreferentzia-puntuak eta ibilbideko puntu esanguratsuak.
e) Taldearen hidratazio- eta elikadura-premiak betetzeko hornidurak kalkulatu ditu.

Eduki-multzoa: Natura-ingurunean jarduerak gidatzeko behar diren baliabideak.

– Jardueraren eremura sartzeko eta han zirkulatzeko eta gaua igarotzeko baimenak izapidetzea.
– Jardueraren logistika zehaztea.
– Ibilbidearen antolaketa bat etortzea desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzearekin.
– Ibilbidea eta jolas-jarduerak egiteko behar diren espazio eta baliabideak aurreikustea.
– Ibilbide-liburu bat prestatzea, barnean hartuta jardueraren programa, profil topografikoa, orientaziorako erreferentzia-puntuak eta ibilbideko puntu esanguratsuak.

– Fitxak eta landa-koadernoa hautatzea.
– Taldekide bakoitzak behar duen janzkera, oinetakoak eta materiala zehaztea.
– Taldearen hidratazio- eta elikadura-premiak betetzeko hornidurak kalkulatzea.
– Naturaguneei buruzko araudia:

• Garraiatzeko mugak. Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa.

– Ingurumena babesteko figurak.
– Eremura sartzeko eta han zirkulatu eta gaua igarotzeko baimena eskuratzeko izapideak. Indarreko araudia, eta baimena ematen duen organismoa.
– Natura-ingurunean jarduerak gidatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak.

• Jarduera osagarrietarako baliabideak. Egokitzapenak egitea desgaitasuna duten pertsonek parte har dezaten.
• Ingurumena babesteko materialak eta bitartekoak.

– Parte-hartzaileei egokitutako informazioa. Ibilbide-liburua eta landa-fitxak eta -koadernoak.
– Taldea hidratatzeko eta elikatzeko hornidura. Hornidura mota, kantitatea eta ura eta elikagaiak garraiatzeko moduak.
– Erantzukizunez jokatzea erabakiak hartzeko eta aurreikuspenak egiteko orduan.
– Lanarekin lotutako betebeharrekiko konpromisoa izatea.
– Desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea sustatzearen aldeko jarrera izatea.

IE: 5. Natura-ingurunean ibilbideak egiteko segurtasun-protokoloak betetzen ditu, jokabideak eta behar diren baliabideak zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Segurtasun-neurri espezifikoak zehaztu ditu, ibilbidea eta taldea aintzat hartuta.
b) Banakako eta taldekako segurtasun-ekipamenduak aurreikusi ditu, ibilbidearen egoera kontuan izanda.
c) Ibilbideko baldintza gogorrei aurre egiteko jardun-prozedura ezarri du.
d) Eremuko larrialdi-zerbitzuekin koordinatzeko prozedura azaldu du.
e) Zehaztu du nola jardun behar duten parte-hartzaile bakoitzak eta taldeak arrisku-egoeretan.
f) Fenomeno atmosferiko gogorrei aurre egiteko, lurreko elementuak baliatzea justifikatu du.

Eduki-multzoa: Natura-inguruneko ibilbideetarako segurtasun-protokoloak.

– Datuak editatzeko erreminta grafikoak erabiltzea.
– Segurtasun-neurri espezifikoak zehaztea.
– Banakako eta taldekako segurtasun-ekipamenduak aurreikustea.
– Ibilbideko baldintza gogorrei aurre egiteko jardun-prozedura zehaztea.
– Eremuko larrialdi-zerbitzuekin koordinatzeko prozedura azaltzea.
– Zehaztea nola jardun behar duten parte-hartzaile bakoitzak eta taldeak arrisku-egoeretan.
– Lurreko elementuak baliatzea, fenomeno atmosferiko gogorrei aurre egiteko.
– Ibilbidearen eta taldearen araberako segurtasun-neurri espezifikoak.
– Segurtasun-ekipamenduak: banakakoak eta taldekakoak.
– Ibilbideko segurtasun-baldintzak.
– Nola jardun arrisku-egoeretan. Egoera gogorretan jarduteko ekintzak eta teknikak. Egoeraren larritasun-maila eta horren jakitun egon behar duten pertsonak eta instantziak baloratzea.
– Tarte bakoitzerako portaera-arauak. Jardueraren tarte bakoitzeko gertakariak.
– Lurreko elementuak baliatzea, fenomeno atmosferiko gogorrei aurre egiteko.
– Segurtasun-protokoloak. Arrisku-egoerak aurreikusteko eta konpontzeko neurriak.
– Sorospen- eta ebakuazio-protokoloak.
– Natura-inguruneko jardueretarako erantzukizun zibila eta penala.

– Parte-hartzaileei abisuak eta jakinarazpenak bidaltzeko sistemak.
– Komunikazio-aparatuak.
– Natura-ingurunean istripuak prebenitzeko eta arriskua murrizteko arauak errespetatzea.
– Segurtasun-arloko berrikuntzetan interesa izatea, hala ekipamenduetan nola protokoloetan.

IE: 6. Ibilbidearen jarraipena egiteko prozesua finkatzen du, hura hobetzeko behar diren datu motak zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hautatu du nola erregistratu taldearen eta teknikariaren erreakzioei buruzko datuak eta ibilbidean eta jardueretan izandako aurrerapenari buruzkoak.
b) Zenbait tresna diseinatu ditu, bidea aurreikusitako ibilbidearekin bat etortzeko izandako gorabeherak jasotzeko.
c) Jardueran erabilitako ekipamenduen eta materialen egokitasunari buruzko datuak jaso beharra baloratu du.
d) Jardueraren segurtasunerako kaltegarri izan daitezkeen alderdiak zehaztu ditu.
e) Txosten-eredu bat prestatu du, oinarri hartuta balorazio-fitxak, programa eta hobekuntza-proposamenak.
f) Ibilbideak diseinatzeko orduan, ingurumenari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzea baloratu du.

Eduki-multzoa: Ibilbidearen jarraipena egiteko prozesua finkatzea.

– Gure lanbide-jardunak dituen ondorioak arrazionalizatzea, eta haren efektu positiboak eta negatiboak bereiztea.
– Taldearen eta teknikariaren erreakzioei buruzko datuak eta ibilbidean eta jardueretan izandako aurreratzeari buruzkoak erregistratzea.
– Jardueran izandako gertakariak biltzeko tresnak diseinatzea.
– Txosten-eredua prestatzea.
– Ibilbideak diseinatzeko orduan, ingurumenari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzea.
– Jardueraren jarraipena egiteko teknikak eta tresnak. Behaketa sistematikoa. Datuak biltzeko inprimakiak:

• Taldearen erreakzioei buruzko datuak.
• Programaren denborei buruzko datuak.
• Jardueran erabilitako ekipamendu eta materialen portaerari buruzko datuak.
• Jardueraren garapenaren segurtasunean eragina duten gertakariei buruzko datuak.
• Ingurumenari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzeari buruzko datuak.

– Autoebaluazio-teknikak:

• Txostenak.
• Jarduera balioesteko fitxak.
• Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak.
• Jarduera hobetzeko proposamenak.

– Baloratzea zer-nolako garrantzia duen datuak erregistratzeak, jarduerak hobetzeko tresna gisa.
– Fitxak eta txostenak egiteko orduan arduraz jokatzea.

5. lanbide-modulua: Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza.

Kodea: 1333.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 231 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Behe- eta erdi-mailako mendietan eta lursail elurtuetan ibilbideak egiteko ekipamenduak eta baliabideak prestatzen ditu, eta egoera onean daudela eta funtzionalak direla egiaztatzeko prozedurak adierazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Behe- eta erdi-mailako mendietan eta lur elurtuetan ibilbideak egiteko dokumentazioa, baimenak eta baliabideak egiaztatzeko protokoloa bete du.
b) Behe- eta erdi-mailako mendietan eta lur elurtuetan ibilbideak egiteko hornidura eta kirol-material banakako nahiz taldekakoak berrikusi ditu.
c) Bere ardurapeko arloari dagozkion segurtasun-elementuak eta arriskua prebenitzekoak egoera onean daudela egiaztatu du.
d) Behe- eta erdi-mailako mendietan eta lur elurtuetan ibilbideak egiteko materialaren eta kirol-ekipamenduaren eta komunikazio- eta orientazio-aparatuen mantentze-lan operatiboa egin du.
e) Komunikazio-aparatuen estaldura-eremuak eta emisio-bandak egiaztatu ditu.
f) Ekipamenduak eta materialak garraiatzeko erarik onena eta gordetzeko modua hautatu du, araudiari jarraituz iraun dezaten ziurtatzeko.
g) Eremu zailak eta arriskutsuak seinaleztatu ditu begi-bistako tokietan, orientazioa eta segurtasuna bermatzeko behe- eta erdi-mailako mendietako askotariko lurretan eta lur elurtuetan egindako ibilbideetan.

Eduki-multzoa: Ekipamenduak eta baliabideak prestatzea.

– Behe- eta erdi-mailako mendietan eta lur elurtuetan ibilbideak egiteko dokumentazioa, baimenak eta baliabideak egiaztatzea.
– Kirol-materialak eta hornidura berrikustea: banakakoak nahiz taldekakoak.
– Segurtasuneko eta arriskuak prebenitzeko elementu espezifikoen egoera egiaztatzea.
– Materialaren eta kirol-ekipamenduaren mantentze-lan operatiboa egitea, bai eta komunikazio- eta orientazio-aparatuena ere.
– Komunikazio-aparatuen estaldura-eremuak eta emisio-bandak egiaztatzea.
– Ekipamendu eta materialak garraiatzeko erarik onena eta gordetzeko modua hautatzea.
– Eremu zailak eta arriskutsuak seinaleztatzea begi-bistako tokietan, ibilbidean orientazioa eta segurtasuna bermatzeko.
– Ekipamenduaren eta materialaren ezaugarriak.
– Behe- eta erdi-mailako mendietako eta lur elurtuetako gidari-jarduerekin lotutako araudia:

• Materiala homologatzeari eta iraungitzeari buruzko arauak.
• Ibilbideak egiteko prozedurekin eta baimenekin lotutako arauak.
• Erabiltzaile motarekin lotutako arauak.

– Behe- eta erdi-mailako mendietan ibilbideak egiteko materiala:

• Ibilbideetarako janzkera. Arropa eta oinetako motak.
• Ibilbideetarako ekipamendua.

– Lur elurturako materiala. Ezaugarriak eta erabiltzeko irizpideak:

• Elur-erraketak eta beste.

– Egun bateko edo gehiagoko jarduerak egiteko materiala:
• Banako eta taldeko materiala.
• Kirol-materiala erabiltzeko oinarrizko teknikak.

– Segurtasun-materiala eta lehen laguntzetakoa.
– Materiala garraiatzea.
– Materiala konpondu, kontrolatu, mantendu eta gordetzeko teknikak.
– Behe- eta erdi-mailako mendietako eta lur elurtuetako ibilbideetarako hornidura.
– Komunikazio-tresneria: irrati-transmisoreak eta telefono mugikorrak. Irrati-transmisoreen oinarrizko funtzionamendua. Irrati-hizkuntza.
– Zorroztasunez jokatzea materialak, instalazioak eta ekipamenduak hautatzeko eta antolatzeko orduan.
– Jarrera proaktiboa izatea jardueretan erabiltzen den materiala kokatzeko eta biltzeko orduan.
– Instalazio, ekipamendu eta materialak zaintzeko eta egoki erabiltzeko konpromisoa izatea.
– Arriskuak minimizatuta natura-ingurunean ingurune seguruak sortzearen garrantzia aintzat hartzea.

IE: 2. Behe- eta erdi-mailako mendietako ibilbideetan taldeen aurreratzea zuzentzen du, teknikak lurraren eta parte-hartzaileen ezaugarrietara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Parte-hartzaileen profila, maila teknikoa eta esperientzia baloratzeko informazioa lortzeko teknikak aplikatu ditu.
b) Informazioa eman du ibilbidearen ezaugarriei eta interesguneei buruz, materialaren erabilerari buruz eta segurtasunarekin eta natura-ingurunea errespetatzearekin lotzen diren jardun-arauei buruz.
c) Aldapa eta harritzetan, makila erabilita zein ez, aurrera egiteko erabili beharreko teknikak azaldu eta erakutsi ditu.
d) Lur elurtuetan aurrera egiteko erabili beharreko teknikak azaldu eta erakutsi ditu.
e) Aurrera egiteko teknika ezaugarri pertsonaletara eta lurraren eta jardueraren ezaugarrietara egokitu du.
f) Ibilbidean aurrera egiteko zailtasun teknikoren bat edo desgaitasunen bat duten parte-hartzaileei eman beharreko laguntzak adibide bidez adierazi ditu.
g) Zehaztu du zer-nolako neurriak hartu behar diren parte-hartzaileen neke-, intsolazio- eta deshidratazio-sintomen edo arrisku-jokabideen aurrean.

Eduki-multzoa: Taldeek behe eta erdi-mailako mendietan aurrera egitea.

– Informazioa lortzeko teknikak erabiltzea.
– Ibilbidearen ezaugarriak eta interesguneak aditzera ematea, bai eta materialaren erabilera eta segurtasunarekin eta natura-ingurunea errespetatzearekin lotzen diren jardun-arauak ere.
– Aldapa eta harritzetan, makila erabilita zein ez, aurrera egiteko erabili beharreko teknikak azaldu eta erakustea.
– Lur elurtuetan aurrera egiteko erabili beharreko teknikak azaldu eta erakustea.
– Aurrera egiteko teknikak ezaugarri pertsonaletara eta lurraren eta jardueraren ezaugarrietara egokitzea.
– Zailtasun teknikoren bat edo desgaitasunen bat duten parte-hartzaileei eman beharreko laguntzak adibide bidez adieraztea. Kontsignak eta azalpenak egokitzea. Jarduerak desgaitasuna duten pertsonei egokitzea.
– Parte-hartzaileen neke-, intsolazio- eta deshidratazio-sintomen edo arrisku-jokabideen aurrean

hartu beharreko neurriak finkatzea.

– Informazio eskuratzeko metodoak: jardueran zuzenean behatzea, oinarrizko proba teknikoak egitea.

– Mendian aurrera egiteko teknikak. Belar-aldapetarako, harritzetarako eta ibaietarako teknikak:

• Ibilbidea bistaratu eta hautatzea.
• Bide eta ibilbide alternatiboak ezartzea.
• Ibilbiderako segurtasun-protokoloak: funtsezko puntuak.

– Lur elurtuetan aurrera egiteko teknikak:

• Besteak beste, makilekin eta elur-erraketekin igo eta jaisteko teknika. Segurtasunarekin lotutako funtsezko puntuak. Ezaugarri indibidualetara egokitzea.
• Bide alternatiboak ezartzea.
• Ibilbidea bistaratu eta hautatzea.

– Lur elurtuetan aurrera egiteko teknikak:

• Besteak beste, makilekin eta elur-erraketekin igo eta jaisteko teknika. Segurtasunarekin lotutako funtsezko puntuak.

– Martxa-erritmoa:

• Jarduerara eta taldera egokitutako bihotz-erritmoa. Taldean erritmoa kontrolatzea. Parte-hartzaileentzako kontsignak.
• Neke-sintomak kontrolatzea. Jardueran zehar, atseden hartzea, anoa hornitzea eta hidratatzea.
• Denbora eta distantzia neurtzeko metodoak.

– Parte-hartzaileen neke-, intsolazio- eta deshidratazio-sintomen edo arrisku-jokabideen aurrean hartu beharreko neurriak hartzea.

– Ezaugarri indibidualetara egokitzea.

– Desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak:

• Desgaitasuna duten pertsonek zer-nolako laguntza behar duten autonomia lortzeko.

– Jarduerak segurtasunez eta eroso egiteko ekipamendu pertsonala eta material egokia erabiltzeko konpromisoa hartzea.

– Segurtasuneko eta arriskuen prebentzioko oinarrizko protokoloak zorroztasunez betetzea.

– Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan desgaitasuna duten pertsonekin talde-lana egitearen garrantziaz ohartzea.

– Zorroztasuna egin beharreko atazen planifikazioan eta egokitzapenak ezartzean.

– Proiektuko atazei baliabideak zorroztasunez esleitzea.

IE: 3. Natura-ingurunean orientatzen da, erreferentzia-puntuak identifikatuz tresna, mapa eta zantzu naturalen bidez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tokian bertan identifikatu ditu mapan irudikatutako elementu esanguratsuak.
b) Bidean bertan egiaztatu ditu ibilbidean adierazitako norabide-balioak.
c) Orientazio-zirkuitu bat egin du, balizak, iparrorratza eta mapak erabiliz.
d) Ibilbidean orientazio-tresnak erabili ditu.
e) GPSn koordenatuak nola jaso deskribatu du.
f) GPSn itzulbide bat egin du.

Eduki-multzoa: Orientazio-teknikak.

– Tokian bertan identifikatzea mapan irudikatutako elementu esanguratsuak.
– Bidean bertan egiaztatzea ibilbidean adierazitako norabide-balioak.
– Orientazio-zirkuitu bat egitea, balizak, iparrorratza eta mapak erabiliz.
– Ibilbidean orientazio-tresnak erabiltzea.
– GPSn edo beste edozein euskarritan itzulbide bat egitea.
– Mugikorretarako, tabletetarako eta GPSrako programak eta aplikazioak erabiltzea.
– Natura-inguruneetan orientatzeko teknikak.
– Ikuspen urriko egoeretan orientatzeko teknikak.
– Norabideak kalkulatzeko teknikak: puntu zehatzetara joateko norabideak ezartzea. Bi punturen arteko ibilaldi-norabidea kalkulatzeko teknikak.
– Planoan iparrorratzaren bidez orientatzeko jarraitu beharreko urratsak.
– GPSrako programak eta aplikazioak:

• GPSa konfiguratzeko urratsak.
• Datuma.

– GPSaren funtzioak:

• Waypoint-a, track log-a, track-a, trackback-a, goto-a eta ibilbidea.
• Koordenatuak hartzea.

– GPSrako kartografia.
– Datuak PCtik GPSra eta alderantziz bidaltzeko komunikazioa.
– GPS hargailuak erabili eta maneiatzeko jarraibideak.
– Mugikor eta tabletetarako programak eta aplikazioak.
– Datuak eta informazioak aztertzeko prozesua baloratzea, diagnostikorako oinarri gisa.
– Konponbideak bilatzeko ekimena.
– Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean.

IE: 4. Natura-ingurunean gaua nola igaro antolatzen du, kanpatze-teknikak eta bibaka erabiliz eta halabeharrezko aterpeak eraikiz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gaua igarotzeko tokiak hautatzeko irizpideak argudiatu ditu.
b) Kanpatze-eremuak egokitu ditu.
c) Toki arriskutsuak identifikatu ditu.
d) Kanpadenda bat muntatzeko urratsak egin eta azaldu ditu.
e) Natura-ingurunean egindako kanpaldietan taldeak bete beharreko portaera-protokoloa ezarri du.
f) Halabeharrezko aterpe bat eraiki du, larrialdiko bibak bat egiteko.

Eduki-multzoa: Gaua nola igaro antolatzea.

– Gaua igarotzeko tokiak hautatzea.
– Kanpatze-eremuak egokitzea.
– Toki arriskutsuak identifikatzea.
– Kanpadenda bat muntatzeko urratsak azaldu eta egin ditu.
– Natura-ingurunean egindako kanpaldietan taldeak bete beharreko portaera-protokoloa ezartzea.
– Halabeharrezko aterpe bat eraikitzea, larrialdiko bibak bat egiteko.
– Kanpatzeari buruzko legeria. Baldintzak, baimenak eta prozedura.

– Kanpaldia:

• Kanpaldi motak.
• Kanpatzeko tokiak. Baldintza topografiko eta orografikoak. Kanpadendak jartzeko tokia hautatu eta egokitzea. Segurtasun-irizpideak. Gaua igarotzeko tokiak hautatzeko irizpideak.
• Kanpamentu baten egitura eta antolaketa. Kanpadendak haize nagusiaren eta beste zenbait elementu atmosferikoren arabera orientatzeko irizpideak.

– Bibaka:

• Bibaka egiteko elementuak.
• Bibakeko tokia hautatu eta egokitzeko irizpideak.
• Bibak motak.
• Larrialdiko bibak bat egiteko halabeharrezko elementuak.
• Kanpadendak.

– Natura-ingurunerako oinarrizko zaintza- eta jokabide-arauak.
– Talde baten barruan komunikazio- eta koordinazio-prozesuek duten garrantzia baloratzea.
– Ordena eta metodoa talde-lanean.
– Natura-ingurunea zaintzeko konpromisoa.

IE: 5. Ikur meteorologikoak ezagutzen ditu, mapa meteorologikoak interpretatzeko eta natura-ingurunean zeinuak hautemateko teknikak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mapa meteorologikoak interpretatu ditu.
b) Eguraldi-aldaketak eta eguraldiaren bilakaera adierazten dituzten zeinu naturalak identifikatu ditu.
c) Aldagai meteorologikoak neurtzeko aparatuen funtzionamendua deskribatu du.
d) Elur-geruzak identifikatu ditu.
e) Elur-jausiak gertatzeko arriskua aurreikusteko informazioa bildu eta interpretatu du.

Eduki-multzoa: Zeinu meteorologikoak ezagutzea.

– Mapa meteorologikoak interpretatzea.
– Eguraldi-aldaketak eta eguraldiaren bilakaera adierazten dituzten zeinu naturalak identifikatzea.
– Eguraldiaren bilakaera aurreikustea, barometroa eta termometroa erabiliz.
– Iragarpen meteorologikoak, fenomeno bortitzen abisuak eta Estatuko Meteorologia Agentziaren edo iturri fidagarrien datuak interpretatzea.
– Elur-geruzak identifikatzea.
– Elur-jausiak gertatzeko arriskua aurreikusteko informazioa bildu eta interpretatzea.
– Tokiko eguraldia eta atmosfera. Aldagai meteorologikoak:
– Neurgailuak:

• Funtzionamendua, eta datuen irakurketa eta interpretazioa.
• Tenperatura. Termometroa, eskalak.
• Presio atmosferikoa. Barometroa, neurketa-unitateak. Altimetroa.
• Haizea. Anemometroa eta haize-orratza.
• Eguzki-erradiazioa, elur-estaldura eta erradiazioa. Piranometroa eta heliografoa.
• Hezetasuna. Higrometroa, psikrometroa eta aspiropsikrometroa.
• Prezipitazioak. Plubiometroa.

– Mapa meteorologikoak eta mapa esanguratsuak. Aldagai meteorologikoen arteko erlazioak. Sinbologia:

• Isobarak, isotermak, isopletak, fronteak eta beste.

– Iragarpen meteorologikoak, fenomeno bortitzen abisuak eta Estatuko Meteorologia Agentziaren edo iturri fidagarrien datuak.

– Eguraldiaren bilakaera aurreikusteko irizpideak, barometroa eta termometroa erabiliz.

– Zeinu naturalak eta eguraldiaren aurreikuspena:

• Hodeiak eta lainoa.
• Haizea: motak, norabidea, intentsitatea.
• Animalien eta landareen portaera.

– Elur-estaldura:
• Elur-estalduraren ezaugarriak.
• Elur-jausiak.

– Egonkortasun-probak.
– Datuak eta informazioak aztertzeko prozesua baloratzea, diagnostikorako oinarri gisa.
– Konponbideak bilatzeko ekimena.

IE: 6. Larrialdi-egoeretan taldea zuzentzen du, baliabideak eta segurtasun-neurriak koordinatuz eta behe- eta erdi-mendiko eta mendi elurtuko ibilbideetan erreskate- eta ebakuazio-teknikak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Arrisku-kasuetan jarraitu beharreko protokoloa definitu du.
b) Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakutsi ditu.
c) Fenomeno atmosferiko arriskutsuak gertatzen direnean ingurunera nola egokitu simulatu du.
d) Elur-jausietarako detekzio- eta erreskate-neurriak zehaztu ditu.
e) Elur-jausietan istripua izandako pertsonak ateratzeko prozedurak aplikatu ditu.
f) Erreskateetan detektagailuak eta materiala nola erabili azaldu du.

Eduki-multzoa: Prebentzioa eta sorospena mendian.

– Arrisku-kasuetan jarraitu beharreko protokoloa definitzea.
– Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakustea.
– Fenomeno atmosferiko arriskutsuak gertatzen direnean ingurunera nola egokitu simulatzea.
– Elur-jausietarako detekzio- eta erreskate-neurriak zehaztea.
– Elur-jausietan istripua izandako pertsonak ateratzeko simulazioa egitea.
– Erreskateetan detektagailuak eta materiala erabiltzea.
– ARVA elur-jausien biktimak bilatzeko aparatuek funtzionatzen dutela egiaztatzea.
– Halabeharrezko ohatilak, eskalak eta tirolinak egitea.
– Mendian izaten diren arriskuak: arrisku objektiboak eta subjektiboak.
– Galdutako pertsonak bilatzeko protokoloak.
– Istripuetan jarduteko protokoloak.
– Erreskate-taldeei deitzeko protokoloak.
– Laguntza bilatzeko jarraitu beharreko irizpideak.
– Nazioarteko sorospen-seinaleak.
– Istripua izandako pertsonak garraiatzeko teknikak: halabeharrezko ohatilak, eskalak eta tirolinak.
– Istripua izandako pertsona ebakuatzeko protokoloak.
– Elur-jausietako biktimak ARVA bidez erreskatatzeko protokoloa.
– Jarduera egin aurretik: ARVAren funtzionamendua.

– Nola jardun elur-jausi batean:

• Erreskatatze-taldeari deitzea.
• Lehen mailako bilaketari ekitea.
• Bigarren mailako bilaketa.
• Hirugarren mailako bilaketa.
• Zundaketa estrategikoa.
• Palaketa estrategikoa.

– Jardun-protokoloak ordenaz eta zehaztasunez aplikatzearen garrantzia baloratzea.
– Jardunaren mugez jabetzea, eta hura protokoloetara eta gomendioetara egokitzea.
– Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean.
– Autokontrola estres-egoeren aurrean, eta frustrazioarekiko tolerantzia.

IE: 7. Behe- eta erdi-mailako mendiko eta mendi elurtuko lurretako ibilbideak baloratzen ditu, eskuragarri dituen datuak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidariaren jardunari eta taldeak jardueran izandako erreakzioei buruzko datuak bildu ditu.
b) Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratu ditu.
c) Jardueran portaera ausartegirik izanez gero jarraitu beharreko jarraibideak ezarri ditu.
d) Ibilbideetan erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren baloratu du.
e) Jardueraren balorazio-fitxa bete du, programaren arabera.
f) Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatu ditu.
g) Egindako jarduerari buruzko txostena egin du.

Eduki-multzoa: Behe- eta erdi-mailako mendiko eta lur elurtuko ibilaldiak ebaluatzea:

– Gidariaren jardunari eta taldeak jardueran izandako erreakzioei buruzko datuak biltzea.
– Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratzea.
– Jardueran jokabide ausartegien aurrean jarraitu beharreko jarraibideak ezartzea.
– Ibilbideetan erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren baloratzea.
– Jardueraren balorazio-fitxa betetzea, programaren arabera.
– Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatzea.
– Egindako jarduerari buruzko txostena egitea.
– Jarduera baloratzeko kontrol-fitxak. Motak.
– Jarduera garatzean datuak biltzeko metodoak.
– Informazioa biltzeko teknikak. Barne-ebaluazioa edo autoebaluazioa egiteko metodoak, eta kanpo-ebaluazioa egitekoak. Inkestak.
– Ebaluazio-dokumentuak. Jarraipen-fitxak.
– Honako hauek diseinatzeko eta egiteko irizpideak:

• Taldearen portaerei buruzko erregistroak. Jardueran parte hartzen dutenen aurreratzea. Exekuzio teknikoa, eraginkortasuna eta segurtasuna.
• Teknikarien edo gidarien jardunari buruzko erregistroak. Komunikazioaren egoera eta eraginkortasuna.
• Gorabeherak erregistratzea eta aurreikusitako denboretara egokitzea. Jardueraren faseak, esku-hartzeen denborak. Jardueren garapenaren segurtasunari eragiten dioten gertakariak.
• Jardueraren segurtasun-maila kalkulatzea.

– Behe- eta erdi-mailako mendiko eta lur elurtuko jarduera gidatuetan erabilitako ekipamendu eta materialak.
– Jarduerari buruzko txostenak. Neurri zuzentzaileak eta programazioa hobetzekoak proposatzea. Hobekuntzak egitea eta jarduera berriak sortzea.

– Jardueretan inplikatuta dauden beste pertsona batzuek egindako iradokizunak entzutea eta aintzat hartzea.
– Programen funtzionamendua optimizatzeko eta haien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitearen beharra aitortzea.
– Ebaluazio-tresnak zorroztasunez aplikatzea.
– Gaitasun kritikoa eta autokritikoa izatea, hobetzeko tresnak diren aldetik.

6. lanbide-modulua: Bizikleta-gidaritza.

Kodea: 1334.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 165 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Bizikleta-ibilbideak egiteko ekipamenduak eta baliabideak prestatzen ditu, eta egoera onean daudela eta funtzionalak direla egiaztatzeko prozedurak adierazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilbidearen ziklabilitateari, zailtasunari eta aurreikusitako iraupenari buruzko informazioa egiaztatu du.
b) Bizikleta-ibilbideetako jarduerak prestatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak zehaztu ditu.
c) Bizikleta eta ibilbiderako behar den materiala hautatu du.
d) Bizikleta-ibilbidean izan daitezkeen arrisku-egoerak prebenitzeko eta konpontzeko beharrezko diren neurriak zehaztu ditu.
e) Natura-inguruneko jarduerekin eta ingurumena babestearekin lotzen den eta bizikleta-ibilbideak prestatzeari aplika dakiokeen araudia aztertu du.

Eduki-multzoa: Bizikleta-ibilbideak egiteko ekipamendu eta baliabideak prestatzea.

– Informazioa bilatzea eta biltzea. Dokumentu-iturri fidagarriak hautatu eta erabiltzea.
– Ibilbidea diseinatzea, hautatzea edo egokitzea, taldearen ezaugarrien eta jardueraren helburuen arabera.
– Ibilbidearen ziklabilitateari, zailtasunari eta aurreikusitako iraupenari buruzko informazioa egiaztatzea.
– Bizikletan ibilbideak egiteko baliabide materialak eta giza baliabideak hautatzea.
– Bizikleta eta ibilbiderako beharrezkoa den materiala hautatzea.
– Bizikleta-ibilbidean izan daitezkeen arrisku-egoerak prebenitzeko eta konpontzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.
– Natura-inguruneko jarduerekin eta ingurumen-babesarekin lotzen den araudia aztertzea.
– Egun bateko edo gehiagoko jardueretarako behar den materiala zehaztea eta beharrak kalkulatzea.
– Materiala eta bizikletak biltegiratzea eta garraiatzea.
– Bizikleta-ibilbideak. Motak eta ezaugarriak.
– Bizikleta-ibilbideei buruzko aipamenak, roadbook-ak, gida-liburuak eta beste informazio-iturri batzuk.
– Ibilbidearen helburuak, taldearen eta haren interesen arabera. Geldialdiak eta faseen iraupena.
– Jarraibide teknikoak eta segurtasunekoak. Jarduera kontrolatzeko neurriak. Bide-segurtasuneko hezkuntza.
– Parte-hartzaileei ibilbideari buruzko informazioa eta gomendioak ematea.
– Konponbideak, gorabehera mekanikoei edo osasun-gorabeherei aurre egiteko.

– Jardueran eragina izan dezakeen araudia. Baimenak lortzeko izapideak.
– Zerbitzu osagarriak. Parte-hartzaileak garraiatzea.
– Materiala eta bizikletak biltegiratzeko eta garraiatzeko moduak.
– Ibilbidea eta materiala desgaitasuna duten pertsonei egokitzeko irizpideak.
– Datuak eta informazioak aztertzeko prozesua baloratzea.
– Aisia- eta astialdi-jardueren bitartez, ingurumen-hezkuntzaren garrantzia baloratzea.

IE: 2. Bizikletaren mantentze-lan operatiboa egiten du, eta egoera onean dagoela eta egoki funtzionatzen duela ziurtatzeko behar den materiala prestatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Teknikoki deskribatu ditu bizikletaren piezak eta osagaiak, eta haien funtzionaltasuna.
b) Bizikletaren piezak eta osagaiak eta hondatutako konponketa-materiala birjarri ditu, fabrikatzaileak gomendatutako eraginkortasun-irizpideei jarraituz.
c) Berariazko tresnak erabiliz bizikletaren oinarrizko elementuak desmuntatu eta muntatu ditu.
d) Bizikletan ohikoak diren matxurak diagnostikatu eta konpondu ditu.
e) Bizikleta garbitzeko eta koipeztatzeko eragiketak egin ditu.
f) Berariazko erremintak erabili ditu bizikleta konpontzeko eta mantentzeko.
g) Mantentze prebentiboko ekintzak egin ditu, fabrikatzaileak ezarritako argibideei jarraituz.

Eduki-multzoa: Bizikleta mantentzeko lanak.

– Bizikleta erabiltzailearen anatomia pertsonalera egokitzea.
– Bizikletaren oinarrizko elementuak muntatzea eta desmuntatzea.
– Bizikletan ohikoak izaten diren oinarrizko matxurak atzematea, diagnostikatzea eta konpontzea.
– Bizikletaren piezak eta osagaiak eta hondatutako konponketa-materiala birjartzea.
– Bizikleta garbitzeko eta koipeztatzeko eragiketak egitea.
– Bizikleta konpontzeko eta mantentzeko erreminta espezifikoak erabiltzea.
– Bizikletaren prebentziozko mantentze-lanak egitea.
– Bizikleta-mekanika eta bizikleta motak.
– Neurriak eta geometriak.
– Bizikleta erabiltzailearen anatomiara egokitzeko gomendioak: zela, eskulekua eta palankak.
– Bizikletaren piezak eta osagaiak: funtzionaltasuna eta ezaugarriak.
– Lantegiko oinarrizko ekipamendua, erremintak eta ordezko piezak. Material eta produktu espezifikoak.
– Ibilbidean erabiltzeko tresnen eta ordezko piezen oinarrizko kit-a.
– Piezak eta osagaiak birjartzeko eta oinarrizko eta larrialdiko konponketak egiteko prozedura.
– Bizikletaren mantentze-lan prebentiboak.
– Garbiketa eta lubrifikazioa.
– Bizikleta biltegiratzea.
– Bizikleta garraiatzea.
– Segurtasun-arauak.
– Bizikletaren osagaiak eta tresnak zorrotz hautatzea eta antolatzea.
– Ordena eta metodoa lanean.
– Egin beharreko atazak zorroztasunez planifikatzea.

IE: 3. Bizikleta-ibilbideetan taldeen aurreratzea zuzentzen du, teknikak lurraren eta parte-hartzaileen ezaugarrietara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Parte-hartzaileen profila, maila teknikoa eta esperientzia baloratzeko informazioa lortzeko moduak zehaztu ditu.
b) Informazioa eman du ibilbidearen ezaugarriei eta interesguneei buruz, materialaren era-

bilerari buruz eta segurtasunarekin eta natura-ingurunea errespetatzearekin lotzen diren jardun-arauei buruz.

c) Aurrera egiteko baliatu beharreko teknikak azaldu eta erakutsi ditu, bai eta teknika horiek lurrazal-motara, maldara eta beste ibilgailu edo oinezko batzuen presentziara nola egokitzen diren ere.

d) Bizikleta segurtasunez eta eraginkortasunez zuzendu du askotariko lurrazaletan, gehienez erdi-mailako mendiraino.

e) Trazatuak lurrazalaren zailtasunetara eta parte-hartzaileen eta ibilgailuen ezaugarrietara egokitu ditu.

f) Hiri-ingurunean zirkulatu du, zirkulazio-kodea errespetatuz.

Eduki-multzoa: Bizikletaz egiten diren ibilbideetan taldeak zuzentzea.

– Parte-hartzaileen profila, maila teknikoa eta esperientzia baloratzea.
– Aurreratze-teknikak azaltzea eta erakustea.
– Aurreratze-teknikak egoera desberdinetara egokitzea.
– Bizikleta askotariko lurrazalean gidatzea, gehienez erdi-mailako mendietan.
– Abiadura-aldagailua eta garapena egoki erabiltzea.
– Trazatuak lurrazalen zailtasunetara eta parte-hartzaileen eta bizikleten ezaugarrietara egokitzea.
– Askotariko lurrazaletan ekintza teknikoak egitea.
– Erritmoa, iraupena eta ibilbidea taldearen portaerara egokitzea.
– Hiri-ingurunean gidatzea, zirkulazio-kodea errespetatuz.
– Bizikletatik jaitsi eta igotzeko maniobrak egitea, martxan eta geldi dagoela.
– Parte-hartzaileei buruzko informazioa lortzeko moduak.
– Trazatu-motak. Ibilbideak tarteka xehatzea.
– Honako hauei buruzko informazio-estrategiak:

• Ibilbidearen ezaugarriak eta interesguneak.
• Materialaren erabilera.
• Segurtasunarekin lotutako jardun-arauak.
• Natura-ingurunea errespetatzea.

– Orekari eusteko, oztopoak gainditzeko eta balaztatzeko teknikak.
– Erabiltzailearen konpetentzia-maila oinarrizko aurrera egiteko oinarrizko tekniketan:

• Ezagutza teknikoa eskuratzeko mailak.
• Exekuzio teknikoan egindako akatsak. Esfortzua aplikatzean egindako akatsak.
• Balorazio-irizpideak.
• Neke-sintomak.

– Taldeak bizikletaz gidatzeko prozedurak, honako xede hauetarako:

• Materiala egokitzea, egiaztatzea eta banatzea.
• Taldea banatzea, antolatzea eta kontrolatzea. Taldekatzeen gidalerroak eta parte-hartzaileen kokapena.
• Bidean eta errepidean jarraitu beharreko arauak eta prozedurak transmititzea. Jarraibideak ematea jardueran zehar.
• Teknikaria jardueran zehar kokatzea eta lekualdatzea.
• Zonaren araberako komunikazio-sistemak.
• Lidergoa: erabakiak hartzea.

– Landa- eta hiri-ingurunearen ezaugarriak errespetatzea eta gidaritza-lana ezaugarri horietara egokitzea.

– Taldearen une bakoitzerako jarrera egokia izatea zer garrantzitsua den balioestea.
– Jarduerek koherentzia izatea natura-inguruneko aisia- eta astialdi- jardueren proiektuaren helburuekin.

IE: 4. Natura-ingurunean orientatzen da, erreferentzia-puntuak identifikatuz tresna, mapa eta zantzu naturalen bidez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mendiko ingurumen-baldintza guztietan orientatzeko tresna, mapa eta zantzu naturalak erabili ditu.
b) Ibilbidean zehar mapa, roadbook-a edo GPSa interpretatu du, ibilbidearen erritmoan eragin gabe.
c) Bizikleta-ibilbideak deskribatzeko berezko sinbologia identifikatu du.
d) Tarte zail eta arriskutsuen aurrean ibilbide alternatiboak egin ditu, segurtasun-irizpideei jarraituz.
e) Beste erabiltzaile edo teknikari batzuek erabil ditzaketen ibilbideak deskribatu ditu.

Eduki-multzoa: Natura-ingurunean orientatzea.

– Orientatzeko tresna, mapa eta zantzu naturalak erabiltzea.
– Mapa, iparrorratza, roadbook-a edo GPSa interpretatzea.
– Bizikleta-ibilbideak deskribatzeko berezko sinbologia identifikatzea.
– Tarte zail eta arriskutsuen aurrean ibilbide alternatiboak egitea.
– Ibilbideen deskribapenak egitea.
– Gidak, mapak, GPSa. – Ibilbideak eta roadbook-ak deskribatzea.
– Ibilbidearen erreferentzia-puntu esanguratsuak eta interesgarriak, eta haien ezaugarriak.
– Ibilbidea tokian bertan identifikatzeko irizpideak.
– GPSa edo beste aparatu batzuk erabilita ibilbideak eta trak-ak jarraitzeko teknikak.
– Waypoint-ak ibilbidean kokatzeko eta aurkitzeko teknikak, GPSa edo beste aparatu batzuk erabilita.
– Ibilbide alternatiboak aurkitzea mapan eta tokian bertan.
– Etapako profilak eta roadbook-ak egiteko teknikak.
– GPSa, Smartphonea eta ordenagailua. Beste teknologia berri batzuk.
– Tresnak zorrotz irakurtzea.
– Jardueretan ordena eta metodoa zaintzea.
– Une bakoitzerako jarrera egokia izatea zer garrantzitsua den baloratzea.

IE: 5. Larrialdi-egoeretan taldea zuzentzen du, baliabideak eta segurtasun-neurriak koordinatuz eta bizikleta-ibilbideetan erreskate- eta ebakuazio-teknikak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Arrisku-kasuetan jarraitu beharreko protokoloa definitu du.
b) Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakutsi ditu.
c) Fenomeno atmosferiko arriskutsuak gertatzen direnean ingurunera nola egokitu simulatu du.
d) Ibilbidean konpondu ezin den matxura mekaniko bat izanez gero nola jokatu aurreikusi du.
e) Taldeko kideren bat ebakuatu behar izanez gero, teknikariek eta taldeak nola jokatu behar duten aurreikusi du.

Eduki-multzoa: Larrialdi-egoeretan taldea zuzentzea.

– Arrisku-kasuetan jarraitu beharreko protokoloa ezartzea.
– Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakustea.
– Fenomeno atmosferiko arriskutsuak gertatzen direnean ingurunera nola egokitu simulatzea.

– Ibilbidean konpontzerik ez dagoen matxura mekaniko baten aurrean jardutea.
– Taldeko kideren bat ebakuatu behar izanez gero egin beharreko jardunak zehaztea.
– Larrialdi-zerbitzuekin komunikatzeko sistemak. Erabiltzaileei eta jarduerari buruzko datuak transmititzeko prozedurak.
– Taldearentzako jarraibideak, istripurik izanez gero. Berriz elkartzeko moduak; rolak eta zereginak esleitzea.
– Materiala hondatzen edo galtzen denean jarduteko jarraibideak.
– Istripu baten aurrean jarduteko jarraibideak.
– Aurreikusitako ibilbidearen alternatibak ezartzea.
– Segurtasun-materiala. Erremintak, botikina, laguntza-ibilgailua eta abar.
– Esku-hartzearen mugez jabetzea, eta esku-hartzea protokoloetan eta gomendioetan adierazitakoa betez egitea.
– Lasaitasuna ez galtzea jardunean.
– Hobetu daitezkeen prozesuaren aldeekiko jarrera kritikoa izatea.

IE: 6. Bizikleta-ibilbideak baloratzen ditu, bildutako datuak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidariaren jardunari eta taldeak jardueran izandako erreakzioei buruzko datuak bildu ditu.
b) Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratu ditu.
c) Jardueran portaera ausartegirik izanez gero jarraitu beharreko jarraibideak ezarri ditu.
d) Ibilbideetan erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren baloratu du.
e) Jardueraren balorazio-fitxa bete du, programaren arabera.
f) Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatu ditu.
g) Egindako jarduerari buruzko txostena egin du.

Eduki-multzoa: Bizikleta-ibilbideak baloratzea.

– Taldeak jardueran izandako erreakzioei buruzko datuak biltzea.
– Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratzea.
– Jardueran jokabide ausartegien aurrean jarraitu beharreko jarraibideak ezartzea.
– Ibilbideetan erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren baloratzea.
– Jardueraren balorazio-fitxa egitea, programaren arabera.
– Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatzea.
– Egindako jarduerari buruzko txostena egitea.
– Jardueraren balorazioa kontrolatzeko fitxak. Motak.
– Jarduera garatzean datuak hartzeko metodoak.
– Informazioa biltzeko teknikak.
– Jarduera, taldea eta teknikaria aztertzeko eta programa baloratzeko erabili beharreko irizpideak.
– Ebaluazio-dokumentuak.
– Erregistro motak:

• Taldearen portaerei buruzko erregistroak.
• Teknikarien edo gidarien jarduerei buruzko erregistroak.
• Gorabeherak erregistratzea eta aurreikusitako denboretara egokitzea.

– Jardueren garapenaren segurtasunean eragina duten gorabeherak. Jardueraren segurtasun-maila kalkulatzeko moduak.
– Bizikletan gidatutako jardueran erabilitako ekipamendu eta materialak egokitzeko teknikak.
– Jarduerari buruzko txostenak. Neurri zuzentzaileak eta programazioa hobetzekoak.
– Ebaluazioa eta autoebaluazioa balioestea, hobekuntza- eta garapen-estrategia gisa.
– Ebaluazio-teknikenganako interesa izatea.
– Konfidentzialtasunez jardutea datuen tratamenduan.

7. lanbide-modulua: Astialdiko teknikak.

Kodea: 1335.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 132 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Astialdiko proiektuen ezaugarriak zehazten ditu, proiektu horien kolektibo hartzaileen profilak eta gizarte-testuingurua aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuaren esparru soziokulturala identifikatu du.
b) Proiektuaren jarduerak haren xedeekin bat etortzea baloratu du.
c) Proiektuaren jardun-ildoen eta hartzaileen ezaugarrien arteko lotura justifikatu du.
d) Organigraman jarri ditu proiektuan jardun behar duten profesionalen eginkizunak.
e) Araudia aplikatu dela egiaztatu du.

Eduki-multzoa: Astialdiko proiektuen ezaugarriak zehaztea.

– Proiektuaren esparru soziokulturala aztertzea.
– Ingurune hurbileko eta Euskal Autonomia Erkidegoko aisiako eta astialdiko testuinguruak, baliabideak, ekipamenduak, zentroak eta klubak aztertzea.
- Proiektuaren jarduerak aztertzea, haren xedeak aintzat hartuta.
- Proiektuaren jardun-ildoen eta hartzaileen ezaugarrien arteko loturak ezartzea.
- Araudia betetzen dela egiaztatzea.
- Aisia eta astialdia:

• Astialdiaren ezaugarriak.
• Gizartea eta astialdia aztertzeko jarraibideak.

- Kolektibo espezifikoentzako astialdi-programak:

• Haurrentzat eta gazteentzat. Ezaugarriak.
• Helduentzat eta hirugarren adinekoentzat. Ezaugarriak.
• Desgaitasuna duten pertsonentzat. Ezaugarriak.
• Beste kolektibo batzuentzat. Ezaugarriak.

- Proiektuan inplikatutako pertsonen organigrama eta eginkizunak.
- Antolamendu-egitura eta egitura funtzionala.
- Astialdiko baliabideak eta haien helburuak:

• Astialdiko jolas-jarduerak egiteko zentroak.

- Lege-esparrua. Aplikatu beharreko araudia. Araudi autonomikoa eta tokikoa.
- Balioen arloko heziketan aisiak eta astialdiak zer-nolako garrantzia duten balioestea.
- Inguruan aisiarako eta astialdirako dauden baliabideei eta haien ezaugarriei buruzko ikerketa egiteko ekimena.

IE: 2. Jarduera ludikoak eta astialdikoak antolatzen ditu, eta, horretarako, espazioak eta baliabideak eta prebentzioaren eta segurtasunaren arloko araudia aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduera ludikoak eta astialdikoak garatzeko espazioak, baliabideak eta materialak esleitu ditu.
b) Gizarte-trebetasunak, intelektualak eta motorrak garatzeko jolasak hautatu ditu.
c) Jolasaren balio hezigarria argudiatu du.
d) Jolasak proposatzean, parte-hartzaileen profilak hartu ditu kontuan.
e) Hezkuntzaren arloko astialdiko jarduerak antolatzean, segurtasun- eta prebentzio-neurriak kontuan hartu ditu.
f) Jarduerak ebaluatzeko jarraibideak erantsi ditu.
g) Jarduerak egokitu ditu, desgaitasuna duten pertsonek parte har dezaten errazteko.

Eduki-multzoa: Astialdi-jarduerak antolatzea.

– Jolas-jarduerak eta astialdikoak garatzeko espazioak, baliabideak eta materialak esleitzea.
- Gizarte-trebetasunak, trebetasun intelektualak eta motorrak garatzeko jolasak hautatzea.
- Proposatutako jolasak parte-hartzaileen profiletara egokitzea.
- Segurtasun- eta prebentzio-neurriak aplikatzea hezkuntzaren arloko astialdi-jarduerak antolatzean.
- Jarduerak ebaluatzeko jarraibideak erabiltzea.
- Jarduerak egokitzea, desgaitasuna duten pertsonek parte har dezaten errazteko.
- Jolasaren balio hezigarria. Argumentatzea eta justifikatzea.
- Jolasa: motak eta funtzioak. Ezaugarriak. Jolasaren bilakaera.
- Jolasaren erabilera, astialdiko animazioan.
- Aisia- eta astialdi-jardueretan erabiliko diren materialak antolatzeko eta hautatzeko jarraibideak.
- Baliabide ludikoak eta jolasekoak.
- Desgaitasuna duten pertsonei egokitutako jarduera ludikoak.
- Aisia-espazioak antolatzen parte hartzeko jarraibideak:

• Aterpeak, kanpalekuak eta baserri-eskolak.
• Azalera handiko saltokietako jolas-espazioak.
• Beste espazio batzuk (ospitaleak, aisia-elkarteak, ludotekak eta beste).
• Abentura-parkeak.

- Prebentzio- eta segurtasun-protokoloak astialdiko espazioetan.
- Aisia- eta astialdi-jardueretan ingurune seguruak sortzeak zer-nolako garrantzia duen baloratzea.
- Materialak, instalazioak eta ekipamenduak zorroztasunez hautatzea eta antolatzea.

IE: 3. Jolas-jarduerak eta astialdikoak garatzen ditu, animazio- eta adierazpen-teknikak eta -baliabideak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Adierazpen-teknikak aplikatu ditu, eremu artistikoetako eta komunikatiboetako baliabideak erabiliz.
b) Baliabideen erabilera desgaitasuna duten pertsonen partaidetzara egokitu du, bai eta parte-hartzaileen interesen bilakaerara eta ingurunean izandako aldaketetara ere.
c) Jarduerak egitean jokabide osasungarriak indartu ditu.
d) Ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabili ditu astialdi-jarduerak animatzeko tresna gisa.
e) Espazioak egokitu ditu, jardueren ahalmen hezigarria eta desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea aintzat hartuta.
f) Adierazpen-teknikek erabiltzaileen sormena garatzeko duten garrantzia argudiatu du.

Eduki-multzoa: Jolas-jarduerak eta astialdikoak garatzea.

– Jarduerak garatzeko, adierazpen-teknikak aplikatzea.
- Baliabideak pertsona guztien partaidetzara egokitzea.
- Jarduerak egitean jokabide osasungarriak indartzea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informatikakoak erabiltzea.
- Adierazpena garatzeko jarduerak egitea.
- Espazioak egokitzea.
- Animazio- eta adierazpen-teknikak. Teknika horien erabilera justifikatzea.
- Sormena, esanahia eta baliabideak.
- Ahozko adierazpena, plastikoa, motorra, musikakoa eta ikus-entzunezkoa garatzeko teknikak.
- Eremu artistikoetako eta komunikatiboetako baliabideak.
- Gizarte-trebetasunak eta trebetasun intelektualak garatzeko jolasak.
- Jokabide osasungarriak garatzeko jolasak.
- Pertsonaren garapen motorrerako jolasak:

• Garapen motorrerako jolas espezifikoak.
• Jolasak hautatzeko irizpideak, erabiltzaileen ahalmen motorrak aintzat hartuta.

- Lantegiak astialdiko hezkuntzan.
- Astialdiko animazioan ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak aplikatzea.
- Astialdi-jarduerak diseinatzeko protokoloak, adierazpen-baliabideetatik eta -tekniketatik abiatuta.
- Adierazpen-baliabideak parte-hartzaileen premietara, inguruneko aldaketetara eta interesen bilakaerara egokitzeko irizpideak.
- Aisia- eta astialdi-jarduera normalizatuak diseinatzea desgaitasuna duten pertsonentzat.
– Espazioak egokitzeko jarraibideak: Jardueren ahalmen hezigarria. Desgaitasuna duten pertsonen partaidetzan aplikatu beharreko jarraibideak.
- Adierazpen-teknikek erabiltzaileen sormena garatzeko duten garrantzia justifikatzea.

IE: 4. Kirol anitzeko jarduerak egiten ditu, kirol-hastapeneko teknikak eta baliabideak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Dagokion informazioa eman du saioaren hasieran eta amaieran, kirol anitzeko jardueretan parte-hartzera motibatze aldera.
b) Atazak nola egin behar diren azaldu du, haien alderdi garrantzitsuak nabarmenduta, eta gerta daitezkeen exekuzio-akatsak aurreikusita.
c) Kirol-modalitate fisikoetarako trebetasun motorrak erakutsi ditu, behar adinako kalitatez, ikasleek aukera izan dezaten egin behar duten atazaren irudikapen mental egokia eratzeko.
d) Kirol anitzeko jarduerak egitean hautemandako akatsak zuzendu ditu, eta akatsak eragin ditzaketen kausetan eta behar zen uneetan esku hartu du.
e) Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatu du, eta sortu diren gorabeherak konpondu ditu.
f) Kirol anitzeko lehiaketak antolatzeko eta kontrolatzeko irizpideak definitu ditu.
g) Kirol anitzeko jarduerak garatzeko beharrezkoak diren segurtasuneko eta arriskuen prebentzioko neurriak hartu ditu.

Eduki-multzoa: Kirol anitzeko jarduerak garatzea.

– Saioaren hasieran eta amaieran dagokion informazioa komunikatzea: parte-hartzeko motibatzea.

- Kirol-proiektuko saioaren fitxaren jarraipena egitea, saioa gauzatu bitartean.
- Saioan asistentzia kontrolatzea.
- Atazak nola egin behar diren azaltzea: haien alderdi garrantzitsuak eta gerta daitezkeen exekuzio-akatsak.
- Kirol-jarduera fisikoetako modalitate bakoitzaren ekintza motorrak erakustea.
- Kirola egin aurreko jolasak aplikatzea.
- Kirol anitzeko jarduerak erabiltzea egoera ludikoetan eta jolas-egoeretan.
- Hautemandako exekuzio-akatsak zuzentzea: akatsak eragin ditzaketen kausak, esku hartzeko une egokiak.
- Metodologia desberdinak erabiltzea, saioaren helburuen arabera.
- Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatzea ezarritako protokoloaren arabera. Taldearen fitxaren kudeaketa.
- Kirol anitzeko jarduerak gauzatzean segurtasuneko eta laneko arriskuen prebentzioko neurriak aplikatzea.
- Esku hartzeko teknikak aplikatzea, kirol anitzeko jarduera-saioak zuzentzean.
- Kirol anitzeko jardueretarako jarraibide eta aholku espezifikoak, honako hauetan erabiliak:

• EAEko kirol anitzeko programetan eta lehiaketetan.
• Kirol-arloko partaidetza-ibilbidean.
• Eskola-kirolaren programetan.

- Kirol anitzeko jarduera-saioak garatzeko jarraibide eta aholku espezifikoak:

• Instalazioarekin, materialekin eta ekipamenduekin ohitzeko jarduerak.
• Oinarri teknikoak:
o Banakako eta taldeko eraso-teknikak.
o Banakako eta taldeko defentsa-teknikak.
• Oinarri taktikoak joko-egoeretan:
o Oinarrizko eraso-sistema taktikoak.
o Oinarrizko hartze- eta defentsa-sistema taktikoak.
o Joko-egoerak.
o Joko eraldatua.

– EAEko kirolaren antolaketa eta oinarrizko legeria, garatuko diren jardueretara egokituak.
- Kirol-irakaskuntzako eta -entrenamenduko oinarri psikopedagogikoak:
• Entrenamendua.

- Saioak puntualtasunez hasi eta amaitzea.
- Parte-hartzaileak edo beste pertsona giltzarri batzuk egunez egun erakartzeko eta ilusionatzeko interesa izatea, esfortzua, lana eta intentsitatea baliatuta.
- Jarrera irekia, adeitsua eta errespetuzkoa beste pertsonekiko tratuan.

IE: 5. Natura-ingurunean jolas-jarduerak eta astialdikoak egiten ditu, ingurumenaren kontserbazio-, jasangarritasun- eta hobekuntza-printzipioak errespetatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Astialdi-jardueren bitartez, ingurumen-hezkuntzaren garrantzia baloratu du.
b) Natura-ingurunearen ezaugarriak baliatu ditu, jolas-jarduerak eta astialdikoak egiteko espazio gisa.
c) Natura-ingurunean hezkuntza-jarduerak garatzeko estrategiak eta jarraibideak aplikatu ditu.
d) Ingurune seguruak sortu ditu, natura-ingurunean arriskuak murriztuz.

e) Natura-ingurunean natura-arloko jarduerak eta jolasak garatzeko baliabideak hautatu ditu.
f) Natura-inguruneko jolas-jardueretan floraren eta faunaren behaketa eta ezagutza errazteko jarraibideak ezarri ditu.

Eduki-multzoa: Aisia- eta astialdi-jarduerak egitea natura-ingurunean.

– Natura-ingurunea erabili du, jolas-jarduerak eta astialdikoak egiteko espazio gisa.
- Natura-ingurunean hezkuntza-jarduerak garatzeko estrategiak eta jarraibideak aplikatzea.
- Ingurune seguruak sortzea, natura-ingurunean arriskuak murriztuz.
- Natura-ingurunean natura-arloko jarduerak eta jolasak garatzeko baliabideak hautatzea.
- Natura-inguruneko jolas-jardueretan floraren eta faunaren behaketa eta ezagutza errazteko jarraibideak aplikatzea.
– Ingurumen-hezkuntza. Astialdian honako alderdi hauen erabilera justifikatzea:

• Ekologia. Meteorologia.
• Ingurumen-hezkuntzako animatzailearen funtzioak.
• Ingurumen-hezkuntza eta jasangarritasuna.

- Natura-inguruneko jardueretako lege-esparrua.
- Baliabideak erabiltzea eta mantentzea natura-ingurunean.
- Natura-inguruneko jolas-jarduerak:

• Flora eta fauna behatzea.
• Mendi-ibiliak eta interpretazio-ibilbideak.
• Desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak.

- Ingurumen-jolasak eta -jarduerak.
- Hiri-ekosistema.
- Prebentzio- eta segurtasun-protokoloak natura-inguruneko astialdi-jardueretan.
- Aisia- eta astialdi-jardueren bidez, ingurumen-hezkuntzak duen garrantzia baloratzea.
- Ezarritako jardueren eta natura-inguruneko aisia- eta astialdi-jardueren proiektuaren helburuen arteko koherentzia.
- Natura-ingurunean ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea, arriskuak minimizatuz.

IE: 6. Kanpamendu-jarduerak antolatzen ditu, prebentzio- eta segurtasun-neurriak errespetatuz, eta natura-ingurunean garatutako jardueretan gertatzen diren larrialdi-egoeretan laguntzeko protokoloak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilbideak osatzeko jolas-jarduerak prestatu ditu, jardueraren helburuak eta erabiltzaileak aintzat hartuta.
b) Banakako edo taldeko kanpamentu bat jartzeko baliabide materialak eta giza baliabideak finkatu ditu, ezarritako segurtasun-neurriak errespetatuz.
c) Jolas-jarduerak eta astialdikoak antolatu ditu, natura-inguruneko kanpamentuen ingurunean.
d) Jolasetan, orientazio-erremintak erabili ditu.
e) Kanpatze-jardueretan eta ibilbideetan arriskuak prebenitzeko neurriak zehaztu ditu, lekuaren ezaugarriak kontuan hartuta.
f) Natura-ingurunean egindako jolas-jardueretan eta astialdikoetan gertatzen diren larrialdi-egoeretan laguntzeko protokoloak aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Kanpamentu-jarduerak antolatzea.

– Ibilbideak osatzeko jolas-jarduerak prestatzea.
- Jolas-jarduerak eta astialdikoak antolatzea, natura-inguruneko kanpamentuen inguruan.
- Jolasetan, orientazio-erremintak erabiltzea.
- Kanpatze-jardueretan eta ibilbideetan arriskuak prebenitzeko neurriak zehaztea.
- Larrialdi-egoeretan laguntzeko protokoloak aplikatzea.
- Natura-inguruneko kanpamentuko jolas-jarduerak.
- Banakako edo taldeko kanpamentu bat jartzeko baliabide materialak eta giza baliabideak.
- Kanpamentuak antolatzeko segurtasun-neurriak. Baimenak.
- Ibilbideak eta kanpamentuak:

• Kanpatze-jardueren diseinua, antolaketa, materialak eta segurtasun-neurriak.
• Txangoak egiteko baliabideak: erliebea eta ibilbideak.
• Ingurunea ezagutzeko ibilbideak.
• Desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak.

- Natura-inguruneko jolasak eta jolas-jarduerak.

• Naturan egindako orientazio-jolasak: teknikak eta prozedurak. Mapa eta iparrorratza.
• Orientazio-jolasak eta -lasterketak.
• Natura-arloko jolasak: aztarnari jarraitzea eta arrasto-jokoak.
• Arku-tiroa.
• Paintball-a.
• Rappela eta tirolina.

- Jolasetarako eta jolas-jardueretarako materialak eta ekipamenduak.
– Natura-ingurunean jarduerak egiteko instalazioak:

• Instalazioak erabiltzeko lege-esparrua.
• Erabiltzaileentzako informazio- eta segurtasun-protokoloak.

- Larrialdi-egoerak natura-ingurunean.
- Aisia- eta astialdi-jardueretan ingurune seguruak sortzeak zer-nolako garrantzia duen baloratzea.
- Materialak, instalazioak eta ekipamenduak zorroztasunez hautatzea eta antolatzea.

IE: 7. Astialdi-jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerak garatzen ditu, eta hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzeko estrategiak, teknikak eta baliabideak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jolas-jarduerak eta astialdikoak ebaluatzeko aplikatu beharreko adierazleak baloratu ditu.
b) Jolas-jardueren eta astialdikoen jarraipen-erregistroak bete ditu.
c) Ebaluazio-txostenak eta -memoriak egin ditu.
d) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
e) Inplikatuta dauden pertsonei ebaluazioaren emaitzak transmititu dizkie.
f) Jolas-jarduerak eta astialdikoak ebaluatzearen garrantzia justifikatu du.

Eduki-multzoa: Astialdi-jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

– Jolas-jarduerei buruzko adierazleak baloratzea.
- Jolas-jardueren eta astialdikoen jarraipen-erregistroak betetzea.
- Ebaluazio-txostenak eta -memoriak egitea.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
- Inplikatuta dauden pertsonei ebaluazioaren emaitzak transmititzea.
- Kalitatea kudeatzeko prozedurak aplikatzea.
- Astialdiko animazio-jarduerak ebaluatzearen helburuak: Justifikazioa. Ezaugarriak. Ebaluazioaren uneak.
- Astialdiaren esparruan ebaluazioa egiteko teknikak eta tresnak. Behaketa, elkarrizketak eta galdera-sortak.
- Ebaluazio-adierazleak. Jolas-jarduerak eta astialdikoak ebaluatzeko aplikatu beharreko adierazleak.
- Jarraipen-erregistroak egin eta betetzeko jarraibideak.
- Memoriak eta txostenak prestatzeko jarraibideak.
- Astialdi-programetan eta -jardueretan kalitatea kudeatzeko prozedurak.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- Esku-hartze prozesuan ebaluazio-teknikak erabiltzeko interesa izatea.
- Informazioa transmititzeak eta komunikatzeak jarduerak garatzeko zer-nolako garrantzia duten balioestea.

8. lanbide-modulua: Igeriketa-teknikak.

Kodea: 1336.
Kurtsoa: 1
Iraupena: 99 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Ur-ingurunean jarduera ludikoak prestatzen ditu, oinarrizko trebetasun eta abileziak segurtasun-baldintzetan konbinatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ur-ingurunean oinarrizko trebetasun eta abilezia motorrak garatzeko egin beharreko egokitzapenak justifikatu ditu.
b) Uretako jarduera ludikoak lotu ditu jarduera horietan garatzen diren trebetasun motorrekin.
c) Materialak jardueren jolas-izaeraren arabera esleitu ditu.
d) Orientazio espazialaren kontrola erakutsi du murgiltzeetan, lekualdatzeetan, biraketetan eta objektuen erabileran, aldaerak konbinatuta.
e) Trebetasunak gauzatzean, ur-inguruneko arnasketa eta apnea-aldiak koordinatu ditu propultsioarekin eta flotazioarekin.
f) Segurtasun-irizpideak erabili ditu jarduerak hautatu eta egitean eta espazioa eta materialak erabiltzean.

Eduki-multzoa: Uretako jarduera ludikoak prestatzea.

– Materialak jardueren arabera esleitzea.
- Orientazio espaziala kontrolatzea, trebetasunak landu bitartean.
- Ur-ingurunean arnasketa koordinatzea.
- Segurtasun-irizpideak aplikatzea jarduerak hautatu eta egitean eta espazioa eta materialak erabiltzean.
- Oinarrizko trebetasunak eta abileziak.
- Ur-ingurunera ohitzea eta egokitzea.

- Funtsezko printzipio pedagogikoak:

• Arnasketa.
• Flotazioa.
• Propultsioa.

- Arnasketak, apneak eta arnasketa dinamikoak:

• Arnasketa ur-ingurunera egokitzea.
• Arnasketa propultsio-mugimenduetara egokitzea. Arnasketa-erritmoak.

- Flotazioa:

• Flotazio partzialak eta globalak, elementu lagungarriak baliatuta.
• Flotazio lagundua.
• Flotazioak eta arnasketa-erritmoak; arnasa hartzeko eta arnasa botatzeko bolumenaren eta apnearen bariazioak.
• Flotazioa, jarrera segmentarioak eta horizontaltasunarekiko egoera.

– Propultsioa:

• Propultsio segmentarioak edo partzialak (material osagarriarekin eta gabe).
• Propultsio osoak edo globalak (material osagarriarekin eta gabe).
• Elementu propultsatzaileen disoziazioa eta koordinazioa. Gainazal propultsatzaileen konbinazioa.

- Ur-ingurunean jolas-fasea garatzeko jolas, ataza eta jarduera ludiko egokiak. Ur-ingurunera egokitzea.
- Lekualdatzeak:

• Lekualdatzeak, noranzkoa eta norabidea aldatuta.
• Kirol-tekniketan oinarritutako lekualdatzeak.

- Uretan sartzea:
• Zutik, buruz, belauniko eta beste.
• Jauzi eginda eta egin gabe.
• Material osagarriarekin eta gabe.
• Beste trebetasun batzuekin konbinatuta.

- Uretan birak egitea:

• Biraketa-ardatzak.
• Birak desplazamenduekin eta sakontasun-mailekin lotzea.

- Botatzea eta hartzea: Distantzia eta doitasuna.
- Orekak:

• Dortsalak – Ahoz beherakoak – Bertikalak.
• Azaleran eta urpean.

- Jarrera proaktiboa izatea jardueretan erabiltzen den materiala kokatzean eta biltzean.
- Sormena jolas-jardueren diseinuan.
- Planteatutako jarduerekin identifikatzea, eta haietan integratzea.

IE: 2. Crawl-estiloa menderatzen du, posizioa, ekintza tekniko propultsatzaileak eta orekatzaileak eta arnasketa koordinatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak crawl-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea justifikatu du.
b) Crawl-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren exekuzio praktikoan aplikatu ditu eraginkortasun eta exijentzia teknikoaren ikuspegitik.
c) Arnasketaren dinamika igeriketa-intentsitatera egokitu du.
d) Biraketa espezifikoa crawleko igeriketa-ekintza etengabean integratu du.
e) Segurtasun- eta efizientzia-irizpideak erabili ditu crawleko irteera egitean.

Eduki-multzoa: Igeriketako crawl-estiloa menderatzea.

– Crawl-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren exekuzio praktikoan aplikatzea.
- Arnasketaren dinamika igeriketaren intentsitatera egokitzea.
- Biraketa espezifikoa crawleko igeriketa-ekintza etengabean integratzea.
- Segurtasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatzea crawleko irteera egitean.
- Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak crawl-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea.
- Crawl-estiloa, teknika, asimilazio-ariketak eta exekuzio praktikoa:

• Gorputz-jarrera.
• Besoen mugimendua.
• Zangoen mugimendua.
• Arnasketa.
• Koordinazioa.
• Banakako teknika ebaluatzeko moduak.
• Ariketa zuzentzaileak.

- Crawleko biraketa. Biraketa-ardatzak.
- Bira egiteko faseak, aplikazio-ariketak eta exekuzio teknikoa.
- Crawleko irteerak.
- Teknika eta akatsak ezagutzeko interesa izatea.
- Crawl-estiloan igeriketa-gaitasuna hobetzeko jarrera izatea.
- Emaitzak lortzeko egindako ahalegina ezagutzeko interesa izatea.

IE: 3. Bizkar-estiloko igeriketa menderatzen du, jarrera, ekintza tekniko propultsatzaileak eta orekatzaileak eta arnasketa koordinatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak bizkar-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea justifikatu du.
b) Bizkar-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren exekuzio praktikoan aplikatu ditu eraginkortasun eta exijentzia teknikoaren ikuspegitik.
c) Biraketa espezifikoa bizkar-igeriketa etengabearen ekintzan integratu du.
d) Bizkar-estilorako jarrera hidrodinamiko espezifikoa hartu du.
e) Segurtasun- eta efizientzia-irizpideak erabili ditu bizkarreko irteera egitean.

Eduki-multzoa: Igeriketako bizkar-estiloa menderatzea.

– Bizkar-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren exekuzio praktikoan aplikatzea eraginkortasun eta exijentzia teknikoaren ikuspegitik.
- Biraketa espezifikoa bizkar-igeriketa etengabearen ekintzan integratzea.

- Bizkar-estilorako jarrera hidrodinamiko espezifikoa hartzea.
- Segurtasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatzea bizkarreko irteera egitean.
- Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak bizkar-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea.
- Bizkar-estiloa, teknika, asimilazio-ariketak eta exekuzio praktikoa:

• Gorputz-jarrera.
• Besoen mugimendua.
• Zangoen mugimendua.
• Arnasketa.
• Koordinazioa.
• Banakako teknika ebaluatzeko moduak.
• Ariketa zuzentzaileak.

- Bizkar-biraketa. Biraketa-ardatzak.
- Bira egiteko faseak, aplikazio-ariketak eta exekuzio praktikoa.
- Bizkarreko irteera.
– Teknika eta akatsak ezagutzeko interesa izatea.
- Crawl-estiloan igeriketa-gaitasuna hobetzeko jarrera izatea.
- Emaitzak lortzeko egindako ahalegina ezagutzeko interesa izatea.

IE: 4. Bular-estiloa menderatzen du, posizioa, ekintza tekniko propultsatzaileak eta arnasketa koordinatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak bular-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea justifikatu du.
b) Arnasketa-faseak zangokada- eta besakada-faseetara egokitu ditu.
c) Bular-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren exekuzio praktikoan aplikatu ditu eraginkortasun eta exijentzia teknikoaren ikuspegitik.
d) Biraketa espezifikoa bular-igeriketa etengabearen ekintzan integratu du.
e) Bular-estiloko lekualdatze-posizio hidrodinamiko espezifikoa hartu du.
f) Bular-estiloa apnea-egoeretara egokitu du urpeko lekualdatzeetan.
g) Segurtasun- eta efizientzia-irizpideak erabili ditu bular-estiloko irteera egitean.

Eduki-multzoa: Igeriketako bular-estiloa menderatzea.

– Bular-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren exekuzio praktikoan aplikatzea eraginkortasun eta exijentzia teknikoaren ikuspegitik.
- Biraketa espezifikoa bular-igeriketa etengabearen ekintzan integratzea.
- Bular-estilorako jarrera hidrodinamiko espezifikoa hartzea.
- Segurtasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatzea bular-estiloko irteera egitean.
- Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak bular-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea.
- Bular-estiloa, teknika, asimilazio-ariketak eta exekuzio praktikoa:

• Gorputz-jarrera.
• Besoen mugimendua.
• Zangoen mugimendua.
• Arnasketa.
• Koordinazioa.
• Banakako teknika ebaluatzeko moduak.
• Ariketa zuzentzaileak.

- Bular-estiloko biraketa. Biraketa-ardatzak. Urpeko besakada. Biraketa igeriketa etengabearekin koordinatzeko jarraibideak. Ariketak.
- Bira egiteko faseak, aplikazio-ariketak eta exekuzio praktikoa.
- Bular-estiloko irteera.
- Urpeko igeriketa.
- Teknika eta akatsak ezagutzeko interesa izatea.
- Bular-estiloan igeriketa-gaitasuna hobetzeko jarrera izatea.
- Emaitzak lortzeko egindako ahalegina ezagutzeko interesa izatea.

IE: 5. Igeriketako tximeleta-estiloaren oinarrizko koordinazioa egiten du, ekintza segmentarioak mugimendu ondulatorioan txertatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak tximeleta-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea justifikatu du.
b) Tximeleta-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren oinarrizko exekuzio praktikoan aplikatu ditu.
c) Ibilbide ondulatorioa deskribatzen duen gorputz-mugimendu globala egin du.
d) Besoen eta zangoen mugimenduetako faseak exekutatu ditu, propultsioari, prestaketari eta besoak itzultzeko mugimenduari lagunduta.
e) Besoak-arnasketa, besoak-zangoak eta zangoak-arnasketa faktoreen arteko koordinazioa bete du.
f) 25 metro igeri egin du, tximeleta-estiloko besakadak eta zangokadak koordinatuz.

Eduki-multzoa: Tximeleta-estiloa koordinatzea.

– Tximeleta-estiloaren oinarri teknikoak estilo horren oinarrizko exekuzio praktikoan aplikatzea.
- Tximeleta-estiloaren gorputz-mugimendu globala egitea.
- Besoen eta zangoen mugimenduen faseak exekutatzea, propultsioari, prestaketari eta besoak itzultzeko mugimenduari lagunduz.
- Besoak-arnasketa, besoak-hankak eta hankak-arnasketa faktoreen arteko koordinazioa betetzea.
- 25 metro igeri egitea, tximeleta-estiloko besakadak eta zangokadak koordinatuz.
- Uretan aurrera egiteko printzipio orokorrak tximeleta-estiloa exekutatzeko teknikan aplikatzea.
- Tximeleta-estiloa, teknika, asimilazio-ariketak eta exekuzio praktikoa:

• Gorputz-jarrera.
• Besoen mugimendua.
• Zangoen mugimendua.
• Arnasketa.
• Koordinazioa.
• Banakako teknika ebaluatzeko moduak.
• Ariketa zuzentzaileak.

- Teknika berriak ikastearen aldeko jarrera izatea.
- Tximeleta-estiloan nolabaiteko igeriketa-gaitasuna garatzeko jarrera izatea.
- Emaitzak lortzeko egindako ahalegina ezagutzea.
- Ebaluazioa eta autoebaluazioa balioestea, hobekuntza-estrategia gisa.

IE: 6. Igeriketa-estiloak menderatzen ditu, efizientzia- eta abiadura-irizpideak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) 200 m igeri egin du, crawl-estiloan, gelditu gabe, 4 minutu eta 15 segundo baino gutxiagoan.
b) 200 m igeri egin du, bizkar-estiloan, gelditu gabe, 5 minutu baino gutxiagoan.
c) 200 m igeri egin du, bular-estiloan, gelditu gabe, 5 minutu baino gutxiagoan.
d) 50 m igeri egin du, crawl-estiloan, gelditu gabe, 50 segundo baino gutxiagoan.
e) 50 m igeri egin du, bizkar-estiloan, gelditu gabe, minutu bat baino gutxiagoan.
f) 50 m igeri egin du, bular-estiloan, gelditu gabe, minutu bat baino gutxiagoan.
g) Urpeko igerian 15 m egin du, apnean.

Eduki-multzoa: Efizientzia eta abiadura crawl-, bizkar- eta bular-estiloan.

– Crawl-estiloan abiadura eta erresistentzia garatzea.
- Bizkar-estiloan abiadura eta erresistentzia garatzea.
- Bular-estiloan abiadura eta erresistentzia garatzea.
- Urpean igeri egitea apnean.
- Crawl-estiloan abiadura garatzeko teknikak eta ariketak.
- Bizkar-estiloan abiadura garatzeko teknikak eta ariketak.
- Bular-estiloan abiadura garatzeko teknikak eta ariketak.
- Crawl-estiloan erresistentzia garatzeko teknikak eta ariketak.
- Bizkar-estiloan erresistentzia garatzeko teknikak eta ariketak.
- Bular-estiloan erresistentzia garatzeko teknikak eta ariketak.
- Urpean, apnean igeri egiteko gaitasuna garatzeko teknikak eta ariketak.
- Helburuak lortzeko norberak egindako ahalegina ezagutzea.
- Igeri egiteko gaitasuna hobetzeko jarrera positiboa izatea.
- Uretan murgilduta aurrera egiteko norberak duen gaitasunean jarrera positiboa eta konfiantza izatea.
- Igeriketa-abiadura hobetzeko jarrera positiboa izatea.

9. lanbide-modulua: Sorospena natura-ingurunean.

Kodea: 1337.
Kurtsoa: 2
Iraupena: 168 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du, arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta behar den laguntza mota aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eremua segurtatzeko modua eta istripua izan duen pertsonarengana heltzeko egin behar diren maniobrak justifikatu ditu, heltzeko modu onena proposatuta eta egon daitezkeen arriskuak identifikatuta.
b) Protokoloaren araberako jardun-jarraibideak bete ditu, istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa egiteko.
c) Bizi-arriskuko egoerak baloratu ditu eta haiek eragiten dituzten jarduketak definitu ditu.
d) Bereizi du zer kasutan edo egoeratan ez den esku hartu behar, eta lehen esku-hartzaileak zer teknika ez dituen erabili behar modu autonomoan.

e) Istripua izan duten pertsonak manipulatzean norbera babesteko erabili beharreko teknikak aplikatu ditu.
f) Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia eta produktuen eta sendagaien jarraibideak aztertu ditu.
g) Jarduteko lehentasunak zehaztu ditu, lesioen larritasunaren eta tipologiaren arabera, eta aplikatu behar diren lehen laguntzetako teknikak aintzat hartuta.
h) Istripu-, larrialdi- eta dolu-egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.

Eduki-multzoa: Istripuetako laguntzaren hasierako balorazioa.

– Egon daitezkeen arriskuak, esku-hartze motak eta esku hartzeko behar diren baliabideak baloratzea.
- Esku hartzeko eremuko segurtasuna bermatzeko teknikak aplikatzea.
- Norbera babesteko teknikak aplikatzea.
- Informazioa transmititzeko teknika egokiak erabiltzea.
- Istripua izan duen pertsonarengana hurbiltzeko beharrezko diren maniobrak hautatzea.
- Istripua izan duten pertsonekin esku hartzeko lehentasunak hautatzea.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa egiteko protokoloa aplikatzea.
- Jarduteko sekuentzia identifikatzea, protokoloen arabera: ILCOR (Berpizteari buruzko Nazioarteko Koordinazio Batzordea).

– Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala erabiltzea, berrikustea eta egoera onean gordetzea.
- Istripuak eta larrialdiak: motak eta ondorioak.
- Larrialdietarako jardun-protokoloaren faseak: hasierako ebaluazioa, jardunaren plangintza, kokapena eta hara iristeko moduak, arriskuak identifikatzea, eremua babestea eta istripua izan duenarengana iristea.

– Lehen esku-hartzailearen jardunaren helburuak eta mugak. BAL jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta laguntza-sistemak).
- Eremuaren balorazioa egiteko eta eremua babesteko sistemak. Justifikazioa.
- Jarduteko sistematika: konorte-mailaren balorazioa, bizi-konstanteak neurtzea, aireztapena egiaztatzea, eta pertsonen bizi-arriskuko sintomekiko jarduna (helduak, haurrak eta edoskitzaileak).
- Istripu anizkunetarako jardun-lehentasuna, lesioen larritasuna eta tipologia kontuan hartuta. Triaje sinpleko metodoak. OMEren triaje-proposamena.
- Bizi-arriskuko egoerak: zer jarduketa dakarten berekin.
- Lehen laguntzak ematearen arloko lege-esparrua: Eskumen autonomikoak eta tokikoak. Estatuaren esku-hartzea. Erantzukizun zibil eta penala. Zuhurtziagabekeria. Sorospen-eginbeharra ez betetzea. Lehen laguntzak uretako instalazioetan.
- Jarrerazko alderdiak.

• Etika profesionala.
• Komunikazioa larrialdiko egoeretan.
• Emozioak eta antsietatea kontrolatzea.
- Larrialdi-zerbitzuak:

• Organismo eta erakunde orokorrak eta tokikoak.
• Larrialdi-zerbitzuekiko komunikazioen ezaugarriak.
• Informazio motak eta informazioaren ezaugarriak.

- Istripu-, larrialdi- eta dolu-egoeretan antsietatea sorraraz dezaketen faktoreak.
- Nork bere burua babesteko neurriak eta segurtasun-neurriak, istripua izan duten pertsonekin esku hartzean eta haiek manipulatzean. Neurriak eta ekipamenduak.
- Lehen laguntzetako botikina: Oinarrizko sendagaiak, instrumentuak eta sendaketak egiteko materiala. Egoera onean gordetzeko eta ondo erabiltzeko arauak.
- Konfiantza, lasaitasuna eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean.
- Jardunaren mugez jabetzea, eta hura protokoloetara eta gomendioetara egokitzea.

IE: 2. Bizi-euskarriko eta lehen laguntzetako teknikak aplikatzen ditu, ezarritako protokoloen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aire-bideko buxadura kentzeko teknikak aplikatu ditu.
b) Bizi-euskarriko teknikak aplikatu ditu, ezarritako protokoloaren arabera.
c) Bihotz-biriketako bizkortzerako oinarrizko teknikak eta teknika instrumentalak aplikatu ditu manikietan, oxigenoterapiako ekipoa eta desfibriladore automatikoa ere erabilita.
d) Lesio, patologia edo traumatismo esanguratsuenen kausak, sintomak, jardun-jarraibideak eta prebentzio-alderdiak adierazi ditu, jardueraren ingurunea kontuan hartuta.
e) Eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek eragindako larrialdiko patologia organikoen eta lesioen simulazioetan lehen laguntzak aplikatu ditu.
f) Istripua ustez izan duen pertsonarekin eta hari lagun egiten diotenekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu, egoera emozional desberdinen arabera.
g) Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko egoera kontrolatzeko teknikak zehaztu ditu.

Eduki-multzoa: Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak eta lehen laguntzetakoak aplikatzea.

– Istripua izan duen pertsonaren bizi-arriskuko egoerak eta bizi-konstanteak eteten ez direla egiaztatzea.
- Gorputz-jarrerarekiko tratamendu egokia aplikatzea.
- Aire-bideetako buxadura kentzeko eta haiei irekita eusteko teknikak aplikatzea konortea duten zein konorterik gabe dauden biktimetan.
- Bihotz-biriketako bizkortzerako teknika instrumentalak nahiz bizi-euskarriko teknikak aplikatzea manikietan.
- Oxigenoterapiako ekipoa eta desfibriladore automatikoa edo erdiautomatikoa erabiltzea.
- Eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek eragindako larrialdiko patologia organikoen eta lesioen simulazioetan lehen laguntzak aplikatzea.
- Identifikazio, balorazio eta jardun simulatua, egoera hauen aurrean: zauriak eta odoljarioak; konortea galtzea dakarten edo ez dakarten traumatismoak, eta konbultsio-krisia:

• Zauriak eta odoljarioak: garbiketa, apposituak eta bendajeak jartzea. Immobilizatzeko bendajeak jartzea.
• Traumatismoa, konorte-galerarekin eta konortea galdu gabe.
• Konbultsio-krisia.

- Hasierako arreta eskaintzea larrialdi ohikoenetan. Esku-hartzeko jarraibideak lehen laguntzak aplikatzean: lehentasunak eta teknikak. Esku hartu behar ez denerako jarraibideak.
- Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak. Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko egoerak kontrolatzeko jarraibideak.
- Aire-bidea irekitzeko eta handik oztopoak kentzeko teknikak konortea duten zein konorterik gabe dauden biktimetan. Protokoloa.
- Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortzerako oinarriak (RCBP). Metodoak eta oinarrizko teknikak. Biriketako eta bihotz-biriketako geldialdiari aurre egitea. Pertsona helduekin, emakume haurdunekin, bularreko haurrekin eta umeekin aplikatu beharreko protokoloak. Tresneria. Egoera desberdinak.
- Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE).

• Aparatu motak, haien autonomiaren arabera.
• Erabiltzeko argibideak. Teknikak.
• Ekipamenduen funtzionamendua eta mantentzea.
• Egoera bereziak. Informazio-prozedura. Legeria eta ziurtapena.
• Araudia eta legeria.

– Aireztatze-laguntzako eta oxigenoterapiako osagarriak: Guedel-en hodiak, anbua edo intsuflazio-baloia, oxigenoterapiako maletina, jariakin-xurgagailu elektrikoa.

- Istripua izan duenaren lehen eta bigarren mailako balorazioa egiteko protokoloa. Lesioak, gaixotasunak eta traumatismoak detektatzea. Kausak, sintomak eta zeinuak: kontzientziaren alterazioak, sukarra, gorakoak eta beherakoa, zorabialdiak, lipotimiak, sinkopeak, shocka, abdomeneko mina eta *vientre en tabla* delakoa, toraxeko mina.

- Lesio motak. Sailkapena, kausak, sintomak eta zeinuak, eta oinarrizko tratamendua: odoljarioak, zauriak, erredurak, istripu elektrikoak, uretako istripuak, eta traumatismoak.

- Honako egoera hauetan jardutea:

• Zauriak eta odoljarioak: garbiketa, aposituak eta bendajeak jartzea. Immobilizatzeko bendajeak jartzea.

• Traumatismoa, konorte-galerarekin eta konortea galdu gabe.

• Konbultsio-krisia.

- Bestelako larrialdi-egoerak: nahasmendu zirkulatorioak, intoxikazioak, krisi anafilaktikoak, epilepsia eta konbultsio-koadroak, deshidratazioa, gorputz arrotzak (azalean, begietan, belarrietan eta sudurrean), traumatismo txikiak, ama eta haurren larrialdiak, zirkulazio-istripuak, etxeko istripuak, beroak eta hotzak eragindako lesioak, ziztadak. Presio-aldaketek eragindako nahasmenduak.

- Ur-inguruneko istripuetan, ospitale aurreko esku-hartze protokoloa: esku hartzea itotze-mailaren arabera, esku hartzea bizkarrezur-muineko lesioa dutenekin.

- Bendajeak eta aposituak: erabiltzeko jarraibideak, tipologia eta aplikatzeko teknikak. Immobilizatzeko bendajeak jartzea zenbait giltzaduratan.

- Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.

- Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.

- Lasaitasuna ez galtzea jardueran.

- Konfiantza eta segurtasuna izatea jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean.

IE: 3. Istripua izan duen pertsona ebakuatzea ahalbidetzen duten mobilizatze- eta immobilizatze-metodoak aplikatzen ditu, ezarritako protokoloen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jardun osoan autokontrola izateak eta istripua izan duenari konfiantza eta baikortasuna emateak duten garrantzia baloratu du.

b) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.

c) Istripua izan duen pertsona baten erreskatea egiteko oinarrizko metodoak identifikatu eta aplikatu ditu.

d) Immobilizatze-metodoak aplikatu ditu, istripua ustez izan duen pertsona lekualdatzeko.

e) Gaixorik dauden pertsonak edo istripua izan dutenak immobilizatzeko eta garraiatzeko ohatilak eta sistemak prestatu ditu, material arruntak, berariazkoak ez direnak edo halabeharrezko baliabideak erabiliz.

Eduki-multzoa: Istripua izan duten pertsonak jaso, lekualdatu eta garraiatzea.

– Laguntza ematean huts egin izana psikologikoki gainditzeko teknikak aplikatzea.

- Istripua izan duen pertsona erreskatatzeko oinarrizko metodoak aplikatzea.

- Immobilizatze-metodoak aplikatzea, istripua ustez izan duen pertsona lekualdatzeko.

- Gaixorik dauden pertsonak edo istripua izan dutenak immobilizatzeko eta garraiatzeko ohatilak eta sistemak prestatzea.

- Biktimak jaso, lekualdatu eta garraiatzeko lehentasunak hautatzea.

- Bat-batean gaixotu den edo istripua izan duen pertsona bat garraiatu beharra ote dagoen ebaluatzeko eta lesioak dituen pertsona bat jasotzeko jarraibideak.

- Mobilizatzeko eta immobilizatzeko metodo egokienak, patologiaren arabera.

- Istripua izan duten pertsonak lekualdatzeko jarraitu beharreko irizpideak.
- Istripua izan duten pertsonak osasun-zentroetara garraiatzea. Garraiatzeko gorputz-jarrera seguruak.
- Larrialdi kolektiboak eta hondamendiak.
- Istripua izan duten pertsonentzako eta haien senideentzako laguntza psikologikoko teknikak:

• Komunikazioa krisi-egoeretan.
• Krisi-egoeretarako gizarte-trebetasunak.
• Laguntza psikologikoa emateko eta autokontrolerako teknikak, estres-egoeretarako: defentsa-mekanismoak.

- Lasaitasuna ez galtzea jardueran.
- Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazioarekiko tolerantzia.
- Jardunaren mugez jabetzea, eta hura protokoloetara eta gomendioetara egokitzea.

IE: 4. Autoentrenamendu-programak garatzen ditu, haien parametroak eta neurri osagarriak gidariaren eta soroslearen betekizun fisikoekin eta teknikoekin lotuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Natura-ingurunean ibilbide mota desberdinak egiteko behar diren teknika espezifikoak eta baldintzazko gaitasunak ebaluatu ditu.
b) Lehorrean eta uretan erreskateak egiteko behar diren teknika espezifikoak eta baldintzazko gaitasunak baloratu ditu.
c) Natura-ingurunean ibilbide mota desberdinak egiteko behar diren teknika espezifikoak eta baldintzazko gaitasunak lantzeko autoentrenamendu-plan bat prestatu du.
d) Lehorrean eta uretan erreskate-maniobrak egiteko behar diren teknika espezifikoak eta baldintzazko gaitasunak lantzeko autoentrenamendu-plan bat prestatu du.
e) Entrenamendu-programa baten eraginkortasuna hobetzeko behar diren neurri osagarriak argumentu ditu.
f) Mota, intentsitate eta iraupen desberdineko ibilbideak egiteko elikagai- eta hidratazio-kantitateak kalkulatu ditu.
g) Esfortzu fisikoaren ostean errekuperazioa errazten duten teknikak aplikatu ditu.
h) Errekuperatzeko masajearen oinarrizko maniobrak egin ditu.

Eduki-multzoa: Autoentrenamendu-programak garatzea.

– Teknika espezifikoak eta baldintzazko gaitasunak lantzeko entrenamendua planifikatzea.
- Esfortzu fisikoaren ostean errekuperazioa errazten duten teknikak aplikatzea.
- Mota, intentsitate eta iraupen desberdineko ibilbideak egiteko elikagai- eta hidratazio-kantitateak kalkulatzea.
- Natura-ingurunean ibilbideak egiteko behar diren baldintzazko gaitasunak, koordinaziokoak eta teknikoak: oinez, bizikletaz, zaldiz eta ontziz.
- Lehorrean eta uretan erreskateak egiteko behar diren baldintzazko gaitasunak, koordinaziokoak eta teknikoak.
- Natura-ingurunean jarduera fisikoak gidatzeko egoera fisikoa eta teknikoa lantzeko entrenamendu-programa espezifikoak.
- Salbamendurako eta sorospenerako egoera fisikoa lantzeko entrenamendu-programa espezifikoak.

– Banakoen egoera fisikoa hobetzeko neurri osagarriak eta errekuperazio-sistemak:

• Esfortzu fisikoa errekuperatzeko neurriak: masaje-teknikak eta antzekoak.

- Elikadura eta nutrizioa:

• Kaloria- eta hidratazio-premiak, eta ariketa fisikoa. Balantzeak. Ariketa fisikoa egin aurretik, bitartean eta ondoren behar den elikagai- eta hidratazio-ekarpena.
• Dieta orekatua, RDA gomendioak, dieta mediterraneoa.

- Egoera fisikoko eta motorreko maila desberdinak daudela ohartzea.
- Ingurune hurbilak egokitzapen fisikoko jarduerak egiteko eskaintzen dituen baliabideak ezagutzeko eta erabiltzeko interesa izatea.

IE: 5. Ur-ingurune naturaletako bainu-eremua ikuskatu eta zaintzen du, eta erreskaterako baliabide materialak egokitzen ditu, arrisku-faktoreak eta jardun-protokoloak aztertuz.

a) Ur-ingurune naturaletako bainu-eremu publikoek eta zaintza-eremuek bete behar dituzten ezaugarriak eta baldintzak egiaztatzeko prozedurak aplikatu ditu.
b) Soroslearen jarrera, gaitasuna eta eginkizunak eta segurtasunean eta arriskuen prebentzioan duen ardura aztertu ditu.
c) Ur-ingurune naturaletan erabilitako salbamendu- eta sorospen-materialen funtzionalitatea eta segurtasuna egiaztatu du.
d) Ur-ingurune naturaletan erabili beharreko komunikazio-sistema espezifikoen egokitzapenak egiaztatu ditu, bai eta haien mantenimendua ere.
e) Bere ardurapeko arloari dagokion segurtasuneko eta arriskuak prebenitzeko protokoloa bete du.
f) Bainu publikoko eremuetan gertatutako istripuei eta itotako biktimei buruzko datuak baloratu ditu, eta haien kausak aztertu ditu.
g) Ur-ingurune baten erabiltzaileek izan ditzaketen portaera arriskutsuei aurre egiteko jardute-protokoloak bete ditu.
h) Bainu-eremuko ingurumen-baldintzak, ur-ingurunearen baldintza naturalak eta fauna eta flora aztertzeko protokoloak aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Ur-ingurune natural bateko bainu-eremua ikuskatzea eta zaintzea.

– Ur-ingurune naturaletako bainu-eremu publikoek eta zaintza-eremuek bete behar dituzten ezaugarriak eta baldintzak egiaztatzea.
- Bere ardura-arloan, natura-ingurune erlatiboan uretako sorospena kudeatu eta antolatzea.
- Komunikazio-sistema espezifikoen funtzionamendua eta mantentze-lanen betetzea egiaztatzea.
- Bere ardurapeko arloari dagokion segurtasuneko eta arriskuak prebenitzeko protokoloaren jarraipena egitea.
- Ur-ingurune baten erabiltzaileek izan ditzaketen portaera arriskutsuei aurre egiteko jardun-protokoloen jarraipena egitea.
- Ur-ingurune naturaletan erabilitako salbamendu- eta sorospen-materialen funtzionalitatea eta segurtasuna egiaztatzea.
- Istripuei buruzko datuak biltzea, eta kasuak aztertzea.

– Sorosle-postua edo lehen mailako arretakoa egiaztatzea, bai eta haren baliabide materialak eta janzkera egokia ere.
- Ingurune motak eta ezaugarriak: itsasoko eta ibaiko hondartzak, urtegiak, aintzirak, ibaiak eta beste.
- Ur-ingurune naturaletako bainu-eremuei aplikatu beharreko araudiak.
- Ur-ingurune naturaletako arrisku-faktoreak eta horiek kontrolatzeko prebentzio-neurriak eta neurri informatiboak:

• Fauna eta flora arriskutsuak. Eremu debekatuak mugarritzeko jarraibideak.
• Faktore atmosferikoak. Erabiltzaileei ohartarazpenak egiteko sinbologia.
• Ur-inguruneko faktoreak.
• Erabiltzaileentzako eta sorospen-baliabideetarako irisgarritasuna.
• Giza faktoreak: erabiltzaileen arrisku-jokabideak, jendetza bertaratzea, jarduerak aldi berean garatzea.

- Zenbait espaziotan (itsasoko eta ibaiko hondartzak, urtegiak, aintzirak eta ibaiak) ur-sorospena kudeatzeko eta antolatzeko ereduak.
- Uretako istripuak eraginkortasunez prebenitzeko giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Ur-ingurune naturaletako sorosleareen ardurak.
- Gaixotasun profesionalak, laneko arriskuak eta arriskuen prebentzioa.
- Uretako salbamendurako materialak: komunikaziokoak, biktimarengana iristekoak, harekin harremanetan jartzekoak, babestekoak, eta biktima uretatik ateratzeko eta ebakuatzekoak. Ur-ingurune naturaletarako salbamenduko eta sorospeneko material osagarria.
- Mantentze-lan espezifikoa egiteko eta biltegiratzeko teknikak, natura-ingurunean erabiltzekoak.
- Ur-ingurune naturaletan zaintza eraginkorra egiteko irizpideak.
- Ur-ingurune naturaleko arriskuak gainbegiratzeko protokoloa. Gainbegiratu beharreko elementuak, hurrenkera eta maiztasuna.
- Jardute- eta ebakuazio-protokoloak, egoera hauetarako: larrialdiak, hondamendiak, kutsadura edo fauna arriskutsuaren inbasioa.
- Desgaitasuna duten pertsonen artean zabaltzeko eta aplikatzeko egokitzapenak. Eskuragarri izan beharreko baliabideak.
- Bainu-eremuetako istripuak. Prebenitzeko eta informazioa emateko teknikak.
- Erabiltzaileek izan ditzaketen jokabide arriskutsuei aurre egiteko jardun-protokoloak. Erabiltzaileekin komunikatzeko teknikak.
- Informazioa arduraz erabili eta zabaltzea.
- Hobetu daitezkeen prozesuaren aldeekiko jarrera kritikoa izatea.
- Materialak, instalazioak eta ekipamenduak zorroztasunez hautatzea eta antolatzea.
- Ur-ingurune naturalean segurtasun-neurriak eta arauak zorroztasunez aplikatzea.

IE: 6. Ur-ingurunean erreskate-teknika espezifikoak aplikatzen ditu, istripu-ingurune edo larrialdi-egoera simulatuetan salbamenduko eta erreskateko protokoloak betez.

a) Agindutako funtzioak bete ditu, ur-ingurunean istripua izan duten pertsonak erreskatatzeko simulakroetan.
b) Esku-hartzea eta maniobrak egitea erabaki du, kontuan izanda ustez istripua izan duen pertsonaren, gainerako erabiltzaileen, ingurunearen eta norberaren egoera.
c) Zer material erabili hautatu du, ur-ingurune naturalean istripua izan duen pertsona ebakuatzeko bideak eta esku-hartze mota aintzat hartuta.
d) Esku hartzeko teknikak erakutsi ditu, honako hauei dagokienez: uretan sartzea, manikira hurreratzea, kontrolatzea, atoian eramatea eta istripua izan duen pertsona konortearekin edo gabe uretatik ateratzea, materialarekin edo gabe.
e) Ur-ingurunean igeri egiteko teknikak exekutatu ditu, inguruneko egoerara egokituta.
f) Jarraitu beharreko arauak deskribatu ditu, eta istripua izan duen pertsona, konortearekin eta itobeharrean dagoela, askatzeko teknikak erakutsi ditu.
g) Honako teknika hauek egin ditu, segurtasunez eta eraginkortasunez:

- Uretan sartzea, uraren ezaugarrien, irisgarritasunaren eta hurbiltasunaren arabera.
- Istripua izan duen pertsonarengana hurbiltzeko igeriketa-teknikak.
- 300 m igeri egitea, estilo librean, galtzak eta elastikoa jantzita, gehienez zortzi minutuko denboran.
- Uretan flotatzen egotea, besoak altxatuta, ukondoak uraren gainazaletik gora izanda, lekutik mugitu gabe.
- Biktimari eusteko eta hura atoian eramateko teknikak, haren arnasbideak uretatik kanpo izanda.
- Uretara buruz botatzea, berrogeita hamar metro baino gehiago igeri egitea, estilo librean, eta gutxienez bi metroko sakonerara arte murgiltzea, lehiaketa-maniki bat hartzeko eta berrogeita hamar metro atoian eramateko, ondo lotuta; hori guztia gehienez 3 minutu eta 30 segundoko denboran egitea.

- Ustez istripua izan duena 100 metro atoian eramatea, hegalik gabe, lau teknika desberdin eginez; hori guztia, 4 minutuko denboran, gehienez.
- Istripua izan duen pertsona bat, flotagarritasun eta pisu ertainekoa, 100 metro atoian eramatea, hegalekin, teknika libre bakar bat erabiliz, 3 minutu eta 45 segundoko denboran, gehienez.
- Ustez istripua izan duen pertsona bat, konortearekin edo gabe, eta bizkarrezur-muinean kalterik ez duena, uretatik ateratzea, protokoloak betez eta dagokion teknika behar bezala aplikatuz, 100 metro atoian eraman ondoren.
- Ikaskide bat bizkarrezur-muina kaltetuta duen biktima bat delako simulazio batean, ikaskide hori uretatik ateratzea, material egokia erabiliz, bizpahiru sorosleren talde bat antolatuz, protokoloekin bat, eta teknikak behar bezala aplikatuz.

Eduki-multzoa: Ur-ingurunean erreskate-teknika espezifikoak aplikatzea.

– Soroslearen jardun-protokoloa edo -prozedura interpretatzea eta betetzea zenbait egoeratan.
- Egin behar den esku-hartzea zehaztea, ustez istripua izan duen pertsonaren, gainerako erabiltzaileen eta ingurunearen egoeraren arabera, eta norberaren baldintzen arabera.
- Material egokiak erabiltzea jardun-prozedurako fase guztietan.
- Egindako suposizio bakoitzaren ebaluazioa egitea. Hobekuntza-proposamenak definitzea.
- Honako teknika hauek aplikatzea, eta abiadura garatzea teknika horiek gauzatzean:

• Uretan sartzea, uraren ezaugarrien, irisgarritasunaren eta hurbiltasunaren arabera.
• Istripua izan duen pertsonarengana hurbiltzeko igeriketa-teknikak.
• 300 m igeri egitea, estilo librean, eta galtzak eta elastikoa jantzita.
• Uretan flotatzea, besoak altxatuta, ukondoak uraren gainazaletik gora izanda, lekutik mugitu gabe, abilezia hori akreditatzeko behar beste denboraz.
• Biktimari eusteko eta hura atoian eramateko teknikak, haren arnasbideak uretatik kanpo izanda.
• Uretara buruz botatzea, 50 metro baino gehiago igeri egitea, estilo librean, eta gutxienez 2 metroko sakoneraraino murgiltzea, lehiaketa-maniki bat hartzeko eta 50 metro atoian eramateko, ondo lotuta.
• Ustez istripua izan duen pertsona 100 metro atoian eramatea, hegalik gabe, eta lau teknika desberdin erabilita.
• Istripua izan duen pertsona bat, flotagarritasun eta pisu ertainekoa, 100 metro atoian eramatea, hegalekin, teknika libre bakar bat erabilita.
• Ustez istripua izan duen pertsona bat, konortearekin edo gabe, eta bizkarrezur-muinean kalterik ez duena, uretatik ateratzea, protokoloak betez eta dagokion teknika behar bezala aplikatuz, 100 metro atoian eraman ondoren.
• Ikaskide bat bizkarrezur-muina kaltetuta duen biktima bat delako simulazio batean, ikaskide hori uretatik ateratzea, material egokia erabiliz, bizpahiru sorosleren talde bat antolatuz, protokoloekin bat, eta teknikak behar bezala aplikatuz.

- Atoian eramateko sistemen eta jardun-protokoloen autoentrenamendu espezifikorako programa diseinatzea.
- Uraren ezaugarriak eta ur-ingurunean arropari eta oinetakoei buruz aintzat hartu beharreko kontsiderazioak:

• Arroparekin egindako flotagailuak inprobisatzea.
• Ur-ingurunean arropa eta oinetakoak eranzteko teknikak.
• Ur-ingurunean lan egiteko arropa eta oinetako espezifiko eta egokiak.
- Uretako erreskate-teknika espezifikoak, eta horiek entrenatzeko jarraibideak:

• Kokatze-teknikak, erreferentzia-puntuak eta egoera aztertzeko teknikak.
• Uretan sartzekoak.
• Biktimarengana hurbiltzekoak.

- Biktimarekin kontaktua egin, hura kontrolatu eta haren balorazioa egitekoak.
- Ur-ingurunean lekualdatzekoak.
- Atoian eramatekoak.
- Biktima traumatikoa uretan maneiatzekoak.
- Uretan berpiztekoak.
- Biktima ateratzekoak.
- Ebakuatzekoak. Beste baliabide batzuekin koordinatzea.
- Uretako erreskaterako materiala erabiltzea.

- Espezifikazioak, erreskatatu beharreko pertsonaren profilaren arabera.
- Erreskatearen fase kritikoko alderdi psikologikoak:

- Itotzen ari dela uste duen pertsonaren portaera. Sorosleareen jarrerak eta erantzuna.
- Egoeraren kudeaketa.

- Istripuetako edo larrialdietako erreskate-egoerei aplikatutako komunikazioa:

- Istripua izan duten biktimekin komunikatzea.
- Erreskatean komunikatzeko trebetasunak: hitzezkoak eta hitzik gabeak. Gizarte-trebetasunak.
- Egoera gatazkatsuetan komunikatzea, erreskateetan eta gatazken konponbidean.

- Protokoloak zorroztasunez aplikatzea.
- Norberaren sasoi fisikoari eusteko konpromisoa.
- Lasaitasuna eta irmotasuna erabiltzaileen aurrean, eta konfiantza transmititzeko interesa.

IE: 7. Ur-ingurunean, ontzietatik erreskate-teknika espezifikoak aplikatzen ditu, istripu-ingurune edo larrialdi-egoera simulatuetan salbamenduko eta erreskateko protokoloak betez.

a) Ontzien ezaugarri orokorrak lotu ditu ur-ingurune naturalean biktima bat erreskatatzeko ezaugarri horiek duten garrantziarekin.
b) Sorosleak ontziko zer tokitan egon behar duen arrazoitu du, ur-ingurune naturaleko larrialdi-egoeretan zaintza-lana egiteko eta esku hartzeko.
c) Erreskate-taldeko gainerako kideekin ontzietatik komunikatzeko eta koordinatzeko prozedurak bete ditu.
d) Ontzitik uretan sartzeko teknikak erakutsi ditu.
e) Istripua izan duen pertsona, konortea duela edo konorterik gabe, eta bizkarrezur-muina kaltetua izanda zein ez, ontzi batetik erreskatatzeko maniobrak erakutsi ditu.
f) Labar batetik gertu istripua izan duen pertsona ontzi batetik edo erreskateko ur-motor batetik erreskatatzeko teknikak aztertu ditu.

Eduki-multzoa: Ur-ingurunean ontzietatik erreskatatzeko teknika espezifikoak aplikatzea.

– Ontziko toki egokian kokatzea, ur-ingurune naturaleko larrialdi-egoeretan zaintza-lana egiteko eta esku hartzeko.
- Erreskate-taldeko gainerako kideekin ontzietatik komunikatzeko eta koordinatzeko prozedurak betetzea.
- Ontzitik uretan sartzeko teknikak erakustea.
- Era guztietako istripuak izan dituzten pertsonak ontzitik erreskatatzeko maniobrak erakustea.
- Erreskaterako ontziak.
- Zer ontzi motordun edo motor nautiko mota bideratu behar den uretako sorospenera, lekua eta zeregina aintzat hartuta.
- Ontzien ezaugarri orokorrak.

- Ontziek nolako eragina duten erreskatean.
- Ontzietatik uretan sartzeko teknikak.
- Ontzi motordunekin erreskatatzeko protokoloak:

• Sorosleak non egon behar duen ontzian.
• Komunikazio-sistemak.
• Istripua izan duen pertsonarengana hurbiltzea.
• Istripua izan duen pertsona erreskatatzea.
• Istripua izan duen pertsona ontzi motordun bidez ateratzea.

- Materialak, instalazioak eta ekipamenduak zorroztasunez hautatzea eta antolatzea.
- Ordena eta metodoa talde-lanean.
- Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean.

10. lanbide-modulua: Ur-ingurune naturaleko gidaritza.

Kodea: 1338.
Kurtsoa: 2.
Iraupena: 147 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

IE: 1. Ur-ingurune naturalean ibilbideak eta jarduerak egiteko ekipamenduak eta baliabideak prestatzen ditu, eta egoera onean daudela eta funtzionalak direla egiaztatzeko prozedurak adierazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilbidearen edo jardueraren nabigagarritasunari, zailtasunari eta aurreikusitako iraupenari buruzko informazioa erkatu du.
b) Ur-ingurune naturaleko ibilbideetan jarduerak prestatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak zehaztu ditu.
c) Ibilbidea edo jarduera egiteko behar diren ontzia eta materiala hautatu ditu.
d) Segurtasun-material pertsonala hautatu du.
e) Nabigatzeko egin behar diren maniobrak zehaztu ditu, eta taldea biltzeko eta atseden hartzeko guneak edo maniobrak finkatu ditu.
f) Ur-ingurune naturaleko ibilbidea garatzean sor daitezkeen arrisku-egoerak prebenitzeko eta konpontzeko beharrezko diren neurriak zehaztu ditu.
g) Uretatik edo lehorretik kontingentziak artatzeko behar diren baliabideak antolatu ditu.
h) Natura-ingurunean jarduerak egitearekin eta ingurumenaren babesarekin lotutako araudia aplikatu du, ur-ingurune naturalean ibilbideak prestatzeko orduan.

Eduki-multzoa: Ur-ingurune naturalean ibilbideak egiteko ekipamenduak eta baliabideak prestatzea.

– Ontziko toki egokian kokatzea, ur-ingurune naturaleko larrialdi-egoeretan zaintza-lana egiteko eta esku hartzeko.
- Erkidegoko ur-ingurune naturalean turismo- eta aisia-ibilbideak eta -jarduerak egiteko dagoen eskaintza aztertzea.
- Ur-ingurune naturalean turismo- eta aisia-ibilbideak eta -jarduerak egiteko oinarrizko betekizunak egiaztatzea.

- Beharrezko baliabide materialak, ekipamenduak, segurtasun-material pertsonala eta giza baliabideak hautatzea.
- Ur-ingurune naturaleko turismo- eta aisia-ibilbideekin eta -jarduerekin lotutako arriskuak baloratzea.
- Arrisku-egoerak prebenitzeko eta konpontzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.
- Uretatik edo lehorretik kontingentziak artatzeko behar diren baliabideak antolatzea.
- Ur-ingurune naturaleko turismo- eta aisia-ibilbideekin eta -jarduerekin lotutako araudia eta erregulazio espezifikoak aplikatzea.
- Ingurumenaren babesarekin lotutako araudia aplikatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ur-ingurune naturaleko turismo- eta aisia-jarduerak. Ur-ingurune naturaleko kirol-hastapeneko jarduerak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ur-ingurune naturalean turismoko eta astialdiko ibilbideak eta jarduera-programak egiteko eskaintzak.
- Programa motak: egun bateko edo hainbateko jarduerak, kirol-ikastaroak, banakakoak, taldekakoak, asteburuak, oporraldiak, zubiak, agurrak, enpresa-pizgarriak, etab.
- Aipamenak, gida-liburuak eta bestelako informazio iturriak.
- Ibilbideen eta jardueren helburuak. Faseak, denbora-estimazioa, tarteen balorazio teknikoa, sarbideak, iraupena eta geldialdiak. Ibilbidea hautatzea. Plan alternatiboak eta jarduera osagarriak, besteak beste.
- Ur-ingurune naturalean turismo- eta aisia-ibilbideak eta -jarduerak egiteko espazioak, baliabideak eta ekipamenduak hautatzea, inguruneko beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera. Esaterako, nautika edo bela, surfa, bodyboard-a, stand up paddle-a, kanoan ibaiak jaistea, piraguak, surf kayaka eta itsas-kayaka, ontzietan paseoak egitea, begiztatzeak, snorkela eta urpekaritza, etab.
- Jardun-eremu seguruak.
- Nolako ezaugarriak izan behar dituzten ur-eremuek, hautatutako ibilbideak edo jarduerak egiteko (nabigagarritasuna, arriskuak, oztopo natural eta artifizialak, olatuak, zailtasun eta arriskuak, ingurumen-inpaktua, sarbideak, etab.).
- Hautatutako turismo- eta aisia-ibilbideak edo -jarduerak ur-ingurune naturalean egiteko baliabideak. Logistika: materialak eta parte-hartzaileak garraiatzea, zerbitzu osagarriak, baliabide materialak.
- Hautatutako jarduеretan erabiltzen diren aisiako ontziak, tresna flotagarriak edo hondartzakoak eta motor nautikoak: motak eta ezaugarriak.
- Hautatutako jardueretako materiala eta aisiako ontziak gordetzea eta garraiatzea.
- Hautatutako jardueretara esleitutako materialak. Ekipamendu pertsonala eta kolektiboa. Nabigazioan laguntzeko eta segurtasun pertsonaleko elementuak. Erabilera-arauak Hainbat egunetako jarduerak egiteko materiala. Jarduera egiten laguntzeko eta segurtasuneko materiala. Zaintzak eta mantentze-lanak.
- Materiala egiaztatzeko metodoak.
- Jarduera osagarriak, plan alternatiboak eta beste. Ibilbidea desgaitasuna duten pertsonei egokitzeko irizpideak.
- Parte-hartzaileei ibilbideari buruz eman beharreko informazioa.
- Jardueraren federazio-aseguruak eta aseguru pribatuak.
- Jarraibide teknikoak eta segurtasunekoak.
- Gorabeheretarako konponbideak. Erreskate- eta sorospen-zerbitzuak. Larrialdi-egoeretarako jokabide-arauak.
- Jarduerari aplikatu beharreko araudia. Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudia. Arro hidrografikoak. Sarbide-baimenak.
- Jardueraren baliabideak eta ekipamenduak zorroztasunez prestatzea.

IE: 2. Ontzia prestatzen du, eta haren elementuak eta osagaiak egoera onean daudela eta funtzionalak direla ziurtatzeko prozedurak adierazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ontzia garraiatu eta ainguratu du, hari kalterik egin gabe, eta segurtasun pertsonaleko irizpideak betez.
b) Ontzia armatu eta desarmatu du, eta atal guztiak egoera onean daudela eta ondo funtzionatzen dutela egiaztatu du.
c) Ontziaren osagaien eta elementuen egoera baloratu du.
d) Ontzien osagaien eta aparailuaren matxurak eta narriadura-maila diagnostikatu ditu.
e) Jarduera segurtasun-baldintzetan egingo dela ziurtatzeko oinarrizko konponketak egin ditu.
f) Garraiatu beharreko parte-hartzaileentzako eta zamarako tokiak antolatu ditu.
g) Ontzia gorde du, hari kalterik egin gabe, eta segurtasun pertsonaleko irizpideak betez.

Eduki-multzoa: Ontziak prestatzea.

– Aisiako ontziak eta/edo tresna flotagarriak edo hondartzakoak garraiatzea eta ainguratzea.
- Aisiako ontzien eta/edo tresna flotagarrien edo hondartzakoen osagaiak eta elementuak egoera onean daudela egiaztatzea.
- Aisiako ontzien edo tresna flotagarrien edo hondartzakoen osagaietan eta elementuetan izandako matxurak eta narriadura-mailak diagnostikatzea.
- Oinarrizko konponketak egitea.
- Garraiatu beharreko parte-hartzaileentzako eta zamarako tokiak antolatzea.
- Erkidegoko ur-ingurune naturalean turismo- eta aisia-jarduerak egiteko hautatutako ibilbideari edo programari esleitutako aisiako ontziak edo tresna flotagarriak edo hondartzakoak.
- Kirol-hastapenaren berezko ontziak.
- Hautatutako jarduerari esleitutako aisiako ontzien edo tresna flotagarrien edo hondartzakoen nabigagarritasun eta maniobragarritasun espezifikoa: pala edo hegal bidezko propultsioa, aparailu finko edo libreko belen bidezkoa, parapente bidezkoa, kiteboarding-aa, surf egitea,…
- Aisiako ontzien eta/edo tresna flotagarrien edo hondartzakoen osagaiak eta elementuak. Ontzi eta tresna horien eta materialen ezaugarriak.
- Aparailuak. Haizeak bultzatutakoak armatzeko eta desarmatzeko prozedurak.
- Hautatutako jarduerari esleitutako aisiako ontzien eta/edo tresna flotagarrien edo hondartzakoen ezaugarriak, alderdi hauek aintzat hartuta: ibilbide edo jarduera mota eta ingurunea edo erabiltzailearen maila.
- Ontzia prestatzeko jarraibideak. Pisuak eta zamak banatzea eta lotzea.
- Aisiako ontziak, tresna flotagarriak edo hondartzakoak mantentzeko lan prebentiborako eta operatiborako protokoloak:

• Zaintza prebentiboak.
• Narriadurak edo matxurak diagnostikatzea.
• Oinarrizko konponketak eta larrialdikoak.

- Hautatutako jardueretan edo ibilbideetan erabilitako aisiako ontziak, tresna flotagarriak edo hondartzakoak biltegiratzea. Azpiegiturak. Teknikak. Materiala babestea eta hari eustea.
- Biltegiratzeko baldintza espezifikoak. Belak, abortza, lema, masta, ezpeleta eta kroskoak zamatzea. Ainguratzeak. Eusteko teknikak. Ontziak sergurtasunez garraiatzea.
- Segurtasun-arauak. ISA International Surfing Association-en segurtasun-jarraibideak.
- Ontziak muntatu eta desmuntatzeko ordena eta segurtasuna.

IE: 3. Nabigazio-teknikak eguraldira eta ingurunearen ezaugarrietara egokitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Nabigatzeko baldintza desberdinetan baliatu beharreko oinarrizko nabigazio-teknikak erakutsi eta azaldu ditu.
b) Nabigazio-norabideari eusteko maniobrak egin ditu, honako hauek aintzat hartuta: haizearen norabidea, emaria, olatuak, korrontea edo tartearen zailtasuna.
c) Ontzia gobernatu du, eta norabidea aldatzeko maniobrak egin ditu.
d) Nabigazio-teknika ezaugarri pertsonaletara eta ingurunearen eta jardueraren ezaugarrietara egokitu du.
e) Ibilbide alternatiboak egin ditu tarte zail eta arriskutsuetan, segurtasun-irizpideei jarraituz.
f) Beste erabiltzaile edo teknikari batzuek erabil ditzaketen ibilbideak erregistratu ditu.

Eduki-multzoa: Nabigazio-teknikak egokitzea.

– Aisiako ontziak eta/edo tresna flotagarriak edo hondartzakoak garraiatzea eta ainguratzea.
- Funtsezko ekintza teknikoak egitea, mota desberdinetako aisiako ontziak eta tresna flotagarriak edo hondartzakoak erabiliz.
- Nabigazio- edo irristadura-norabideari eusteko maniobrak egitea.
- Norabidea aldatzeko behar diren maniobrak egitea.
- Nabigazio- eta irristadura-teknikak ezaugarri pertsonaletara eta ingurunearen eta jardueraren ezaugarrietara egokitzea.
- Nabigazio-tartea eta inguruneko elementu fisikoak aztertzea.
- Ibilbide alternatiboak bilatzea tarte zail eta arriskutsuetan.
- Beste erabiltzaile edo teknikari batzuek erabil ditzaketen ibilbideak dokumentuetan erregistratzea.
- Nabigazio-tartea eta jardun-eremu seguruak.
- Inguruneko elementu fisikoak (euri-dinamika, haizeak, olatuak, korronteak eta beste). Propultsioa eta aurrera egiteko erresistentzia.
- Kirol-hastapeneko funtsezko ekintza teknikoak, ingurunea eta enpresen eskaria aintzat hartuta, besteak beste:

• Pala bidez bultzatutako ontzietarako funtsezko ekintza teknikoak edo kirol-hastapenekoak (palaketa, palada zirkularra, balaztatzea, atzerako palada zirkularra, aurrealdeko kontrola, popako lema, *débordé* paladak eta kontrolak, alboko trakzioak, trakzio orientatua, kontrol-trakzioa, ekintza orekatzaileak eta beste).
• Funtsezko ekintza teknikoak edo kirol-hastapenekoak, bodyboard-eko hegal bidez bultzatutako ontziekin eta bestelakoekin eginak.
• Funtsezko ekintza teknikoak, pedalen bidez mugitzen diren hegalez bultzatutako ontziekin eginak.
• Funtsezko ekintza teknikoak, belaontziekin eginak (tenkatzea, askatzea, abortzatzea, haizeberatzea). Tekniken eta haize-baldintzen arteko lotura.
• Surfeko edo SUPeko funtsezko ekintza teknikoak edo kirol-hastapenekoak (desorekarik gabe arraun egitea, ahateak edo eskimotajea, olatuko oinarrizko maniobra).
• Beste zenbait ekintza tekniko: oreka, propultsioa eta gidatzea. Zailtasuna aintzat hartzea.

- Kirol-hastapeneko funtsezko maniobrak eta ibilbideak aukeratzea honako hauen artean: ingurunean eskaintzen direnak, edo beharrezkoak direnak, aintzat hartuta ingurunea edo enpresen eskaria edo beste zenbait irizpide. Adibidez:

• Pala edo hegal bidez bultzatutako ontziekin egindako maniobrak eta ibilbideak: irteera laburra eta luzea; korrontea hartuta irtetea; norabide-aldaketak; korrontea ezker-eskuin hartzea; laburrak eta luzeak; ezker-eskuin gelditzea intentsitate desberdinetako ur-korronteen kontra; eskuin-ezkerreko *bac-a*; surf egitea olatu-tren batean; positiboko eta negatiboko nabigazioa; eskimotajea, eta ontzia berreskuratzea.
• Belaontziekin maniobrak eta ibilbideak egitea: atrakatzea eta desatrakatzea; gelditzea eta martxan jartzea; irtetea eta hurbiltzea, haizea alde zein kontra, eta aurrera bira egitea eta bira osoa egitea.

- Segurtasun-bide alternatiboak. Bideen memoria eta irudikatzea.
- Autonomia pertsonalean mugak dituzten pertsonei egokitutako nabigazio-teknikak.
- Funtsezko teknikak lantzen saiatua izatea.

IE: 4. Ur-ingurune naturaleko ibilbide batean taldeak gidatzeko teknikak aplikatzen ditu, erabiltzaileen profiletara, ingurunera eta baliabideetara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ur-ingurune naturalean pala edo hegal bidez bultzatutako ontzietan aurrera egiteko ezagutza teknikoa ebaluatzeko prozedurak aplikatu ditu.
b) Ur-ingurune naturalean belaontzietan aurrera egiteko ezagutza teknikoa ebaluatzeko prozedurak aplikatu ditu.
c) Informazioa eman du ibilbidearen ezaugarriei eta interesguneei buruz, materialaren erabilerari buruz eta segurtasunarekin eta natura-ingurunea errespetatzearekin lotzen diren jardun-arauei buruz.
d) Parte-hartzaileek ontzia gobernatzeko edo gobernatzen laguntzeko beharrezkoak diren jarraibideak eman ditu.
e) Ibilbidean aurrera egiteko zailtasun teknikoren bat edo desgaitasunen bat duten parte-hartzaileei eman beharreko laguntzak adibide bidez adierazi ditu.
f) Komunikazio-aparatu egokienak hautatu ditu, eremua aintzat hartuta.
g) Zehaztu du zer-nolako neurriak hartu behar diren parte-hartzaileen neke-, intsolazio- eta deshidratazio-sintomen edo arrisku-jokabideen aurrean.

Eduki-multzoa: Ur-ingurune naturalean taldeak gidatzeko teknikak.

– Erabiltzailearen konpetentzia-maila zehaztea.
- Parte-hartzaileei jakinaraztea zein diren jardueraren betekizunak eta ezaugarriak.
- Parte-hartzaileei irakastea nola egin behar dituzten teknikak eta maniobrak.
- Zailtasunen bat duten parte-hartzaileei laguntzeko esku-hartze praktiko bat egitea.
- Komunikazio-aparatu egokienak hautatzea, eremua aintzat hartuta.
- Erabiltzailearen mailari buruzko datuak eskuratzeko teknikak eta tresnak.
- Ezagutza teknikoa eskuratzeko mailak. Balioespen-irizpideak.
- Nabigazioa menderatzeko etapak: ezaugarriak, gauzatzeko baldintzak eta ebaluazio-irizpideak:

• Nabigazioa (gidaritza, propultsioa, oreka eta orientazio espaziala).
• Segurtasuna (segurtasun aktiboa eta pasiboa).
• Maniobrak (maniobra, nabigazio-ekipamendua eta aparailua).

- Exekuzio teknikoan eta esfortzuaren aplikazioan egin ohi diren akatsak.

- Ur-ingurune naturalean taldeak gidatzeko prozedurak.

• Materiala esleitzea, banatzea eta egiaztatzea, parte-hartzaileen profilak eta ingurumen-baldintzak aintzat hartuta. Banakako eta taldekako kirol- eta segurtasun-materiala.
• Informazio garrantzizkoa transmititzea: kontsigna teknikoak, segurtasunekoak, motibatzekoak. Jarraibideak ematea jardueran zehar.
• Bidean eta jardueran jarraitu beharreko arauak eta prozedurak transmititzea. Jardueraren deskribapena. Amaierako laburpena eta agurra.
• Taldekatzeen gidalerroak eta parte-hartzaileen kokapena. Taldea banatzea, antolatzea eta kontrolatzea, jarduera eta parte-hartzaileen profilak aintzat hartuta.
• Jardueran denbora eta jarduketak kontrolatzeko prozedurak. Teknikarien kokapena eta lekualdatzeak.
• Neke-, intsolazio- eta deshidratazio-sintomak detektatzeko jarraibideak, eta horiei aurre egiteko hartu beharreko neurriak.
• Parte-hartzaileen jokabide arriskutsuak kontrolatzeko estrategiak.
• Bidea egiten zailtasunak dituzten pertsonei laguntzeko maniobrak.

- Natura-inguruneetan komunikatzeko sistemak. Erabiltzeko irizpideak.
- Pazientziaz jokatzea irakasteko eta ikasteko egoeretan.
- Ahaleginak egitea argi eta zehatz erantzuteko laguntza- eta informazio-eskaerei.

IE: 5. Ur-ingurune naturalean erreskate-eta ebakuazio-teknikak aplikatzen ditu, segurtasun- eta larrialdi-planen protokoloei jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Fenomeno atmosferiko arriskutsuak gertatzen direnean ingurunera nola egokitu simulatu du.
b) Bidean zehar non lehorreratu identifikatu du.
c) Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakutsi ditu.
d) Ur-ingurune naturalean desiraultzeko eta erreskatatzeko maniobrak zehaztu ditu.
e) Egoerara ondoen egokitzen diren erreskate lagunduko edo autoerreskateko sistemak erabili ditu.
f) Erreskate-ontzia gidatu du, istripua izan duen pertsonaren eta taldearen segurtasuna bermatuz.

Eduki-multzoa: Ur-ingurune naturalerako erreskate- eta ebakuazio-teknikak.

– Fenomeno atmosferiko arriskutsuak gertatzen direnean ingurunera nola egokitu simulatzea.
- Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakustea.
- Ur-ingurune naturalean desiraultzeko eta erreskatatzeko maniobrak aplikatzea.
- Egoerara ondoen egokitzen diren erreskate lagunduko edo autoerreskateko sistemak erabiltzea.
- Erreskate-ontzia gidatzea.
- Ontzia desiraultzeko jarraibideak.
- Eskimotajea.
- Ontzia iraultzea eta errekuperatzea.
- Erreskate lagundua.
- Autoerreskate-maniobrak.
- Ontzitik irtetea eta hara sartzea.
- Ur amiletan igeri egiteko teknikak:

• Ur-amiletako ibilguan sartzea, segurtasun-posizioa, korrontetik irtetea, korrontearen kontra igeri egitea, *bac-a* eta beste.
• Segurtasun-soka: lotzea eta atoian eramatea.

- Inguruneko egoeraren, istripua izan duen pertsonaren egoeraren eta gidariaren aukeren

arabera esku hartzea.

- Larrialdi-egoeretan, ontzitik, uretatik eta ur-ertzetik taldeari laguntzeko estrategiak.
- Segurtasuneko edo erreskateko material espezifikoa.
- Erreskatatzaileen arteko komunikazio-teknikak.
- Uretara eroritako pertsonak ateratzeko teknikak, aintzat hartuta pertsona horien ezaugarriak, ontziarenak eta ingurunearenak.
- Beste erabiltzaile batzuekin batera zeuden ontzitik uretara eroritako pertsonak berreskuratzeko teknikak.
- Materiala ontzitik berreskuratzeko teknikak.
- Ur-ertzetik erreskatatzeko maniobrak.
- Ur-ertzetik atoian eramateko material espezifikoa.
- Ur-ertzetik egindako erreskateetan, gidariak izan beharreko posizioa eta uretan sartzeko maniobrak.
- Erreskateak egiteko segurtasun-lineak muntatzea.
- Ordena eta metodoa talde-lanean.
- Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean.
- Ordena eta metodoa talde-lanean.

IE: 6. Ur-ingurune naturaleko ibilbideak eta jarduerak baloratzen ditu, bildutako datuak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidariaren jardunari eta taldeak jardueran izandako erreakzioei buruzko datuak bildu ditu.
b) Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratu ditu.
c) Jardueran portaera ausartegirik izanez gero jarraitu beharreko jarraibideak ezarri ditu.
d) Ibilbideetan erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren baloratu du.
e) Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatu ditu.
f) Egindako jarduerari buruzko txostena egin du.

Eduki-multzoa: Ur-ingurunean egindako ibilbideak ebaluatzea.

– Gidariaren jardunari eta taldeak jardueran dituen erreakzioei buruzko datuak biltzea.
- Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratzea.
- Jardueran jokabide ausartegien aurrean jarraitu beharreko jarraibideak ezartzea.
- Erabilitako ekipamendu eta materialen egokitasuna neurtzea.
- Jardueraren balorazio-fitxa betetzea, programaren arabera.
- Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatzea.
- Egindako jarduerari buruzko txostena prestatzea.
- Jarduera balioesteko kontrol-fitxak. Motak.
- Jarduera garatzean datuak biltzeko prozedurak.
- Informazioa biltzeko metodoak. Barne-ebaluazioa edo autoebaluazioa, eta kanpo-ebaluazioa. Inkestak.
- Ebaluazio-dokumentuak. Jarraipen-fitxak. IKTak erabiltzea.
- Honako hauek diseinatzeko eta egiteko irizpideak:

• Taldearen portaerei buruzko erregistroak. Jardueran parte hartzen dutenen aurreratzea. Exekuzio teknikoa, eraginkortasuna eta segurtasuna.
• Teknikarien edo gidarien jarduerei buruzko erregistroak. Komunikazioaren egoera eta eraginkortasuna.
• Gorabeherak erregistratzea eta aurreikusitako denboretara egokitzea. Jardueraren faseak, esku-hartzeen denborak. Jardueren garapenaren segurtasunari eragiten dioten gertakariak.
• Jardueraren segurtasun-maila kalkulatzea.

- Jarduerari buruzko txostenak. Neurri zuzentzaileak eta programazioa hobetzekoak proposatzea. Hobekuntzak egitea eta jarduera berriak sortzea.

- Jardueretan inplikatuta dauden beste pertsona batzuek egindako iradokizunak entzutea eta aintzat hartzea.
- Programen funtzionamendua optimizatzeko eta haien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitearen beharra aitortzea.
- Ebaluazio-tresnak zorroztasunez aplikatzea.
- Gaitasun kritikoa eta autokritikoa izatea, hobetzeko tresnatzat.

11. lanbide-modulua: Maniobrak sokekin.

Kodea: 1339.
Kurtsoa: 2.
Iraupena: 147 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Sokekin maniobrak egiteko eta multiabentura-jardueretarako ekipamenduak eta baliabideak prestatzen ditu, eta egoera onean daudela eta funtzionalak direla egiaztatzeko prozedurak adierazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aisia- eta abentura-instalazioetan jarduerak (via ferratak, eskalada, espeleologia eta arroila-jaitsiera) egiteko dokumentazioa, baimenak eta baliabideak egiaztatzeko protokoloa bete du.
b) Sokekin maniobrak egiteko eta aisia- eta abentura-instalazioetarako kirol- eta segurtasun-materiala eta -ekipamendua mantentzeko, garraiatzeko eta biltegiratzeko prozedurak bete ditu.
c) Eskaladako, arroila-jaitsierako, espeleologiako eta via ferratetako jarduerak egiteko behar diren banakako eta taldekako kirol-materialak eta hornidura aztertu ditu.
d) Bere ardurapeko arloari dagozkion aisia- eta abentura-instalazioetan segurtasuneko eta arriskuak prebenitzeko elementu espezifikoak egoki kokatzeko eta egoera onean daudela egiaztatzeko protokoloa bete du.
e) Eskaladako, arroila-jaitsierako, espeleologiako eta gainerako multiabentura-jardueretako berezko komunikazio- eta orientazio-aparatuen ezaugarriak, funtzionamendua eta mantentze-lan operatiboa deskribatu ditu.
f) Komunikazio-aparatuen estaldura-eremuak eta emisio-bandak egiaztatu ditu.

Eduki-multzoa: Sokekin maniobrak egiteko eta multiabentura-jardueretarako ekipamenduak eta baliabideak prestatzea.

– Turismo- eta aisia-jardueren eskaintza aztertzea, erkidegoko honako instalazio eta jarduera hauei dagokienez: aisia- eta abentura-instalazioak, via ferratak, eskalada, espeleologia eta arroila-jaitsiera.
- Jarduerak egiteko dokumentazioa, baimenak eta baliabideak egiaztatzeko protokoloa aplikatzea.
- Kirol- eta segurtasun-materiala eta ekipamendua mantentzeko, garraiatzeko eta biltegiratzeko prozedurak aplikatzea.
- Jardueretan behar diren banakako eta taldekako materialak eta hornidura egiaztatzea.
- Segurtasuneko eta arriskuak prebenitzeko elementu espezifikoak egoki kokatzeko eta egoera onean daudela egiaztatzeko protokoloa aplikatzea.
- Jardueren berezko komunikazio- eta orientazio-aparatuak mantentzeko protokoloa aplikatzea.
- Komunikazio-aparatuen estaldura-eremuak eta emisio-bandak egiaztatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko turismo- eta aisia-jarduerak, honako hauekin lotuta daudenak: aisia- eta abentura-instalazioak, via ferratak, eskalada, espeleologia eta arroila-jaitsiera. Kirol-hastapena.

- Euskal Autonomia Erkidegoko turismo- eta aisia-jardueren programak, honako hauekin lotuta daudenak: aisia- eta abentura-instalazioak, via ferratak, eskalada, espeleologia eta arroila-jaitsiera. Beste zenbait jarduera: arku-tiroa, paintball-a eta puentinga.
- Programa motak: egun bateko edo hainbateko jarduerak, kirol-ikastaroak, banakakoak, taldekakoak, asteburuak, oporraldiak, zubiak, agurrak, enpresa-pizgarriak, etab.
- Multiabenturako honako jarduera hauetan aplikatu beharreko araudia: ingurunean eskaintzen diren jarduerak, edo inguruneko premiak, enpresa-eskaria edo beste zenbait irizpide aintzat hartuta eskaintzen direnak. Esaterako: aisia- eta abentura-instalazioak, via ferratak, eskalada, espeleologia eta arroila-jaitsiera.
- Arro hidrografikoekin lotutako baimenak.
- Ekipamenduaren eta materialaren ezaugarriak.
- Materiala homologatzeari eta iraungitzeari buruzko egungo araudia.
- Banakako eta taldekako materiala eta hornidura:

• Janzkera eta ekipamendua.
• Hornidura solidoa eta likidoa.

- Segurtasun-materiala eta lehen laguntzetakoa.
- Egun bateko edo gehiagoko jarduerak egiteko materiala.
- Materiala konpondu, kontrolatu, mantendu eta gordetzeko teknikak:

• Materiala konpontzeko eta egiaztatzeko jarraibideak.
• Narriadura diagnostikatzea.

- Materiala garraiatzea.
- Kirol-materiala antolatzea.
- Materiala erabiltzeko oinarrizko teknikak.
- Komunikazio-tresneria erabiltzeko jarraibideak:

• Komunikazio-tresneria: irrati-transmisoreak eta telefono mugikorrak.
• Abantailak eta desabantailak.
• Irrati-transmisoreen oinarrizko funtzionamendua.
• Komunikazio-tresneria mantentzea.
• Muga funtzionalak eta lege-arlokoak.
• Irrati-hizkera.
• Barrunbeetarako komunikazio-tresneria: genefonoa eta hari gabeko lur-konexiodun irrati-transmisioko sistemak.

- Ehun-materialak: sokak, zintak eta kordinoak.
- Material mekanikoa.
- Materialak, instalazioak eta ekipamenduak zorroztasunez hautatzea eta antolatzea
- Jarrera proaktiboa izatea jardueretan erabiltzen den materiala kokatzean eta biltzean.

IE: 2. Espeleologiako, arroila-jaitsierako, eskaladako edo multiabenturako jardueretan arriskua kontrolatzeko neurrien bideragarritasuna baloratzen du, testuinguruko datuak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduera batean arriskuak prebenitzeko datu garrantzizkoak hautatu ditu.
b) Arroila baten arriskua kalkulatu du, haren emariaren kalkuluaren arabera.
c) Arroila-jaitsierei eragiten dieten ibai-inguruneko fenomenoetan fluidoak zer-nolako dinamika duen identifikatu eta deskribatu du.
d) Ibai-inguruneko fenomeno bakoitzari aplikatutako teknika prebentiboak eta operatiboak deskribatu ditu.

e) Barrunbeko plano batean ihesbideak identifikatu ditu, eta gerta daitezkeen gorabeheren tipologiarekin lotu ditu.

f) Eremu labirintikoetan edo bloke-kaosetan segurtasunez aurrera egiteko seinaleztatze-metodoa definitu du eskuragarri dagoen seinaleztatze-materialaren arabera.

g) Ibilbide alternatibo bat ezartzeko aukerak zehaztu ditu segurtasun-irizpideei jarraituz.

Eduki-multzoa: Arriskuak kontrolatzeko neurrien bideragarritasuna baloratzea.

– Jardueran arriskuak prebenitzeko datu garrantzizkoak hautatzea.
- Arroila baten arrisku-maila kalkulatzea.
- Ibai-inguruneko fenomeno bakoitzari aplikatutako teknika prebentiboak eta operatiboak deskribatzea.
- Mapetan datu hidrografikoak irakurtzea.
- Planoetan izan daitezkeen ihesbideak aurkitzea.
- Segurtasunez aurrera egiteko seinaleztatze-metodoa erabiltzea.
- Ibilbide alternatibo bat ezartzea segurtasun-irizpideei jarraituz.
- Espeleologiako, arroila-jaitsierako, eskaladako edo multiabenturako jarduerei lotutako arriskuak aztertzea.
- Arriskuak kontrolatzea eta erabakiak hartzea.
- Jarraitu beharreko arau eta prozedurak transmititzea.
- Ur-amilei buruzko oinarrizko kontzeptuak.
- Hidrotopografia. Fluidoen dinamika. Ur amiletako fluidoen jokabidea eta tekniken arriskuak: kontrakorronteak, errebufoa, zurrunbiloa, sifoia, drosajea eta gorbatatzea.
- Arroila baten oinarrizko ezaugarriak.
- Arroila baten emaria kalkulatzeko teknika. Arroilaren emariaren eta arrisku-mailaren arteko lotura.
- Ibai-inguruneko fenomeno bakoitzari aplikatutako teknika prebentiboak eta operatiboak.
- Ur-amiletako arroiletatik ihes egiteko oinarrizko maniobrak.
- Mapetako datu hidrografikoak. Planoa irakurtzea. Gorabeheretarako ihesbideak.
- Espeleologiako kartografia eta topografia: tresna eta zeinu topografiko erabilienak.
- Eremu labirintikoetan eta bloke-kaosetan segurtasunez aurrera egiteko lurpeko seinaleztatze-metodoa. Seinaleztatze-material erabilgarria.
- Ekipamenduak eta materialak zaintzeko eta egoki erabiltzeko konpromisoa izatea.
- Natura-ingurunean ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea, arriskuak minimizatuz.

IE: 3. Arroiletan, desnibeletan eta haitzuloetan taldeak gidatzeko teknikak aplikatzen ditu partehartzaileen eta ingurunearen ezaugarrietara egokituta, segurtasunez eta eraginkortasunez aurrera egiteko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Barrunbe batean ekipamendua jarri eta kentzeko protokoloa bete du.

b) Toki agerikoetan seinaleztatu ditu eremu zailak (hala nola labirintoak eta bloke-kaosak), ibilbidean orientazioa eta segurtasuna bermatzeko.

c) Sokak erabiltzeko teknikak azaldu eta erakutsi ditu eskaladako, arroila-jaitsierako, espeleologiako eta via ferratako jardueraetan.

d) Segurtasun-protokoloak azaldu eta erakutsi ditu, zeregin eta jarduera hauetan: aparatuak, konektoreak eta ainguratzeko sokak jartzea, soka bidez eta txirristetan aurrera egitea eta putzuetara salto egitea.

e) Ur-arroiletan zailtasun-puntuak gainditzeko aurrerabide- eta laguntza-teknikak azaldu eta erakutsi ditu.

f) Aurrera egin ahala, arrisku-eremuak adierazi ditu, mendiko eta eskaladako lurralde askotarikoan, haitzuloetan, via ferratetan eta arroiletan.

g) Aurrera egiteko teknika eta erritmoa ezaugarri pertsonaletara eta lurraren eta jardueraren ezaugarrietara egokitu ditu.

Eduki-multzoa: Arroiletan, desnibeletan eta haitzuloetan taldeak gidatzeko teknikak.

– Barrunbe batean ekipamendua jarri eta kentzeko protokoloa betetzea.
- Ibilbideko eremu zailak eta arriskutsuak seinaleztatzea.
- Jardueretan sokak erabiltzeko eta maneiatzeko teknikak azaltzea.
- Jarduretan segurtasun-protokoloak azaltzea.
- Aurrera egiteko eta laguntzeko teknikak azaltzea.
- Aurrera egiteko teknika eta erritmoa ezaugarri pertsonaletara eta lurraren eta jardueraren ezaugarrietara egokitzea.
- Mendian aurrera egiteko teknika orokorrak:

• Mendiko bidezidorrak seinaleztatzeko nazioartean erabiltzen den sinbologia.
• Ibilbidea bistaratu eta hautatzea.

- Arroiletan aurrera egiteko teknikak:

• Sokarik gabe aurrera egitea: ibiltzea, igeri egitea, urpean igeri egitea, salto egitea eta irristatzea.
• Soka bidez aurrera egitea: ainguratzeak, sokak lotzeko korapiloak, rappela eta eskubandak.

- Espeleologian aurrera egiteko teknikak:

• Barrunbe horizontalak: bloke-kaosak eta pasabide estuak.
• Barrunbe bertikalak: zurubiak erabiltzea, behera egiteko maniobrak, gora egiteko maniobrak, zatikapenak igarotzea, eskubandak eta tirolinak.

- Eskaladan aurrera egiteko teknikak:

• Itsaspen bidez aurrera egitea, pitzadurak, X formako eskalada, dulfer eta tximinia.
• Heltzeko eta eusteko teknikak.
- Via ferratetan aurrera egiteko teknikak:

• Katuka igotzea eta jaistea, zinta energia-xurgagarriak lotzeko teknika, zubietan aurrera egiteko teknika, eskubandak, rappela eta tirolinak.

- Aurrera egitean edo jardueran aplikatu beharreko segurtasun-protokoloak:

• Eremu zailak (labirintoak eta bloke-kaosak).
• Arrisku-eremuak, honako toki hauetakoak: mendiko eta eskaladako lur askotarikoak, haitz-uloak, via ferratak eta arroilak.
• Segurtasun-protokoloak, honako zeregin eta jarduera hauetakoak: aparatuak, konektoreak eta ainguratzeko sokak jartzea, soka bidez eta txirristetan aurrera egitea eta putzuetara salto egitea.
• Ur-arroiletan zailtasun-puntuak gainditzeko laguntza-teknikak.

- Martxa-erritmoa:

• Taldean erritmoa kontrolatzea. Jarduerara egokitutako bihotz-erritmoa.
• Jardueran zehar, atseden hartzea, anoa hornitzea eta hidratatzea.
• Denbora eta distantzia ebaluatzea.
• Energia-gastua.
• Zer pisu pisua garraiatzen dugun.

- Korapilo erabilienak.
- Instalazio batean ekipamendua jarri eta kentzeko protokoloa.

- Segurtasunaren teoria.

• Bilerak.
• Laguna segurtatzea.
• Rappela.
• Tirolinak eta teleferikoak prestatzea.
• Segurtasun-katea, erorketa-faktorea, segurtatzailearen jokabidea.
• Sokak berreskuratzeko maniobrak.
• Polipastoak.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak:

• Desgaitasuna duten pertsonen ezaugarri psiko-afektiboen oinarrizko alderdiak.
• Desgaitasuna duten pertsonek zer-nolako laguntza behar duten autonomia lortzeko.
• Kontsignak eta azalpenak egokitzea.
• Jarduerak desgaitasuna duten pertsonei egokitzea.

- Segurtasuneko eta arriskuen prebentzioko oinarrizko protokoloak zorroztasunez betetzea.
- Desgaitasuna duten pertsonekin talde-lana egitearen garrantziaz ohartzea.
- Zorroztasuna egin beharreko atazen planifikazioan eta egokitzapenak ezartzean.

IE: 4. Aisia- eta abentura-instalazioetako jarduerak gainbegiratu eta zuzentzen ditu, prebentzioko eta arriskuak kontrolatzeko protokoloak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aisia- eta abentura-instalazioko elementu finkoen segurtasuna egiaztatzeko protokoloa bete du.
b) Multiabentura-instalazioetako elementu eramangarriak muntatu eta desmuntatzeko protokoloa bete du.
c) Instalazioen segurtasun- eta erabilera-arauak azaldu ditu.
d) Aisia- eta abentura-instalazioan erabiltzaileentzako segurtasun-ekipamenduak kokatzeko protokoloa bete du.
e) Aisia- eta abentura-instalazioetan eta -jarduerетan sokak erabiltzeko teknikak definitu eta erakutsi ditu.
f) Aisia- eta abentura-instalazioetako zirkuitu bertikalen eta airekoen ondoz ondoko mailetan aurrera egiteko teknikak azaldu ditu.
g) Segurtasun-arauak betetzen direla kontrolatu du.
h) Aisia- eta abentura-instalazioen erabiltzaileen neke-eta blokeo-egoeretan hartu beharreko neurriak azaldu ditu.

Eduki-multzoa: Aisia- eta abentura-instalazioetan jarduerak gainbegiratzea.

– Instalazioaren segurtasuna egiaztatzeko protokoloa betetzea.
- Instalazioko elementu eramangarriak muntatu eta desmuntatzeko protokoloa betetzea.
- Instalazioen segurtasun- eta erabilera-arauak azaltzea.
- Instalazioaren erabiltzaileentzako segurtasun-ekipamendua kokatzeko protokoloa betetzea.
- Instalazioan sokak erabiltzeko teknikak erakustea.
- Instalazioaren ondoz ondoko mailetan aurrera egiteko teknikak azaltzea.
- Segurtasun-arauak betetzen direla kontrolatzea.
- Neke- edo blokeo-egoeretan hartu beharreko neurriak azaltzea.

- Aisia- eta abentura-instalazioko elementu finkoen segurtasuna egiaztatzeko protokoloa. Aisia- eta abentura-instalazioetako elementuak:

• Zubiak (nepaldarra, tibetarra, tximu-zubia, soka-zubia, ekilibrista-zubia, zubi biribila, zubi birakaria, gurutze-zubia eta artikulatua), sareak ("u" formako sarea, jaistekoa, armiarma-sarea, sare oztopoduna eta sare-bidea), tirolinak (zuhaitz-tirolina eta amaierako tirolina), zabu-aulkia, barra finkoa, zabuak, zuhaitzera eskalatzea, igotzeko eskailera, liana mugikorra, infernuko zeharkaldia, surfa, Tarzanen jauzia, teleskia eta beste.

- Instalazioko elementu eramangarriak ekipatzeko eta desekipatzeko protokoloa.
- Oinarrizko segurtasun-arauak. Erabiltzaileentzako informazioa. Sinboloak.
- Sokak erabiltzeko teknikak.
- Aisia- eta abentura-instalazioetako zirkuitu bertikalak eta airekoak. Aurrera egiteko teknikak. Mailak.
- Aisia- eta abentura-instalazioetan aurrera egiteko teknikak.

• Segurtasun-sokara ainguratzea.
• Eskalak erabiltzea, igotzeko eta jaisteko teknikak, tirolinetan, zubietan, sareetan, zabuetan eta lianetan aurrera egitea.

- Aurrera egiteko segurtasun-protokoloak:

• Segurtasun-ekipamenduak kokatzea eta kontrolatzea.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak:

• Desgaitasuna duten pertsonen ezaugarri psiko-afektiboen oinarrizko alderdiak.
• Desgaitasuna duten pertsonek zer-nolako laguntza behar duten autonomia lortzeko.
• Kontsignak eta azalpenak egokitzea.

- Neke-, beldur- eta blokeo-egoeretan jarduteko teknikak. Laguntza-maniobrak.
- Ordena eta metodoa lanean.
- Protokoloak zehaztasunez betetzea.

IE: 5. Gorabehera- eta larrialdi-egoera simulatuetan parte-hartzaile taldea gidatzen du, baliabideak eta segurtasun-neurriak koordinatuz, eta erreskate- eta ebaluazio-teknikak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jardueretan, prebentzio- eta segurtasun-protokolo espezifikoa bete du.
b) Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakutsi ditu.
c) Fenomeno atmosferiko arriskutsuak gertatzen direnean ingurunera nola egokitu daitekeen simulatu du.
d) Erreskateetan materiala zuzen nola erabili azaldu du.
e) Aurrera egiteko sokak jarri ditu.
f) Sokaz jaistean izandako edozein gertakari konpontzeko behar diren trebetasunak zehaztu ditu.
g) Halabeharrezko ohatila bat nola egin eta tirolina bat nola instalatu diseinatu du.

Eduki-multzoa: Prebentzioa, erreskatea eta ebakuazioa.

– Jardueretan, prebentzio- eta segurtasun-protokolo espezifikoa aplikatzea.
- Istripurik izanez gero hurbiltzeko eta ebakuatzeko erabili beharreko teknikak erakustea.
- Atmosfera-fenomeno arriskutsuak gertatzen direnean nola egokitu simulatu du.
- Erreskateetan materiala zuzen nola erabili azaltzea.

- Aurrera egiteko sokak jartzea.
- Halabeharrezko ohatilak egitea eta tirolinak instalatzea.
- Jardueraren arriskuak:

• Atmosferikoak: lainoa, tenperatura, hezetasuna, haizea, prezipitazioak, tximistak eta eguzki-erradiazioak.
• Lurrekoak: harri-jausiak eta lur ezegonkorrak.
• Uretakoak: emaria, ur-goraldiak eta ibai-dinamikako elementuak.
• Lurpekoak: bloke ezegonkorrak, harri-jausiak, emari hidrikoaren goraldiak, ibilaldietan galtzea eta okertzea eta pasabide estuak.

- Segurtasun-protokoloak, honako jarduera hauetakoak: arku-tiroa, paintball-a, puentinga, via ferratak, espeleologia, eskalada eta arroilak:

• Aparatuak jartzeko teknikak.
• Arku-tiroan eta paintballean segurtasun-lerroa eta jaurtiketa-distantzia mugarritzeko irizpideak.
• Babesteko bitartekoak.
• Harri-jausietan jarduteko jarraibideak.

- Istripuetan jarduteko jarraibideak:

• Jarduteko jarraibide orokorrak.
• Zaurituaren egoera baloratzea.
• Lesioen larritasuna baloratzea.
• «Puntu bero» bat eraikitzea.

- Erreskate-taldeei deitzea.
- Laguntza eskatzea:

• Nazioarteko sorospen-seinaleak.
• Irrati-komunikazioko baliabiderik edo telefono mugikorrik ez dagoenean.

- Soka bidez jaistean izandako edozein gertakari konpontzeko behar diren trebetasunak.
- Istripua izan duten pertsonak garraiatzeko teknikak:

• Halabeharrezko ohatilak eta tirolinak prestatzeko teknikak.

- Autosorospeneko oinarrizko teknikak:

• Autoerreskate-protokoloa.
• Soka tenkatu bidez jaisteko teknikak: valdostano korapiloa.
• Soka gaineko aurreratze bertikalean nork bere burua erreskatatzeko teknikak.

- Jardunaren mugez jabetzea, eta hura protokoloetara eta gomendioetara egokitzea.
- Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean.
- Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazioarekiko tolerantzia.

IE: 6. Arroiletan, barrunbeetan, via ferratetan eta aisia- eta abentura-instalazioetan gidatutako jarduerak baloratzen ditu, eskura dituen datuak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidariaren jardunari eta taldeak jardueran izandako erreakzioei buruzko datuak bildu ditu.
b) Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratu ditu.

c) Jardueran erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren balioetsi du.
d) Jardueraren balorazio-fitxa bete du, programaren arabera.
e) Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatu ditu.
f) Egindako jarduerari buruzko txostena egin du.

Eduki-multzoa: Arroiletan gidatutako jarduerak eta espeleologia- eta multiabentura-jarduerak ebaluatzea.

– Gidariaren jardunari eta taldeak jardueran dituen erreakzioei buruzko datuak biltzea.
- Jarduerari, segurtasunari eta aurreikusitako denborei buruzko gorabeherak erregistratzea.
- Ibilbideetan erabilitako ekipamendu eta materialak egokiak ote diren ebaluatzea.
- Jardueraren balorazio-fitxa betetzea, programaren arabera.
- Hautemandako desorekak zuzentzeko neurriak proposatzea.
- Egindako jarduerari buruzko txostena prestatzea.
- Jardueraren balorazioa kontrolatzeko fitxak. Motak.
- Jarduera garatzean datuak biltzeko prozedurak.
- Informazioa biltzeko teknikak. Barne-ebaluazioa edo autoebaluazioa egiteko metodoak, eta kanpo-ebaluazioa egitekoak. Inkestak.
- Ebaluazio-dokumentuak. Jarraipen-fitxak.
- Honako hauek diseinatzeko eta egiteko irizpideak:

• Taldearen portaerei buruzko erregistroak. Jardueran parte hartzen dutenen aurreratzea. Exekuzio teknikoa, eraginkortasuna eta segurtasuna.
• Teknikarien edo gidarien jarduerei buruzko erregistroak. Komunikazioaren egoera eta eraginkortasuna.
• Gorabeherak erregistratzea eta aurreikusitako denboretara egokitzea. Jardueraren faseak, esku-hartzeen denborak. Jardueren garapenaren segurtasunari eragiten dioten gertakariak.
• Jardueraren segurtasun-maila kalkulatzea.

- Arroiletan, espeleologian eta aisia- eta abentura-instalazioetan gidatutako jardueran ekipamendu eta material egokiak erabiltzea.
- Behe- eta erdi-mailako mendiko eta lur elurtuko jarduera gidatuetan erabilitako ekipamendu eta materialak.
- Jarduerari buruzko txostenak. Neurri zuzentzaileak eta programazioa hobetzekoak proposatzea. Hobekuntzak egitea eta jarduera berriak sortzea.
- Jardueretan inplikatuta dauden beste pertsona batzuek egindako iradokizunak entzutea eta aintzat hartzea.
- Programen funtzionamendua optimizatzeko eta haien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitearen beharra aitortzea.
- Ebaluazio-tresnak zorroztasunez aplikatzea.

12. lanbide-modulua: Ingeles teknikoa.

Kodea: E100.
Kurtsoa: 1.
Iraupena: 33 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Tituluaren lanbide-esparruarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta horren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta enpreson kokapena identifikatzen eta deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea identifikatu du.
b) Ahozko mezu zehatzak igorri ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarrizko funtzionamendua.
c) Ahozko argibideak identifikatu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako jarraibideei jarraitu die.
d) Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
e) Ohartu da zer garrantzitsua den mezu baten zentzu orokorra ulertzea mezuko elementu guztiak banan-banan ulertu beharrik gabe.
f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
g) Beharrezkotzat jo duenean, diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

Eduki-multzoa: Ahozko mezuak ulertu eta sortzea.

– Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.
– Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.
– Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.
– Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.
– Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argibideak eskatzea eta bestelakoak.
– Mezua behar bezala ulertzeko moduko soinuak eta fonemak egoki sortzea.
– Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.
– Sektoreko terminologia espezifikoa.
– Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.
– Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarketak.
– Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.
– Errespetuz jokatzea eta ulertzeko zein ulertarazteko interesa izatea.
– Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.
– Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

IE: 2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentu idatziak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo bidaltze-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
c) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
d) Euskarri telematikoen bitartez (posta elektronikoa, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.

e) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.

f) Testuen deia nagusiak jaso ditu.
g) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
h) Sektoreko web-orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.

Eduki-multzoa: Idatzizko mezuak interpretatzea eta adieraztea.

– Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulu profesionalak eta egunerokoak.
– Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.
– Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.
– Sektoreko testu errazak egitea, profesionalak eta egunerokoak.
– Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.
– Sektoreko terminologia espezifikoa.
– Euskarri telematikoak: faxa, posta elektronikoa, burofaxa, webguneak.
– Protokolo-formulak idazki profesionaletan.
– Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.
– Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
– Errespetuz jokatzea eta ulertzeko zein ulertarazteko interesa izatea.
– Beste kultura eta gizarteen ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.
– Testuaren garapenean, koherentziaren premia balioestea.

IE: 3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak eta usadioak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
c) Sektorearen berezko alderdi sozioprofesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.

d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

Eduki-multzoa: Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea.

– Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea.
– Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan, baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
– Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeetako elementu soziolaboral esanguratsuenak.
– Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokolokoak balioestea.
– Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

13. lanbide-modulua: Laneko prestakuntza eta orientabidea.

Kodea: 1340.
Kurtsoa: 2.
Iraupena: 105 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Laneratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzarako aukerak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia balioetsi du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
b) Hizkuntzak, besteak beste euskara, ezagutzeak enplegua lortzeko aukera zabaltzeko duen garrantzia balioetsi du.
c) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbideak eta ibilbide profesionalak identifikatu ditu.
d) Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren konpetentziak eta jarrerak zehaztu ditu.
e) Titulodunarentzako enplegu-hobi eta laneratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
f) Enplegua bilatzeko prozesuan erabilitako teknikak zehaztu ditu, genero-estereotipoek identitate pertsonala eta soziala eraikitzean eta erabakiak hartzean duten eragina aztertuz.
g) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
h) Erabakiak hartzeko eta lan-merkatura sartzea errazteko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

Eduki-multzoa: Laneratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzarako prozesua.

– Lan-ibilbiderako interes, konpetentzia eta motibazio pertsonalak aztertzea.
– Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.
– Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.
– Norberaren karrera planifikatzea, helburu errealak eta egungo eta proiektatutako prestakuntzarekin koherente diren helburuak ezarriz.
– Proiektu profesionala eta bizi-proiektua, erantzukidetasuna abiapuntu hartuta.
– Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. Konpetentzia digitalak nolako garrantzia duen prozesu honetan: aurkezpen-gutuna, curriculum-modalitate desberdinak, test psikoteknikoak, elkarrizketak, enplegu-atariak, networking-a, sare sozialak...
– Hizkuntzak, besteak beste euskara, ezagutzeak enplegua lortzeko aukera zabaltzeko duen garrantzia balioestea.
– Erabakiak hartzeko prozesua.
– Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.
– Europan ikasi eta enplegatzeko aukerak. Europass, Ploteus.

– Etengabeko prestakuntzak tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako duen garrantzia baloratzea.

– Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.

– Genero-estereotipoek nortasun pertsonal eta sozialaren eraikuntzan duten eragina aztertzea.

– Autoenplegua lan-mundura sartzeko aukeratzat baloratzea.
– Egoki laneratzekoko lan-ibilbideak baloratzea.
– Lanarekiko konpromisoa. Eskuratutako zeharkako konpetentzien garrantzia nabarmentzea.

IE: 2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna eta efizientzia baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lantaldeak identifikatu ditu.
c) Lantalde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
d) Taldekideek beren gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeek berezkoa duten ezaugarritzat onartu du.
f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

Eduki-multzoa: Gatazkak eta lantaldeak kudeatzea.

– Lantaldeak:

• Honako hauek aztertzea: antolaketa-egiturak, taldeen osaera, taldeko rol desberdinak, lantaldearen eta taldearen arteko aldea, talde-lanaren abantailak eta desabantailak.
• Sektoreko enpresetako talde motak, dituzten eginkizunen arabera.
• Komunikazioa eta jarrera parte-hartzailea, taldeak osatzen eta horietan lan egiten arrakasta izateko oinarrizko elementu gisa.

– Gatazkak:

• Gatazka aztertzea: ezaugarriak, sorburuak eta etapak.
– Gatazkak konpontzeko edo desagerrarazteko metodoak: bitartekaritza, adiskidetzea, arbitrajea eta horien haztapena.

– Langileek genero-indarkeriarik gabeko lan-giroaz gozatzeko duten eskubidea.
– Berdintasun-eskubidea, baztertua ez izatekoa, osotasun morala, intimitatea, lana eta duintasuna gordetzekoa.

IE: 3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta gaitasuna dauka horiek lan-kontratuetan aurkitzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
b) Enpresaburuen eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
d) Pertsonek lan-harremanetan dituzten hizkuntza-eskubideak identifikatu ditu.
e) Kontratazio-modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
f) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak xedatutako neurriak baloratu ditu.
g) Lan-harremanak aldatu, eten eta azkentzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
h) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
i) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak konpontzeko prozedurak aztertu ditu.
j) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
k) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

Eduki-multzoa: Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak.

– Lan-arloko zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, hitzarmen kolektiboa.

– Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.
– 6/2003 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera pertsonek ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko duten eskubidea aztertzea.

– Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera: mugagabeak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak eta prestakuntzakoak.

– Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen hitzarmen kolektiboa aztertzea.
– Lan-kontratua: kontratuaren osagaiak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.

– Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).

– Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko ordainsariak, soldata-bermeak.

– Soldata-arrakala genero-ikuspegiaren arabera aztertzea.
– Langileek genero-indarkeriarik gabeko lan-giroaz askatasunean gozatzeko duten eskubidea.

– Pertsona gisa garapen integrala izateko eskubidea, aukera-berdintasunerako eskubidea, sexu-identitatea eta –orientazioa errespetatzeko eskubidea, baztertua ez izatekoa, eta osotasun morala, intimitatea, lana eta duintasuna babestekoa.

– Soldata kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZa.
– Nomina interpretatzea.
– Kontratua aldatu, eten eta azkentzea.
– Langileek enpresan ordezkaritza izateko duten eskubidea: negoziazio kolektiboa.
– Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, sindikatuaren eginkizunak baloratzea, enpresaburuen elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.
– Lan-antolamenduaren ingurune berriak: lana kanpora ateratzea, telelana...
– Lana arautzeko beharra baloratzea.
– Bere jarduera profesionalari dagokion sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ikasteko interesa agertzea.

– Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken konponbide gisa aintzat hartzea.

– Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez.

IE: 4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du, eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizarte Segurantzaren eginkizuna baloratu du, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa.
b) Gizarte Segurantzako sistemak estaltzen dituen kontingentziak zerrendatu ditu.
c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen figurek dituzten betebeharrak identifikatu ditu.
e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langileari eta enpresaburuari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
h) Oinarrizko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

Eduki-multzoa: Gizarte Segurantza, enplegua eta langabezia.

– Gizarte Segurantzako sistema orokorraren unibertsaltasunaren garrantzia aztertzea.
– Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-eremua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.

– Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzak duen eginkizuna aintzat hartzea.

– Gizarte Segurantzaren kotizazioan zein prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

– Enpresaburuek eta langileek Gizarte Segurantzari dagokionez dituzten betebehar nagusiak: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.

– Administrazioekiko harremanetan sinadura digitala erabiltzea.
– Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aitatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.

– Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea: prestazio motak, betekizunak eta zenbatekoak.

– Langileei beren eskubideen eta betebeharren inguruko aholkua emateko sistemak.

IE: 5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneko lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzia duten lan-baldintzak zehaztu ditu.
g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

Eduki-multzoa: Arrisku profesionalak ebaluatzea.

– Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.
– «Arrisku profesionala» kontzeptua.
– Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.
– Arrisku-faktoreak identifikatzea eta aztertzea.
– Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.
– Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.
– Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.
– Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea.
– Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
– Ziberjazarpenari eta sexu-jazarpenari aurre egiteko protokoloa.
– Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarrizko elementu gisa.
– Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.
– Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.

– Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.

IE: 6. Enpresa txiki bateko arriskuen prebentziorako plana egiten parte hartzen du, eta inplikatutako eragile guztien erantzukizunak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laneko arriskuen prebentzioko eskubide eta betebehar nagusiak zehaztu ditu.
b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak azaldu ditu.
d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
g) Enpresa txiki edo ertain baten larrialdi- eta ebakuazio-plan baten proiektua egin du.

Eduki-multzoa: Arriskuen prebentzioa planifikatzea enpresan.

– Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak, oinarrizko prebentzio-tresna gisa.
– Laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarrizko arauak aztertzea.
– Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.
– Laneko arriskuen prebentzioan (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.
– Prebentzioaren kudeaketa enpresan.
– Lan-ingurunerako larrialdi-plana egitea.
– Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.
– Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria).

– Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak aztertzea.
– Enpresan prebentzioa planifikatzea.
– Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
– LAPeko eta laneko osasuneko (LO) eragile gisa duen posizioa baloratzea.

IE: 7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarrizko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

Eduki-multzoa: Segurtasunari buruzko legeria eta arauak.

– Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresek eta norbanakoek dituzten betebeharrak aztertzea.

– Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak identifikatzea.
– Larrialdi-egoeretan lehen laguntzetako teknikak aztertzea eta aplikatzea, jardun-protokolo bat prestatzeko.

– Langileen osasuna zaintzea eta haren garrantzia baloratzea.

– Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.
– Larrialdi medikua / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak.
– Seinaleztatze motak.

14. lanbide-modulua: Enpresa eta ekimen sortzailea.

Kodea: 1341.
Kurtsoa: 2.
Iraupena: 63 ordu.

Ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

IE: 1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu ditu.
b) «Kultura ekintzaile» kontzeptua eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enplegatuaren laneko ekimena aztertu du.
e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunak enpresa-kulturaren parte gisa zer-nolako garrantzia duen kontuan hartuta.
f) «Arrisku»aren kontzeptua aztertu du, jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezina den heinean.
g) Enpresaburuaren kontzeptua eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko diren eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

Eduki-multzoa: Ekimen sortzailea.

– Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).

– Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak aztertzea eta baloratzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza.
– Jarduera ekintzailearen arriskua ebaluatzea.
– Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.
– Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.
– «Enpresaburu» kontzeptua.
– Emakumeak buru dituzten enpresa-ekimenak.
– Ekintzaileen jarduna, sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.

– Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.
– Intraekintzailetza.
– Ekintzaileen arteko lankidetza.
– Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.
– Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.
– Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak, tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.

IE: 2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du; enpresa-ideia aukeratzen du, eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak barneratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
b) Tituluarekin lotutako negozio-arloan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du, eta baliagarria dela defendatu eta argumentatu du.
c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu, eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoa eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
g) Inguruneko eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-errealitatea eta euskaraz behar den dokumentazioa identifikatu ditu.
h) Tituluarekin lotura duen enpresa baten balantze soziala egin du eta eragiten dituen kostu eta onura sozial nagusiak deskribatu ditu.
i) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak eransten dituzten ohiturak identifikatu ditu.
j) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
k) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

Eduki-multzoa: Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena.

– Enpresa-ideiak zehazteko tresna digitalak aplikatzea.
– Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.
– Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.
– Lanbide-arloko ereduzko enpresa bat aztertzea.
– Indarrak, ahuleziak, mehatxuak eta aukerak identifikatzea.
– Negozio-eredua ezartzea, merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta.

– Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta gizarte osoarekiko (garapen jasangarria).

– 6/2003 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera pertsonek ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko duten eskubidea aztertzea.

– Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.
– Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.
– Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
– Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta balioestea.
– Genero-berdintasuna errespetatzea.
– Enpresa-etika baloratzea.

IE: 3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazteko eta enpresa eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du, eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu, eta «sistema» kontzeptua aztertu du, enpresari aplikatuta.
b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturala.

c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
e) «Enpresa-kultura»ren eta «irudi korporatibo»aren kontzeptuak eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
k) Enpresa-planean, alderdi hauekin zerikusia duen guztia jaso da: forma juridikoa aukeratzea, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa, administrazio-izapideak, laguntzak eta dirulaguntzak.
l) Enpresa txiki eta ertain bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

Eduki-multzoa: Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea.

– Marketin Plana ezartzea. Produktuari, komunikazioari, prezioei eta banaketari buruzko politikak.

– Produkzio-plana prestatzea.
– Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.
– Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.
– Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide-kopurua.
– «Enpresa» kontzeptua. Enpresa motak.
– Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.
– Zerga-arloa enpresetan.
– Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak. Online izapideak (Ogasuna eta Gizarte Segurantza, besteak beste).
– Lanbide-arloko enpresentzako laguntzak, dirulaguntzak eta zerga-pizgarriak.
– Enpresaren jabeen erantzukizuna.
– Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorroztasunez ebaluatzea.
– Administrazio-izapideak eta legezkoak betetzea.

IE: 4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritzako eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
g) Dokumentazio hori guztia enpresa-planean txertatu du.

Eduki-multzoa: Administrazio-funtzioa.

– Kontabilitate-informazioa aztertzea: altxortegia, emaitzen kontua eta balantzea.
– Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
– Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak eta abar.
– «Kontabilitate» kontzeptua eta oinarrizko ideiak.
– Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.
– Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).
– Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.

15. lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza

Kodea: 1342.
Kurtsoa: 2.
Iraupena: 380 ordu.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

IE: 1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
b) Enpresaren egitura eta sektorean dauden beste enpresa-egituren ereduak alderatu ditu.
c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu ditu.
f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna baloratu du.

IE: 2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera, eta berdintasunerako, baztertua ez izateko, osotasun moralerako eta pertsonen intimitaterako eskubideak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

• Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
• Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
• Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
• Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
• Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
• Lan-eremuan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
• Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan laneratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarrizko alderdiak identifikatu ditu.
c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri ditu abian norbera babesteko ekipamenduak.

d) Aurrera eraman dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
h) Taldekideekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak jakinarazi ditu.
i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.
j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

IE: 3. Hainbat erabiltzaile-profilentzako ibilbideak antolatzen ditu natura-ingurunean, enpresaren jarraibideen arabera, segurtasun- eta kalitate-irizpideak aplikatuz eta ardura duten taldeekin lankidetzan jardunez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilbide mota bakoitza diseinatzeko eremuari buruz bildutako informazioa tokian bertan egiaztatu du.
b) Jardueran parte hartzen duten pertsonen ezaugarriei buruzko informazioa antolatu du.
c) Baimen-eskabideak izapidetu ditu ibilbide mota bakoitzaren araudi espezifikoarekin bat etorriz.
d) Zailtasun-mailak zehaztu ditu, ibilbide mota bakoitzean iraupena, desnibelak, distantziak eta tarte zailak kalkulatuz.
e) Ibilbideko parametroak parte-hartzaileen profilera egokitzen lagundu du, segurtasuna bermatzea abiapuntu hartuta.
f) Fase bakoitzean jardueraren kalitatea bermatzeko baliabideak, zerbitzuak eta logistika zehaztu ditu.

IE: 4. Natura-inguruneko ibilbideetarako eta astialdiko jardueretarako baliabideak prestatzen ditu, eskuragarri egongo direla ziurtatzen du, egoera onean daudela egiaztatzen, eta haiek erabiltzean segurtasuna bermatzeko protokoloak betetzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bideen eta ibilbideen ekipamendua berrikusi du.
b) Natura-inguruneko ibilbideetarako eta astialdiko jardueretarako banakako eta taldekako kirol materiala, segurtasunekoa eta lehen laguntzetakoa egoera onean daudela egiaztatu du.
c) Astialdiko ibilbideetan eta jardueretan erabiliko diren materialak, ekipamenduak eta baliabideak zaintzen eta horien oinarrizko mantentze-lana egiten eta inbentarioa eguneratzen lagundu du.
d) Zaldiak prestatu ditu zaldi-ibilbiderako.
e) Jardueretan inplikatutako zerbitzu osagarriak erabilgarri daudela egiaztatu du.
f) Jardueran oinarrizko konponketak eta zaintzak egiteko lanabesak prestatu ditu.
g) Komunikazio- eta orientazio-sistemak egiaztatu ditu.

IE: 5. Natura-inguruneko ibilbideetan erabiltzaileak gidatzen laguntzen du, parte-hartzaileei informazioa eta laguntza emanez, eta jardueraren arriskuak kontrolatzen lagunduz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aurreratze mota bakoitzari dagozkion alderdi teknikoak azaldu eta erakutsi dizkie parte-hartzaileei, eta ibilbideko alderdi nabarmenei buruzko informazioa eman du.
b) Egiaztatu du ekipamenduak eta baliabideak parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzen direla eta jardueran parte hartzen dutenek prebentzio- eta babes-neurriak betetzen dituztela.
c) Ibilbidean, posizioak aldatu ditu taldearen barruan, eta erritmoa eta atzean geratzen direnak kontrolatu ditu.
d) Neke-egoerak eta arriskutsuak izan daitezkeen egoerak detektatu ditu.

e) Ibilbideko tarte zailak gainditzen lagundu die parte-hartzaileei.

f) Jardueran erabiltzen diren ekipamenduak, baliabideak eta materialak zaintzen eta haiei oinarrizko konponketak egiten lagundu du.

g) Lo egiteko eremua muntatzen eta desmuntatzen lagundu du.

h) Orientazio-tresnak, mapak eta natura-zantzuak erabili ditu jardueraren ibilbidean aurrera egiteko.

IE: 6. Astialdiko jarduerak dinamizatzen parte hartzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduera ludikoak eta astialdikoak antolatzen lagundu du, espazioak eta materialak prestatuz, eta segurtasuna, jardueren ahalmen hezigarria eta desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea aintzat hartuz.

b) Sozializazioa, ingurumen-hezkuntza eta portaera osasungarriak indartzeko jarduerak garatu ditu.

c) Baliabideen erabilera eta jardueren erritmoa desgaitasuna duten pertsonen partaidetzara egokitu ditu, bai eta parte-hartzaileen interesen bilakaerara eta ingurunean izandako aldaketetara ere.

d) Komunikazio eraginkorra izateko, taldea egoki antolatzeko eta gorabeherei aurrea hartzeko leku egokia hartu du.

e) Natura-ingurunearen ezaugarriak baliatu ditu, jolas-jarduerak eta astialdikoak egiteko espazio gisa.

f) Ingurune seguruak sortu ditu, natura-ingurunerako arriskuak murriztuz.

g) Asertibitate-estrategiak erabili ditu, jardueraren garapena eta harreman-giroa nahasten dituzten portaerak bideratzeko.

h) Jolas-jardueren eta astialdikoen jarraipen- eta ebaluazio-erregistroak bete ditu.

IE: 7. Ur-ingurune naturaleko eta lehorreko ingurune naturaleko gidaritzako jardueretan eta astialdikoetan prebentzio-neurriak ezartzen laguntzen du, bai eta jarduera horietan sortutako gorabeherak eta larrialdiak artatzen ere, ezarritako protokoloak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Esku-hartzearen testuingurua gainbegiratzeko eta aztertzeko teknikak aplikatu ditu, jarduera egiten den eremuetan arrisku-faktoreak detektatzeko.

b) Jarduera egiten den eremuetarako prebentzioko jardun-protokoloak eta erreskate- eta ebakuazio-protokoloak prestatzen edo egokitzen lagundu du.

c) Jardueraren garapenean eta dagokion jardun-eremuan, norbera babesteko eta laneko arriskuak prebenitzeko aurreikusitako neurriak hartu ditu.

d) Jarduera garatzen den naturaguneetan gerta daitezkeen larrialdi-egoerak baloratzen lagundu du.

e) Erreskate-teknikak gauzatu ditu, honako hauetara egokituta: ingurunearen eta istripuaren baldintzak, biktimaren egoera eta eskuragarri dauen giza baliabideak eta baliabide naturalak.

f) Bainu publikorako esleitutako eremuan, zaintza-teknikak eta -protokoloak aplikatu ditu.

g) Uretako erreskate-teknikak ontzietatik gauzatu ditu, honako hauetara egokituta: ingurunearen eta istripuaren baldintzak, biktimaren egoera eta eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide naturalak.

h) Erabiltzaile eta egoera desbedinei hobekien egokitzen zaizkien komunikazio-teknikak eta gizarte-trebetasunak aplikatu ditu.

253/2021 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

GUTXIENEKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

1. apartatua.– Espazioak.

| Prestakuntza-espazioa | Azalera ($m^2$) / 30 ikasle | Azalera ($m^2$) / 20 ikasle |
|---|---|---|
| Erabilera anitzeko gela. | 60 | 40 |
| Kirol-jarduera fisikoko gela. | 180 | 120 |
| Kirol anitzeko pista.* | 969 | 608 |
| Ur berodun igerilekua.* | 5 kale | 3 kale |
| Rokodromoa edo horma naturala.* | 55 | 40 |
| Ur-ingurune naturala, bizikletaz ibiltzeko eta mendi-ibilian aritzeko egokitutako natura-ingurunea, zentrotik gertu espeleologiarako eta arroila-jaitsierarako prestatutako espazio naturala.* | | |
| Nordiko erako lur elurtuak.* | | |
| Zaldientzako kanpoaldeko lan-pistak.* | 800 | 800 |

2. apartatua.– Ekipamenduak.

| Prestakuntza-espazioa | Ekipamendua |
|---|---|
| Erabilera anitzeko gela. | Sarean instalatutako ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Ikus-entzunezko baliabideak.<br>Heziketa-zikloaren programa informatiko espezifikoak. |
| Kirol-jarduera fisikoko gela. | Jolas-materiala.<br>Soinu- eta argazki-materiala.<br>Horma-barrak.<br>Natura-inguruneko jarduera fisikoekin eta jolas-jarduerekin lotutako material mugikorra.<br>Lehen laguntzetarako eta BBBrako gutxieneko materiala.<br>Biltegia.<br>Dutxak.<br>Aldagelak. |
| Kirol anitzeko pista. | Hainbat kirol-jarduera fisiko egiteko egokitutako espazioa. |
| Ur berodun igerilekua. | 25 metro luze, 2 metro sakon eta 5 kale.<br>Igeriketa-estiloak ikasteko eta uretan jolas egiteko materialak.<br>Ur-sorospenerako materialak. |
| Rokodromoa edo horma naturala. | 8 metro garai.<br>Soka estatikoak.<br>Soka dinamikoak.<br>Igotzeko elementuak. |
| Ur-ingurune naturala, bizikletaz ibiltzeko eta mendi-ibilian aritzeko egokitutako natura-ingurunea, zentrotik gertu espeleologiarako eta arroila-jaitsierarako prestatutako espazio naturala. | |
| Nordiko erako lur elurtuak. | |
| Zaldientzako kanpoaldeko lan-pistak. | Egokitzapen-materiala.<br>Segurtasun-elementuak. |

## 253/2021 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

## IRAKASLEAK

1. apartatua.– Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren heziketa-zikloko lanbide moduluetan.

| Lanbide-modulua | Irakasleen espezialitatea: | Kidegoa |
|---|---|---|
| 1325. Zaldiketa-teknikak. | Gorputz Hezkuntza.<br>Nekazaritzako ekoizpen-prozesuak. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| | Irakasle espezialista. | |
| 1327. Zaldi-gidaritza. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1328. Taldeentzako arreta. | Gorputz Hezkuntza.<br>Gizarte arloko esku-hartzea. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1329. Ibilbideak antolatzea. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1333. Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| | Irakasle espezialista. | |
| 1334. Bizikleta-gidaritza. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| | Irakasle espezialista | |
| 1335. Astialdiko teknikak. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| | Irakasle espezialista. | |
| 1336. Igeriketa-teknikak. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1337. Sorospena natura-ingurunean. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1338. Ur-ingurune naturaleko gidaritza. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1339. Maniobrak sokekin. | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| | Irakasle espezialista. | |
| E-100. Ingeles teknikoa. | Ingelesa. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1340. Laneko prestakuntza eta orientabidea. | Laneko prestakuntza eta orientabidea. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1341. Enpresa eta ekimen sortzailea. | Laneko prestakuntza eta orientabidea. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |
| 1342. Lantokiko prestakuntza | Gorputz Hezkuntza. | Bigarren Hezkuntzako irakaslea. |

Edo araudian ager daitekeen beste edozein irakasle-espezialitate.

2. apartatua.– Titulazio baliokideak irakaskuntzaren ondorioetarako.

<table>
<tr><th>Kidegoa</th><th>Espezialitatea</th><th>Titulazioak</th></tr>
<tr><td rowspan="2">Bigarren Hezkuntzako irakaslea.</td><td>Laneko prestakuntza eta orientabidea.</td><td>Enpresa-zientzietan diplomaduna.<br>Lan-harremanetan diplomaduna.<br>Gizarte-lanean diplomaduna.<br>Gizarte-hezkuntzan diplomaduna.<br>Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna.</td></tr>
<tr><td>Gizarte arloko esku-hartzea</td><td>Irakaslea, espezialitate guztietan.<br>Gizarte-hezkuntzan diplomaduna.<br>Gizarte-lanean diplomaduna.</td></tr>
<tr><td></td><td>Nekazaritzako ekoizpen-prozesuak.</td><td>Nekazaritza-ingeniari teknikoa, espezialitate guztietan.<br>Baso-ingeniari teknikoa, espezialitate guztietan.</td></tr>
</table>

Edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

3. apartatua.– Titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko behar diren titulazioak, titulartasun pribatuko ikastetxeetarako edo hezkuntzakoaz besteko administrazioetako ikastetxeetarako eta hezkuntza-administraziorako orientabideak..

| Lanbide-moduluak | Titulazioak |
|---|---|
| 1325. Zaldiketa-teknikak.<br>1327. Zaldi-gidaritza.<br>1328. Taldeentzako arreta.<br>1329. Ibilbideak antolatzea.<br>1333. Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza.<br>1334. Bizikleta-gidaritza.<br>1335. Astialdiko teknikak.<br>1336. Igeriketa-teknikak.<br>1337. Sorospena natura-ingurunean.<br>1338. Ur-ingurune naturaleko gidaritza.<br>1339. Maniobrak sokekin.<br>1340. Laneko prestakuntza eta orientabidea.<br>1341. Enpresa eta ekimen sortzailea. | Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa edo dagokion graduko titulua, edo horien baliokidetzat jotako bestelako tituluak,irakaskuntzarako. |
| E100 Ingeles teknikoa | Ingeles Filologian lizentziaduna edo dagokion gradua |

Edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

4. apartatua.– Titulua osatzen duten lanbide-moduluak irakasteko behar diren titulazioak hezkuntzakoaz besteko administrazioetako titulartasun pribatuko ikastetxeetarako, eta hezkuntza-administraziorako orientabideak

| Lanbide-moduluak | Titulazioak |
|---|---|
| 1325. Zaldiketa-teknikak. | Nekazaritza-ingeniari teknikoa, espezialitate guztietan.<br>Baso-ingeniari teknikoa, espezialitate guztietan. |
| 1328. Taldeentzako arreta. | Irakaslea, espezialitate guztietan.<br>Gizarte-hezkuntzan diplomaduna.<br>Gizarte-lanean diplomaduna. |
| 1340. Laneko prestakuntza eta orientabidea.<br>1341. Enpresa eta ekimen sortzailea. | Enpresa-zientzietan diplomaduna.<br>Lan-harremanetan diplomaduna.<br>Gizarte-lanean diplomaduna.<br>Gizarte-hezkuntzan diplomaduna.<br>Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna. |

253/2021 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

BALIOZKOTZEAK

1. apartatua.– Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babespean ezarritako tituluetako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babespean ezarritako Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluan ezarritako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak.

| «Natura Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzeko Teknikaria» heziketa-zikloko lanbide-moduluak (LOGSE, 1/1990) | «Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako Teknikaria» heziketa-zikloko lanbide-moduluak (LOE, 2/2006) |
|---|---|
| Zaldizkoen taldeak gidatzea eta zaldien oinarrizko zaintza. | 1327. Zaldi-gidaritza. |
| Talde-dinamika. | 1328. Taldeentzako arreta. |
| Lekualdatzeak, egonaldiak eta segurtasuna lehorreko natura-ingurunean. | 1329. Ibilbideak antolatzea.<br>1333. Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza. |
| Taldeak bizikletaz gidatzea. | 1334. Bizikleta-gidaritza. |

2. apartatua.– 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) babespean ezarritako tituluetako lanbide-moduluen eta Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritzako teknikariaren tituluan ezarritako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak.

| Emandako prestakuntza (dagozkion lanbide-moduluak) | Baliozkotu beharreko prestakuntza baliozkotu beharreko lanbide-moduluak |
|---|---|
| 0017. Gizarte-trebetasunak.<br>Egokitzapen Fisikoko goi-mailako heziketa-zikloa. | 1328. Taldeentzako arreta. |
| 0211. Gizarte-trebetasunak.<br>Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonei Arreta Egiteko erdi-mailako heziketa-zikloa. | 1328. Taldeentzako arreta. |
| 1124. Talde-dinamizazioa.<br>Gizarte- eta Kirol-irakaskuntzako eta -animazioko goi-mailako heziketa-zikloa.<br>Termalismoko eta Ongizateko goi-mailako heziketa-zikloa | 1328. Taldeentzako arreta. |

# 253/2021 DEKRETUAREN VI. ERANSKINA

## KONPETENTZIA-UNITATEEN ETA -MODULUEN ARTEKO KORRESPONDENTZIA (HORIEK BALIOZKOTZEKO), ETA LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-UNITATEEN ARTEKO KORRESPONDENTZIA (HORIEK EGIAZTATZEKO)

1. apartatua.– Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren konpetentzia-unitateen korrespondentzia lanbide-moduluekin.

| Konpetentzia-unitatea | Lanbide-modulua |
|---|---|
| UC1080_2: Zaldiz ibiltzeko oinarrizko teknikak menderatzea. | 1325. Zaldiketa-teknikak. |
| UC1081_2: Pertsonak zaldi-ibilbideetan gidatu eta dinamizatzea. | 1327. Zaldi-gidaritza.<br>1328. Taldeentzako arreta. |
| UC0353_2: Bizikleta-ibilbideak zehaztu eta antolatzea askotariko lurretan (gehienez erdi-mailako mendietan). | 1329. Ibilbideak antolatzea. |
| UC0505_2: Behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideak zehaztu eta antolatzea. | 1329. Ibilbideak antolatzea. |
| UC1079_2: Zaldi-ibilbideak zehaztu eta antolatzea askotariko lurretan. | 1329. Ibilbideak antolatzea. |
| UC0506_2: Eraginkortasunez eta segurtasunez aurrera egitea behe- eta erdi-mailako mendiko lurretan eta nordiko erako lur elurtuetan.*<br>UC0507_2: Pertsonak gidatu eta dinamizatzea behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideetan eta nordiko erako lur elurtuetan.* | 1328. Taldeentzako arreta.<br>1333. Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza. |
| UC0508_2: Bizikletak eraginkortasunez eta segurtasunez gidatzea askotariko lurretan (gehienez erdi-mailako mendietan), eta bizikleten mantentze-lan operatiboak egitea.*<br>UC0509_2: Pertsonak gidatu eta dinamizatzea bizikleta-ibilbideetan (gehienez, erdi-mailako mendietan).* | 1328. Taldeentzako arreta.<br>1334. Bizikleta-gidaritza. |
| UC1866_2: Haurren eta gazteen hezkuntzarako astialdi-jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.*<br>UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.*<br>UC1868_2: Astialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.* | 1328. Taldeentzako arreta.<br>1335. Astialdiko teknikak. |
| UC0269_2: Igeriketa-teknika espezifikoak eraginkortasunez eta segurtasunez gauzatzea. | 1336. Igeriketa-teknikak. |
| UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeraren bat gertatuz gero, lehen esku-hartzaile gisa jardutea.*<br>UC1082_2: Ur-ingurune naturaletako istripuak edo larrialdi-egoerak prebenitzea.*<br>UC1083_2: Ur-ingurune naturaletako istripuetan edo larrialdi-egoeretan pertsonak erreskatatzea.* | 1337. Sorospena natura-ingurunean. |

* Multzo bakoitzeko bi edo hiru konpetentzia-unitateak batera egiaztatu behar dira, dagokien korrespondentziarako.

2. apartatua.– Egiaztatzeari begira, honako konpetentzia-unitate hauek dagozkie titulu honetako lanbide-moduluei:

| Lanbide-modulua | Konpetentzia-unitatea |
|---|---|
| 1325. Zaldiketa-teknikak. | UC1080_2: Zaldiz ibiltzeko oinarrizko teknikak menderatzea. |
| 1327. Zaldi-gidaritza. *<br>1328. Taldeentzako arreta.* | UC1081_2: Pertsonak zaldi-ibilbideetan gidatu eta dinamizatzea. |
| 1328. Taldeentzako arreta.*<br>1335. Astialdiko teknikak.* | UC1866_2: Haurren eta gazteen hezkuntzarako astialdi-jarduerak antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea.<br>UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.<br>UC1868_2: Astialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea. |
| 1329. Ibilbideak antolatzea. | UC1079_2: Zaldi-ibilbideak zehaztu eta antolatzea askotariko lurretan.<br>UC0505_2: Behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideak zehaztu eta antolatzea.<br>UC0353_2: Bizikleta-ibilbideak zehaztu eta antolatzea askotariko lurretan (gehienez erdi-mailako mendietan). |
| 1328. Taldeentzako arreta.*<br>1333. Behe eta erdi-mailako mendiko gidaritza.* | UC0506_2: Eraginkortasunez eta segurtasunez aurrera egitea behe- eta erdi-mailako mendiko lurretan eta nordiko erako lur elurtuetan.<br>UC0507_2: Pertsonak gidatu eta dinamizatzea behe- eta erdi-mailako mendiko ibilbideetan eta nordiko erako lur elurtuetan. |
| 1328. Taldeentzako arreta. *<br>1334. Bizikleta-gidaritza.* | UC0508_2: Bizikletak eraginkortasunez eta segurtasunez gidatzea askotariko lurretan (gehienez erdi-mailako mendietan) eta bizikleten mantentze-lan operatiboak egitea.<br>UC0509_2: Pertsonak bizikleta-ibilbideetan gidatu eta dinamizatzea (gehienez erdi-mailako mendietan). |
| 1336. Igeriketa-teknikak. | UC0269_2: Igeriketa-teknika espezifikoak eraginkortasunez eta segurtasunez gauzatzea. |
| 1337. Sorospena natura-ingurunean. | UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa jardutea.<br>UC1082_2: Ur-ingurune naturaletako istripuak edo larrialdi-egoerak prebenitzea.<br>UC1083_2: Ur-ingurune naturaletako istripuetan edo larrialdi-egoeretan pertsonak erreskatatzea. |

* Multzo bakoitzeko bi lanbide-moduluak batera egiaztatu behar dira, baliozkotzeko eskubidea izateko.